



2012-02-27
ASTELEHENA
355. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



XABIER URTZELAI

"Zaleei apur bat ematen diegunean erantzuna sekulakoa izaten da"

Iago Gamarra | Natra-Oñati | 27

Sharon Stoner indartsu itzuli da Oñatiko Gaztelekura | 30



Aramaioko derbia, koadrilen arteko bertso txapelketan | 31



'Ilargiaren bi aldeak', bideo jokoan erabileraren gaineko hausnarketa | 29



IRRATI TXIKIEN JARDUNALDI HANDIA

Arrosa sareak antolatuta, irrati txikien lehen bilkura nazionala egin zuten zapatuan eta Euskal Herri osoko irrati txikietako 60 ordezkari baino gehiago buru-belarri lanean ibili ziren Bergarako gaztetxean egun osoan. | 4

Irrati tailerrak egin zituzten zapatuan, Bergarako Txapa irratia instalazioetan. | JULIO CALLEJA

Herrikideen berotasuna Bergaratik Ciudad Realera

'Aska'-ren askatasuna eskatzeko pilotalekua bete egin zen | 4



'Aska'-ren iloba eta ama. | U.M.

Ford Mugarri igoera fasea jokatzeko sailkatu da

Arrasatearrek Romo talde indartsua garaitu zuten etxean | 25

Gurean ere, Europara irten nahi du gero eta gazte gehiagok lan egitera

Atzerrian lana bilatzea gero eta jende gehiagoren aukera da; batez ere, jende gaztearena, baina adin-tartea handitzen doa: Arrasateko Gazte Informazio Bulegora 30 urte arteko gero eta jende gehiago joaten da, atzerrira joan gura duela-eta, informazio bila. Hizkuntza jakitea da gakoa. | 2-3

Susto handia izan zuten Aloña Mendi taldekoek

Jokalariak etxean dira, baina auto gidaria larri ospitaleratu zuten | 4



Auto batek istripua izan zuen autobus txiki baten kontra. | ANDER MONEDERO

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

AUTOA ETA ETXEA PUNTU-PUNTUAN



Txartela, beti aldean

► Zoaz 21. orrialdera.

Europara lan egitera bai, baina denboralditxo baterako soilik

- ▶ Europara irten nahi du gero eta gazte gehiagok
- ▶ Gazte bulegoek enplegu-informazioa ematen dute
- ▶ Gehienek bueltan etortzeko asmoa dute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Atzerrian lana bilatzea gero eta jende gehiagoren aukera da; batez ere, jende gaztearena, baina adin-tartea handitzen doa: Arrasateko Gazte Informazio Bulegora 30 urte arteko gero eta jende gehiago joaten da, atzerrira joan gura duela-eta, informazio bila. Krisia eta langabezia gurean ere larriak izan arren, egoera oraindik ez da hain latza jendeak denbora mugagabera joan nahi izateko: Arrasateko bulegoko teknikari Dorleta Kortazarrek dioenez, han atenditzen dituzten gazte gehienek "aldi baterako joateko asmoa izaten dute: ikasketak bukatu berri dituzte; edo, hemen lana ezin topatuta, edozein lan egiteko gertu daude beste herrialde baten, esperientzia hori izateko eta hizkuntzak praktikatzeko; baina bueltatzeko asmoa dute gehienek".

Debagoieneko gazte informazio bulegoek horiei laguntzeko eta orientatzeko informazioa batzen dute. Lanbidek, Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ere ematen du Europako lan-eskaintzen gaineko informazioa.

Helburua dena delakoa izanda, atzerriko hizkuntzek eta, batez ere, ingelesak zabaltzen ditu Europako ate gehienak.

Alemaniatik eskaintzak

Garai baten, kualifikazio baxuko lanpostuak ziren ia eskatzen ziren bakarrak. Gaur egun, norberak ikasi duen arloko lan espezializatuago eta kualifikatuagoa eskatzen du gero eta jende gehiagok. Horiendako, bai Lanbidek, bai gazte bulegoek Eures (European Employment Services) sarea dute erreferentzia nagusizat. Europako Batasuneko eta Norvegia, Islandia eta Liechtensteingo enplegu zerbitzu publikoek osatzen duten sarea da; European norba-

naoek askatasunez mugitzeko printzipioan dago oinarrituta, eta Europako 31 herrialdeko enplegu eskaintzak batzen ditu. Donostian badago Euresen bulego bat.

Eures sarearen gaineko 5.000 kontsulta jaso zituen iaz Lanbidek;

Atzerrira lanera bazoaz, eroan...

- ▶ Espainiako Nortasun Agiria edo pasaporte, eta indarrean egon daitezela.
- ▶ Tituluaren edo haren aitortpen profesionalaren zinpeko itzulpena.
- ▶ Itzulitako curriculum, aurkezpen-gutunak, erreferentziak, beste titulu batzuk...
- ▶ Europako Osasun Txartela edo Espainiako Gizarte Segurantzza Erakundeak emandako E-100 Serieko formularioa.
- ▶ Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako E-301 eta E-303, behar baldin badira.
- ▶ Jaiotze-partidaren eta familia-liburuaren fotokopiak.
- ▶ Karnet tamainako hainbat argazki.
- ▶ Sarritan behar izaten diren bestelako baimen edo agiriak: adibidez, gida-baimena.
- ▶ Lehenengo soldata edo diru-sarrera izan arte izateko nahikoa diru: alojamendua, norbere mantenua...

2010ean, 3.761 izan ziren. Lanbideko arduradunek diotenez, "2008an igarri zen kontsulta kopurua asko handitu zela, hain zuzen ere krisia hasi zenean". Gaineratzen dutenez, Eures-eko eskaintzetan, "hizkuntzak dakizkiten langile kualifikatuak eskatzen dira: Lanbide Heziketa dutenetik doktoretza egin dutenetaraino". Euskadin, baina, beste bi eskatzaile-mota hauek daude batik bat, Lanbide-aren esanetan: kualifikazio tekniko ona duena baina atzerriko hizkuntzarik ez dakiena, edo hainbat hizkuntza dakizkien kualifikazio txikidun langileak.

Atzerriko eskaintza gehienak Alemaniatik datoz; batez ere ingeniariak eskatzen dituzte. Hizkuntza muga izaten da. Kualifikazio handiko lanpostuetarako, alemaneko B-1 maila eskatzen dute. Bestalde, lehenengo aldiz, kualifikazio maila ertain edo txikiko sasoiko lanpostuetarako eskaintzak datoz Alemaniatik.

Erresuma Batuak osasun arloko lanpostuak eskatzen jarraitzen du, eta Suedian, azkenaldian, eraikuntzako plazak agertu izan dira.

Laster, Lanbidek Euresen leiho berezia irekiko du www.lanbide.net webgunean, eta Euresen informazioa eta eskaintzak agertuko dira han.


Euresen, lan-eskaintzak sektoreka eta herrialdeka sailkatuta agertzen dira; baina norberaren curriculuma jartzeko datubasea, herrialdeetako enplegu zerbitzuak eta beste informazio praktikoa batzuk ere badaude.

Webgune interesgarriak

Eures sarea norberaren kontura bilatzen dabilzanezi zuzenduta dago, batik bat. Horiendako ere, beste webgune bat gomendatzen du Dorleta Kortazarrek: Europako Gazteen Ataria (europa.eu/



Arrasateko Gazte Informazio Bulegoaren webgunea (www.gaztebulegoa.com). | GOIENA



Europako gazte ataria, Europako Batzordearen ekimena (europa.eu/youth). | GOIENA

youth). "Europako Batzordearen ekimena da, gazteei ahalik eta informazio zabalena emateko. Zertara joan gura duen arabera informazioa topatuko dugu han: eskubide eta betebeharrak, ikastera goazen, lanera goazen, praktikak egitera goazen, udako lana... hori guztia, herrialdeka banatuta. Horregatik, hainbat konbinazio egin ditzakegu", azaltzen du.

Horiek dira norberaren kasa moldatu gura dutenendako webgune nagusiak. Baina batzuek bitartekari enplegu zerbitzuak izaten dute. Gazte informazio teknikariak dioenez, Gipuzkoan edo Euskadiko agentziak gomendatzen dizkiete jendeari: "Gertutasunagatik da. Gaur egun Interneten jende asko mugitzen da, baina gertuan dagoen enpresa bat izateak segurtasuna ematen du".

Agentzia edo enpresa horiek "denetariako" zerbitzuak ematen dute: "lana bilatzea bakarrik, edo lana eta bidaia, alojamendua ere bai...". Ohar bat: "Ez dira merkeak izaten". Horren truke, kalitateko zerbitzua ematen dutela diosku Kortazarrek.

Hizkuntza praktikatzeko baldin bada helburua, propio horretan diharduten agentziak eta erakundeak ere badaude: Aseproce elkarrekin (www.aseproce.org) atzerrian hizkuntza-ikastaroak eskaintzen dituzten Espainiako erakundeak batzen ditu.

Ez bakarrik udan

Atzerrira joan gura duten gazte asko edozein lan mota egiteko gertu daude: denbora bat atzerrian

eman nahi dute, esperientzia hartu eta hizkuntza praktikatzeko. Hor ere egon dira aldaketak: "Lehen, normalean jendeak uda aprobetxatzen zuen atzerrira joateko. Orain, urte osoan datozkigu". Beste desberdintasun bat ere badago, krisiak ekarritakoa: "Garai baten, hoteletan, ostalaritzan... lantxo asko egoten ziren atzerrian, baina orain, ez hainbeste. Izan ere, herrialde horietan bertakoek hartzen dituzte orain lanpostu gehienak". Horregatik, samurrago topatzen dira lanpostuak udatik kanpo.

Lan mota horietarako eskaera gehienak ikasketak bukatu berri dituzten gazteengandik datoz.

Beka deialdi berrienak

Gazte bulegoen sarean, beste eskaera bloke handi bat beken edo diru-laguntzen inguruko informazioarena da. Gazte bulegoetan, denetariako beken deialdiak jasotzen dituzte. Multzo handi bat atzerrira joateko beka dira: Erasmus, Leonardo, zenbait fundaziok eskaintzen dituzten beka eta bestelakoak: "Kanpora joateko, ikasteko, lan-praktikak egiteko, mugikortasun beka... denetarik egoten da", esaten du Kortazarrek.

Gazte Informazio Bulego sareak egindako produktua da beka deialdien liburuxka. Interneten ipintzen dute urtero: www.gipuzkoangazte.info/bekak. PDF formatuan jaisteko aukera dago. Gainera, deialdia iazkoa den kasuetan ere, aurtengo deialdia egin bada, estekak aurtengora eramango gaitu.

Europako enplegu zerbitzu publikoen sarea da Eures (eures.europa.eu). | GOIENA

Gazte bulegoen webgunean (www.gipuzkoangazte.info) beken gida dago. | GOIENA

DORLETA KORTAZAR | GAZTE INFORMAZIO TEKNIKARIA

"Hizkuntza jakitea da gakoa eta kontuan hartu beharreko lehenengo gauza"

Arrasateko Gazte Informazio Bulego-ko arduradun Dorleta Kortazarren esanetan, Europako herrialde gehienetan, ingelesa jakitea nahikoa da, hasieran behintzat.

Arrasateko bulegoak bere ordutegia moldatu berri du. Zergatik?

Bulegoak ere aro digitalean sartu gara. Webgunean ipintzen dugu gure ustez informazio interesgarria, eta gero eta gehiago sare sozialak erabiltzen dira informazio hori jasotzeko. SMSa ere badaukagu.

Zelako informazioa eskatzen du bulegora datorren jendeak?

Gai-bloke handi batzuk daude: lanpostuak, ikastaroak, informazio turistikoa, aisialdirako aukerak... Txartelak tramitatzeko ditugu, eta horiek egiteko jende asko dator: ikasle txartela eta aterpetxe txartela. Beste bloke handi bat bekek osatzen dute: ikasteko bekek, atzerri joateko bekek, norberak ikasi duen gaian espezializatzeko aukera ematen duten bekek...

Sasoien arabera aldatzen doa. Orain, kanpora joateko aukeren bila dator jendea.

Zer da lan bila dabilenak kontuan hartu beharreko lehenengo gauza?

Batetik, bere kontura bilatu nahi duen edo agentzien zerbitzuak erabili; eta, bestetik, hizkuntza. Lehenengo kontua da hartu behar gaituen herrialdeko hizkuntzan moldatzeko gai garen. Horrela baldin bada, asko daukagu



Dorleta Kortazar. | LEIRE KORTABARRIA

irabazita: adibidez, zuzeneko harremana egiteko aukera izango genuke. **Norako informazioa eskatzen du jendeak?**

Ingelesa menderatzen duena nahiko zabalik dago Europako edozein herrialdera joateko. Larriago dabilena Italia aldera joaten da; edo ingelesa praktikatu nahi duten askok Ingalaterra edo Irlandara joan nahi izaten dute. Frantziara, gutxiago, harako oraindik frantsesa eskatzen delako; Europako beste herrialde askotan, ingelesarekin bakarrik norbera moldatu daiteke.

Lanpostu kualifikatua nahi duena nondik bideratzen duzue?

Eures sarea da inportanteena, eta Europako Gazte Ataria ere bai. Baina hemen ere, atzerriko hizkuntzarekin moldatu behar da norbera gestioa egiteko. Kontuan izan behar da, kasu batzuetan, harremana telefonoz dela, eta hizkuntza menderatu beharra dago. Beste lan batzuetarako, enpresak edo elkarteak daude eta bitartekaritza ematen dute.

Eta adin aldetik, ze jende dator?

Lehen, atzerriko lehenengo esperientzia horren bila 18 edo 19 urterekin etortzen hasten ziren. Orain, ohikoa da 25 bat urtekoa, baina 25 eta 30 urteko tarte horretako gero eta gehiago etortzen dira.

Jendeak epe baterako soluzioa nahi izaten du edo atzerrian bizi izatera joan nahi du?

Normalean, bueltatzeko asmoarekin daude, batez ere ezjakintasuna dutelako atzerrian zelan ibiliko diren. AEB-tara edo Australiara doazenak luza-roago geratzeko asmoz joaten dira; baina Europa irtetzen direnak, ez.

Europar gazak hobeto ote daude, lan aldetik?

Urte batzuk oso oparoak izan ziren: ostalaritzan, hoteletan... lanpostu asko egoten ziren eta Britainia Handira eta Irlandara joateko programa asko zuden. Baina gaur egun, hemengo antzeri daude han ere, eta hango jendeak betetzen ditu lanpostu horiek. Hortaz, bai, plaza gutxiago daude orain. Udan joan nahi duenak denboraz bilatu eta begiratu behar du. Urtean zeharrekoek aukera handiagoa dute zerbait topatzeko.

Pertsonalizatu ezazu zure etxebizitza zure neurrirra

- Eraikuntza-lanak hasi dira dagoeneko.
- Pertsonalizatu ezazu zure etxebizitza.
- Ordainketa planifikatzeko denborarekin.
- 2013an zure etxebizitza eskuratuko duzu.

2 LOGELA: 198.000€*

3 LOGELA: 240.000€*

* Gehi BEZ.

ARRASATE

LKS

INFORMAZIOA ETA SALMENTA

943 71 22 59

PROMOZIOAREN
FINANTZAKETA ETA
ABAL EMATEA

kutxa

UTE URIBARRI

GURE BERMEAREKIN:

sukia GEDI

Irrati txikiak handi egin ziren Bergaran

Elebkarreko, elebiko eta hirueleko irratiak gaztetxean izan ziren, jakintzak trukatzeko

UBANE MADERA | BERGARA

Euskal Herri osoko irrati txikiak 60 ordezkari baino gehiago buru-belarri lanean ibili ziren Bergarako gaztetxean zapatuan, egun osoan.

Arrosa sareak antolatuta, irrati txikien lehen bilkura nazionala egin zuten, eta jasotako erantzunarekin "oso gustura" geratu ziren antolatzaileak: "Pentsatzen genuena baino jende gehiago etorri da, eta hori pozkoa izaten da beti. 62 lagun inguru goizean, gehiago arratsaldean. Euskal Herri osotik etorri da jendea: Iparraldetik, Nafarroatik, Arabatik, Bizkaitik... eta denetik etorri da, gainera: irrati txikiak, libreak, euskara hutsezkoak, elebidunak, hastear dauden irratiak..." kontatu du Jon Aranburuk, Gasteizko Hala Bedi irratiaren langile eta Arrosa sareko ordezkaria.

Auzolana oinarri

Irratigintzan jarduteko jakintza eta tresnak partekatu zituzten Arrosaren lehen bilkura nazional horretan: "Askotan ez gare-

nez profesionalak, zenbait tresna ibilian-ibilian ikasi ditugu erabiltzen, eta guk ikasi ditugun gauzak besteei erakustea ere komeni izaten da. Arrosa sareak auzolanean egiten den sarea denez, jakintza ere auzolanean elkarbanatu nahi genuen".

Kalekoak eta gertukoak

Aranbururen esanetan, zapatuko bukaturak, momentuz ez dute bestelako bilkura nazionalik egiteko asmorik. Baina hori bai, Arrosa sareak bere lanarekin segituko duela aditzera eman zuen. Era berean, irrati txikien esparrua aldarrikatu zuen Aranburuk: "Hedabide txikiak eta tokian tokikoak kalekoak gara, eta kontatzen ditugun istorioak eta ematen ditugun berriak geure gertukoak berriak dira, geure begietatik begiratutakoak. Gu ez gaude enpresa batek, edo irrati komertzialek bezala, diruak esan nahi duenari begira; irrati bakoitzak bere asmo informatiboaren arabera lan egiten du. Batez ere gertutasuna ematen dugu".

JON ARANBURU | ARROSA SAREKO ORDEZKARIA

"Pixkanaka-pixkanaka ari dira sortzen irrati berriak"

Zer dela-eta egin dituzte jardunaldiak Bergaran?

Bergaran geundela erabaki genuen jardunaldiak egitea, eta ikusi genuen Bergarako gaztetxeak baliabide asko eta oso egokiak eskaintzen dituela, Txapa irratiaren ere gaztetxearen baitan dago... horrek gauza asko errazten zizkigun. Eta gaztetxe bat izatea ere egokia iruditu zitzaigun. Gu ez gara leku handien zale, Euskalduna, Kursaal eta halakoen zale. Gaz-



Jon Aranburu. | U.M.

tetxeetan askotan ibiltzen gara, eta gaztetxeak izaten dira kulturaren elkartrakerako lekurik nagusienetako bat.

Erantzuna ikusita, etorkizun ona antzematen zaie irrati txikiak?

Aurrera goaz. Ez dituzte batzuk alperrik 27 urte bete, beste batzuk 30, 31... Eta irrati berriak ere pixkanaka-pixkanaka ari dira sortzen. Gaur egun teknologiak asko errazten du irratiak egin ahal izatea.

Herrikide eta lagunaren berotasuna, Bergaratik Herrera de la Manchara

Frontoia lepo bete zen, Mikel Askasibar Aska-ren aldeko pilota jaialdian

U.M. | BERGARA

21 Urte Asko Dira. Mezu horrekin, kartzelan 21 urte daramatzan Mikel Askasibar Aska-ren kalekatzea eskatu eta haren senide eta lagunak elkartasuna adierazi zieten zapatuan Bergarako pilotalekua lepo bete zutenek. "Manifestazioa egin ahal genuen, edo Herrera de la Manchara bidaia antolatu, baina Aska pilotazalea denez, pilota jaialdi hau antolatzea erabaki dugu", esplikatu zuten antolatzaileek aurkezpenean.

Eta asmatu ere ondo asmatu zuten zer egin pentsatzerakoan. Bergarako pilotalekua gainezka, Mikel Goñi eta Aska-ren lagunak pilota espektakuluarekin gustura bertaratutakoak, baina batez ere, Aska-ren familia eta lagunak hunkituta eta indarberrituta utzi zituzten zapatukoak: "Nik ez nuen espero horrenbeste jende. Ikusten da herria mugitzen ari dela eta preso eta iheslariaren aldeko mugimenduan herriak baduela zeresana, eta pozgarria da hau horrela ikustea. Ea aurrerantzean ere horrela betetzen jarraitzen ditugun bai frontoia eta baita kaleak ere; honek indarra ematen du, lanerako gogoia", adierazi zuen Eider Valentinek, Askaren ilobak.



Senide eta lagunak pilota jaialdian egindako omenaldian. | U.M.

Aitortu zuen jaialdiaren harira, osaba "urduri" zegoela eta domekan bertan (atzo) deitu behar ziela "galdetzeko zer moduz joan den dena".

Orokorrean, berriz, Aska "indartsu eta denerako gertu" dagoela kontatu zuen, "nahiz eta alde guztietatik kolpeak jaso".

Gaur mozia, osokoan

Bestalde, zapatuko ekimenen alde egin zuten gaur, astelehena, Bergarako osoko bilkuren aretoan joateko (19:30), Aska-ren alde-

ko mozia aurkeztu behar dutelako, ehundik gora Udal langilek sinatuta. Besteak beste, gogora ekartzen dute Askak 2008an bete zituela zigorraren hiru laurdenak, eta bost puntutan, Aska eta senideei elkartasuna adierazteaz gainera, bere askatasuna, salbuespeneko neurri denak desaktibatzea, askatasuna gauzatu bitartean Euskal Herriko espetxe batera gertura dezatela eta aurrerantzean antolatutako diren ekitaldiak eta ekimenak babestea eskatu gura dute.

Oso larria izan zitekeen istripua susto hutsean geratu zen zorionez

Auto batek eta Oñatiko saskibaloijokalariek zeramatzan autobusak izan zuten istripua

GOIENA | ARRASATE

Aloña Mendiko kadete mailako saskibaloijokalariek guztiak onik daude.

Saskibaloiko saileko presidente Jose Luis Campok eman dizkigu azken berriak: "Susto handia hartu genuen. Poliziak esan zigun askoz larriagoa izan zitekeela, jokalariek oso gazteak direla kontua hartuta. Zazpi jokalariek zauritu ziren, guztiak kolpeekin: belarriekin, zerbikaletan... Batzuei lepokoa ipini zieten, baina denak daude etxean".

Jardunaldia atzeratu

Zapatu gauean bertan jaso zuten Aloñakoek Gipuzkoako Saskibaloiko Federazioko presidenteari deia. "Esan digu hurrengo jardunaldia atzeratu beharra badugu, ez dagoela arazorik. Jokalariek sendatu arte, lasai egoteko".

Autoa sartu zen erreian

Izan ere, saskibaloiko jokalariek gazteek denbora apurtxo bat beharko dute zapatuan izandako sustoa gainetik kentzeko.

Donostiako partidutik bueltan Bergaratik Arrasaterako noranzkoan zihoazela izan zuten istripua.



Autoa autobusaren kontra joan zen, eta autobusa paretaren kontra. | ANDER MONEDERO

Auto bat euren erreian sartu (autobus konpainiako zuzendariaren arabera), eta saskibaloiko autobus txikiaren kontra joan zen, eta autoaren muturra guztiz zapalduta geratu zen.

Auto gidaria larri

Suhiltzaileak bertaratuta behar izan ziren istripuaren lekura, autoa guztiz zapaldu eta gidaria bertatik ateratzeko.

Izan ere, autoa gidaria izan zuten istripuan minik handiena

hartu zuena. Gasteizko Santiago ospitalera eraman zuten.

Autobusean zihoazen jokalariek zaurituak izan ziren, eta beste sei Bergarako osasun zentroran, baina esandako moduan, guztiak ala guztiak onik daude.

Errepidea moztuta

Istripuaren eraginez, Arrasate eta Bergara arteko errepidea guztiz itxita izan zen pare bat orduan.

Lankideen "kaleratzeak salatze" elkarretaratzea egin dute Tesan

Langileek salatu dute martxoan amaitu aurretik 16 lagun doazela kalera

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Elkarretaratzea egin zuten eguen eguerdian Eskoriatzako Tesa enpresako langileek, *Tesa Assa Abloy despidorik ez!!* lelopean. Medikua kaleratzea salatzearekin batera, martxoan amaitu aurretik beste 15 langile kalean

geratuko direla arbuia zuten. Egun, 109 langile ditu Tesak.

Enpresa aurrean egindako elkarretaratzean, hango langile Igor Ferreirak azaldu zuen medikuaren kaleratzea salatzea zela hitzordu horren hasierako asmoa. Azaldu zuen astelehenean izan

zutela zerbitzu medikuan aldatzeko egiteko asmoaren berri eta, horretarako, orain arteko medikua kaleratuko zutela.

Gogorarazi zuen 100 langiletik gora dituzten enpresak derrigortuta daudela medikua izatera. Horren harira, honakoa esan

zuen: "Beste 15 langile botatzen baldin badituzte, 100 langile baino gutxiago izango ditu, eta horretaz, ez du zerbitzu hori eskaini beharko. Horretaz gainera, 15 kaleratze horiekin produktibitatea hobetu nahi dutela esan digute. Tesan lana dago, ez krisia hasi

baino lehen geneukana, baina gaudenendako lana badago. Ez dugu behar hori ikusten".

Negoiazteko gertu

Zuzendaritzaren jarrera "diktatoriala" salatzearekin batera, kaleratzeak ekidin nahi dituztela eta negoziatzeko gertu daudela nabarmendu zuten langileek. Ferreiraren esanetan, beste hainbat bide aztertu daitezke lankideak kaleratu baino lehen. Irtenbide moduan, enplegua erregulatzeko espedienteak aipatu zuen. Gaur, astelehena, asanblada egingo dute osterara, eta bestelako neurriak aztertuko dituzte.

Zuzendaritzatik hitzik ez

Langileen iritzia jakin ostean, enpresako zuzendaritzarekin harremanetan jarri ginen, eta, oraingoz, adierazpenik egiteko asmorik ez dutela esan zuten.



Tesako langileak, eguen eguerdian enpresa aurrean egindako elkarretaratzean. | MIRIAN BITERI

ESANAK

"Gaudenendako lana badago; ez dugu behar hori ikusten"

IGOR FERREIRA | LANGILEA

"100 langiletik behera baditu, ez du medikurik izan behar"

IGOR FERREIRA | LANGILEA

EAJk, PSE-EEK eta PPk atez atekoa zabaltzeko Bilduk hartutako erabakia kritikatu dute

Jeltzaleek salatu dute sistema hori "modu autoritarioan" ezarri nahi duela koalizioak

M.B. | ARRASATE

Bilduk Gipuzkoako 34 udalerritan zabor bilketa atez ateko sistemaren bidez egingo duela iragarri ostean, gogor kritikatu dute EAJ, PSE-EE eta PP taldeek. EAJko Gipuzkoako Buru Batzarreko bozeramaile Eugenia Arrizabalagaren esanetan, sistema hori "modu autoritarioan" inposatzea erabaki du, "herritarrei kontsultarik egin gabe eta parte hartzeko aukerarik eman gabe".

Jeltzaleak aipatu du atez atekoak ez dituela zabartzeak eta erraustegiak saihestuko. Horren harira, ohartarazi du ezker abertzaleak sistema horrekin aurrera segitzeko erabakia hartzen badu, Gipuzkoako zabartzeak "kolapsatu" egin daitezkeela. Horregatik

guztiagatik, EAJk herritarren partaidetzarako mekanismoak exijituko dituela iragarri du.

Ekonomikoki oso garesti

Bestalde, PSE-EEKo Denis Itxasok ohartarazi du ekonomikoki atez atekoa garesti irtengo dela: "Hondamendi ekonomiko batean murgilduko gara. Atez ateko sistema oso garestia da". Horretaz gainera, zaborren %90 birziklagarriak badira ere, emaitza hori lortzea ezinezkoa dela dio: "Lortuko dutela uste badute, jai daukate". Azkenik, PPko Juan Carlos Canok honakoa esan du: "Hartu duten erabakia ez da zuzena, baina ez gara geratuko besoak gurutzatuta. Nagusi direla uste dute, baina ez dira hala".

Koben Egunaren harira, Arrikrutzen bisita berezia egingo du Iñaki Zubeldiak

Martxoaren 3an izango da bisita: 16:00etan batuko dira Arrikrutzeko Interpretazio Gunean

M.B. | OÑATI

III. Koben Eguna martxoaren 4an egingo dute, baina Arrikrutzeko lehoia topatu zuen Iñaki Zubeldiak bisita berezia egingo du martxoaren 3an. 16:00etan batuko dira Arrikrutzeko Interpretazio Gunean. Bisita gidatu horretarako plazak mugatuak dira, eta lehentasuna izango dute ume eta gazteek. Interesatuak 943 08 20 00 telefono zenbakira deitu behar dute.

1966. urtean, Iñaki Zubeldia Arantzazun ikasketak egiten zebilela, Arrikrutzeko galerian barrena joan zen lagun taldeak Oñatiko kobetako lehoia aurkitu zuen domeka batean egingo dako irteeran; hain justu ere,

orain dela 30.000 urte Euskal Herrian bizi zen lehoia.

Atlantiar Pirinioetako eta Erlaitz Kantauriarreko senidetutako zortzi leizeek martxoaren 4an III. Koben Eguna egingo dute; hain justu, Nafarroako Zugarramurdik, Ikaburuk (Urdax-Urdazubi) eta Mendukilok (Astitz); Lapurdiko Sarak, Gipuzkoako Arrikrutzek (Oñati) eta Ekainberrik (Zestoa) eta Bizkaiko Pozalaguak eta Kobenkobak (Karrantza).

Egun horretan sarrerak erdi prezioan salduko dituzte koba horietan. Gainera, egun horretan kobak ikustera doazen guztien artean opari berezia zozketatuko dute: Saran aste bukatu bat.

Izaba proiektuak boluntarioak behar ditu

M.B. | ARRASATE

Gipuzkoan bakarrik dauden adingabeak hobeto integratzen laguntzea helburu duen Izaba proiektuak boluntarioak behar ditu Debagoiengan. Horren harira, eguenerako, martxoak 1, berbaldua antolatu dute Arrasateko kulturaren, 19:00etan, debagoiendarrei egitasmo horren gaineko informazioa helarazteko.

2009an programa martxan jarri zenetik, 30 familiak eta adingabekok bizi izan dute esperientzia. Pertsona edo familia boluntarioak egoera zaurgarrian dauden adingabeak atzerritarren osaba-izeba moduan jokatzean datza programa horren ardatza. Balantzea positiboa da, eta, Diputazioko Gizarte Politikako Sailarekin ados jarrita, esperientzia bertako adingabeoengana zabaltzea erabaki dute. Hori dela-eta, Bake-tikek beste 30 boluntario behar ditu gazte horiekin osaba-izeba moduan jarduteko.

Herritarren partaidetzarako dirulaguntzak eska daitezke

Foru Aldundiak 690.000 euro banatuko dizkie udalei eta herritarrei

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Lehenengo aldiz, herritarren parte-hartzerako dirulaguntzak emango ditu Foru Aldundiak, eta horiek eskatzeko epea zabalik dago joan den zapatua ezkerro. Hain zuzen, 690.000 euroko dirulaguntza emango du aurten Foru Aldundiak herritarren partaidetza sustatzeko. Bi deialdi egin ditu: bata udalentsat, eta bestea, herri erakunde eta mugimenduentzat.

Gipuzkoako Foru Aldundiak "Euskal Herrian eta Gipuzkoan betidanik" egon den parte-hartze kultura "berreskuratu eta hedatu" nahi du: "Gipuzkoako herritarrengana demokrazia zabaldu, Gipuzkoako instituzioak ireki eta, horretarako, herritarren parte-hartzea erakundeetan bermatu", esaten du.

Foru Aldundiaren ustez, parte-hartzea "prozesu iraunkorra da" eta "hainbat tresnaren bidez" egin beharrekoa. "Bide horretan, udalak ezinbesteko erreferentzia dira", esaten du Diputazioak. Horregatik, partaidetza sustatzeko 515.000 euro banatuko ditu udalen artean. Udalek banaka edo elkartuta aurkeztu ahal izango dute nahi adina eskaera, eta herri txikiak proiektu komunak aurkeztu ahal izango dituzte elkarrekin. Proiektu estrategikoak eta herritarren parte-hartzea bultzatzen dutenak hartuko dira kontuan.

Udal batek gehienez 18.000 euroko eta gutxienez 3.000 euroko dirulaguntza jasoko du proiektu bakoitzeko.

Herritarrendako ere bai

Kontzeptu berean, herri mugimendu eta erakundeendako deialdi bat egingo du Foru Aldundiak: 175.000 euro. Udalen kasuan bezala, herri mugimenduek ere batera aurkeztu ahal izango dituzte egitasmoak.

DATUA

175.000

EURO

Partida berezi bat dago herri mugimenduentzako eta erakundeendako: 175.000 euro dirulaguntzatan.


Laguntzen dutenei laguntzeko dirua

Gizarte ekimeneko laguntzetan 787.453 euro banatuko ditu aurten Foru Aldundiak, haurtzaro, osasun, desgaitasun eta mendekotasun arazoak gainditzeko lanean ari diren irabazi asmorik gabeko erakundeak diruz laguntzeko. Diputatu Kontseiluak joan den martitzenean onartu zuen partida hori. Dirulaguntzak jaso gura duten elkarteek hilabete izango dute eskaera egiteko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdia kaleratzen denetik. Laguntzok babesik gabeko ume eta gazteen arazo sozialei arreta egin eta gainditzeko zein desgaitu eta adinduendako arreta sozial edo soziosanitarioa emateko programak egiteko ematen dira.

Programak martxan jartzeko

Zehazki, helburu hauetarako erabil daitezke:

- Erakunde eskatzaileen elkarte-mugimenduak eragindako kostuak finantzatzeko.
- Programa bereziak indarrean jarri, ezgaituen, babesik gabeko haur eta gazteen eta adinekoen egoera hobetu eta gizarteratzea helburu dutenentzako bereziki.
- Boluntarioen sustapenean eta prestakuntzan eragina duten programetarako, Gizarte Politikarako Departamentuaren eskumenera barruan.



BURSONMARBESTELLER

Txinako merkatuan aurrera

Goi-mailako De Dietrich markako etxetresnak Txinan saltzeko hitzarmena egin dute Fagor Group-ek eta Robam enpresa txinatarrak. Fagor Group-ek du erabaki-ahalmen handiena. Fagorren esanetan, Europatik inportatutako goi-mailako etxetresna elektrikoen merkatua handitzen doa Txinan eta De Dietrich-ek "oso harrera ona" izango du.

Eskuzko ordainketek enpresen artean bakarrik izango dute maximoa

Iruzuraren Aurkako Planaren barruko neurria da

L.K. | ARRASATE

Gura besteko diru-kopuruekin ordaintzen jarraitu ahal izango dute eskuz norbanakoek. Izan ere, Espainiako Ogasun idazkari Miguel Ferrek joan den astean esan zuen gobernuak enpresen arteko eskudirutako ordainketetan bakarrik ipiniko zuela gehieneko muga bat, eta hori horrela izango dela, behintzat, "lehenengo fase" baten. Neurri hori Espainiako Gobernuak Iruzuraren Aurkako Planaren barruan dago, eta helburua da ezkutuko ekonomia azalera ekartzea, diru beltzeko ordainketak galaraziz, Ogasunari jakinarazten ez zaizkionak, alegia; eta baita, ezkutuko jarduera ekonomikoa saihestea ere.

Urtarrilaren 5ean aurreratu zuen Soraya Saenz de Santamaria Gobernuak halako neurria hartuko zela, baina ez zituen ordainketa motak zehaz-

tu, ez eta gehienez zenbat diru eskualdatu ahal izango den. Ferrek ere ez du bigarren zalantza hori argitu. Ipar Euskal Herrian eta Frantzia 3.000 eurokoa da muga, partikularren eta herrialdeko enpresen artean, eta 15.000 eurokoa, enpresaren egoitza soziala atzerrian dagoenean. Espainiako Ogasuna aztertzen dabiren herrialdeetan, Frantzia eta Italian, 3.000 eta 5.000 euro arteko mugak daude.

'Paradis fiskalak' saihestu

Otsail bukaeran edo martxo hasieran gertu izan nahi du Espainiako Gobernuak Iruzuraren Aurkako Plana, eta aurten 8.171,7 milioi euro batu nahi dira horren bidetik. Plan horren barruan ere, zerga-ordainketan abantaila gehiago eskaintzen dituzten herrialdeekin informazio gehiago eta hobeto elkartrukatuta nahi du Espainiak.

DATUA

%23

EZKUTUAN EGITEN DA

Gestharen esanetan, Espainiako ekonomiaren %23,3 ezkutuko da.

DATUA

830

EURO GEHIAGO

Norberak zergatan 830 euro gehiago ipintzen du, iruzurrak konpentsatzeko.

Iruzugileen zentsua prestatzen dabil Foru Ogasuna, berriro delitua egin dutenak kontrolatzeko

Iruzugileen zentsua bukatzen dabil Foru Aldundia, behin baino gehiagotan iruzur egin duten zergadunak kontrolatzeko. Hori jakinarazi du Helena Franco diputatuak iazko zerga kanpainako iruzur datuekin batera: 2011n, 312,4 milioi euroko iruzurra antzeman zuen Gipuzkoako Ogasunak, 2010ean baino %1,6 gutxiago bakarrik. Diru-kopuru hori Gipuzkoako Barne Produktu Gordinaren %1,48 da, biztanle bakoitzeko 446 euro.



Tavexek Bergarako Gabiria dorrean du egoitza soziala. | JOSETXO ARANTZABAL

Tavexek "ezin du aurrean" negoziazioaren emaitza

Arrisku-enpresa batek Tavex erosi nahi du

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA
Mercapital arrisku-kapital enpresak eta Camargo Correa multinazionalak Tavex eskualdatzea aztertzen dabilta. Javier Loizagak sortutako Mercapitalek Tavex erosteko agertu duen interesaren

harira, *due diligence* (auditoria) prozesua ireki dela jakinarazi du Tavexek. Bergaran egoitza soziala duen enpresak jakinarazi du ez dakiela "inongo erabakirik" hartu den Tavexen akzioak erosteko, eta ezin duela aurrean

"prozesu horren emaitza zein izango den". Bere aldetik, Mercapital Private Equity enpresak Tavex Taldearen %49,7ren jabe den Camargo Correa enpresarekiko haren akzioak erosteko "esklusibitate akordioa" lortu duela esan du. Akordio horren bidetik -Mercapitalek argitzen du ez dela loteslea eta atariko dela-, Mercapitalek "aurreikusten" du "datozen asteetan atzeraezineko salmenta akordioa lortzea Camargo Correarekin". Akordio hori egin egingo dela aurreikusita, Mercapitalek Tavexen akzio bakoitza 0,41 eurotan erostea proposatzen du.

Iaz, 323 milioi zorretan

Tavexen egoitza soziala Bergaran dago. 2010 bukaerara arte, *denim* ehuna egiteko lantegietako bat ere Bergaran zegoen, ehungintza sektoreko azkena; une horretan, ixtea erabaki zuten.

Burtsan kotizatzen du Tavexek, eta Mercapitalen interesa jakin zenean, bere akzioak %13 inguru igo ziren. Iazko irailean, 323 milioi pasatxoko zorra zuen, 2010 bukaeran baino 24 milioi gehiago.

Iñigo Iñurrategi | Lanki ikertegiko kidea

"Balio erantsia lortzea baino erronka sakonagoak ditugu gizartean"

- ▶ Ekonomia sozialaren gainean hitz egin zuen Iñigo Iñurrategik Legebiltzarrean
- ▶ Kooperatiben eta gizartearen erronka handiena gaurko garapen-eredutik datorrela dio

LEIRE KORTABARRIA | ESKORIATZA

Iñigo Iñurrategi Lanki ikertegiko kidea da. Joan den martitzenean, Gizarte Politika, Lan eta Berdintasun Batzordeak deitutako batzar baten izan zen Legebiltzarrean. Espainian Ekonomia Sozialaren Legea onartu zen iaz, eta batzorde horrek hainbat eragileren iritzia eskatu du.

Azken urteetan Eusko Jaurlaritzak gero eta interes handiagoa erakusten du ekonomia sozialarekiko. Zergatik uste duzue hala dela?

EAEen Arrasateko kooperatibek pisu esanguratsua izan dute aspalditik eta alde horretatik aspaldikoa da hemengo gobernuaren interesa kooperatibengan. Arrasateko esperientziaren dimensio horrek berak historikoki nola baiteko itzalpean utzi ditu ekonomia sozialeko gainontzeko erakundeak, beraien garrantzia esanguratsua den arren: ekonomia solidarioko elkarteak, lan sozietateak edo autonomoak, besteak beste.

Interesari dagokionez, seguru aski krisiaren aurrean ekonomia sozialeko erakundeek izan ohi duten erantzun hobea izan daiteke arrazoi pisuzko bat. Urte oparoetan ez dute horrenbesterako oihartzunik izan.

"Langilearen gehiengoak eremu demokratizatu gabeetan dihardu lanean", diozu.

Ahoa betetzen zaigu demokraziaz hitz egiterakoan, eta errealitatea bestelakoa da: herrialde demokratikoenetan ere, bertako langileen gehiengoak bizitzaren zati handi baten erakunde ez demokratikoetan dihardute lanean. Ekonomia, eta bere baitan lan mundua, gure bizitzan hain garrantzitsuak izanda, ez daude ia batera demokratizatuak. Eta kooperatibak, enpresa eredu gisa, langileoi subiranotasuna praktikan jartzeko baldintzak eskaintzen dizkigu. Enpresaren jabe izatea, enpresaren erabakietan parte hartzeko eskubidea izatea eta lanaren emaitzaren banaketan eskubidea izatea lana demokratizatzeko oinarritzko baldintzak dira.

Legebiltzarrak zelan eman diezaiokie lehentasuna ekonomia sozialari?

Legebiltzarrari ekonomia soziala sustatu eta baldintza egokiak izateko legeak garatzea dagokio, alde batetik; eta bestetik, erakunde mota hauek bultzatzeko politika zehatzak martxan jartzea. Gauza asko egin da, baina badago zer



Iñigo Iñurrategi Lankiko ikertzailea. | HUIHEZI-LANKI IKERTEGIA

"Ekonomia eta lana, hain garrantzitsuak izanda, ez daude ia demokratizatuak"

"Langileon subiranotasunerako baldintzak ematen ditu kooperatibak"

hobeturik. Adibidez, sortu berria den Lanbideko erabaki organetatik kanpo utzi dituzte kooperatibak eta ekonomia sozialeko gainontzeko erakunde guztiak ere, bertan hartuko diren erabakiek langile eta enpresa guztiengan eragina izango dutenean.

"Kooperatibisten jokaera ez da perfektua", ere onartu zenuen. Kooperatibistak idealizatuta izan ditugu?

Kanpotik begiratuta bada Arrasateko kooperatibismoa errealitate bihurtutako utopia bezala

"Kooperatibak utopiatik urrun daude, baina gauza on asko dituzte"

"Urte oparoetan, ekonomia sozialak ez du horrenbeste oihartzunik izan"

ikusten dutenak, eta beste batzuek, berriz, edozein korporazio kapitalistaren pareko gisa ikusten dute. Barrutik ezagututa, esan daiteke, oraindik utopiatik urrun samar dagoen arren, gauza on, interesgarri eta garrantzitsuak dituela.

Kooperatibistak, berez, ez dira pertsona ezohikoak. Baina antolatze moduak berezi egiten ditu. Hain zuzen ere, erakunde hauen izaera demokratikoak, lanaren jabetzak, egiturazko arduraren ematen dizkio langileari, enpresari eta enpresa kokatuta dagoen komunitateari. Langileak enpresaren jabe direlako eta kooperatibaren jabeak, komunitateko kideak direlako. Eta komunitateko partaide direnez, beraien komunitatearen alde egiteko aukera handiagoa dago, herri eta eskualde konkretuetan sustraituta daudelako.

Ze erronka planteatzen ditu kooperatibentzat ekonomia globalizatuak?

Epe laburreko ikuspegi ekonomikotik, balio erantsi handiagoko sektoreetan lan egitea da erronka nagusietako bat. Modu horretan kostu txikiagoko herrialdeekin lehian jardun beharra gutxituko litzateke eta nazioarteko merkatuan presentzia dibertsifikatua izatea lortuko lukete.

Baina euskal gizarteak eta kooperatibek etorkizunean izango ditugun erronkak hori baino sakonagoak dira. Gaur egungo garapen ereduak, gure bizimodua bera, zor finantzarioan eta zor ekologikoan oinarrituta dago, eta gero eta nabarmenagoak dira eraiki dugun etxearen oinarriak pitzatzen ari direla. Oraindik ere herritar gehienok ia erreguka ari gara BPGaren datuek hobera egingo duten eta ekonomia hazkunde bidean jartzen den, gure hipoteka eta gainontzeko zorren beldurrak apaltzeko. Baina etengabeko hazkunde ameskeria bat da, aurrerantz ihes egitea, krisi sakonagoetan murgiltzea. Bada ordua herritarrek antola gaitzen eta honi buelta ematen hasteko oinarriak jartzen hasi. Gai oso konplexua da, zailtasunak itzelak... baina zerbait egitera behartuta gaude. Eta ez diot pesimismotik. Uste dut aukera ederra daukagula euskal jendartea loalditik esnatu eta beste bizimodu baterako oinarriak eraikitzen hasteko. Guretzako ez bada, hurrengo belaunaldientzako.

ZABALIK

DIEGO MARTIARTU
http://goiena.net/iritzia/



Arantxa

Ez zait ahaztuko. Chicagoko jatetxe italiar batean zerbitzari nabilela ezagutu nuen Arantxa Sanchez Vicario 1990ean. Afaltzera etorri zen amarekin eta lau lagunekin. Hastear zen Virginia Slims tenis txapelketa. Entsalada ekarri nionean trabatu ginen berbetan, mexikarra ez nintzela ohartu zenean. Arantxaren amak, Marisak, berehalaxe sartu zuen bere mutur luzea gure artean. Mutur luzea, haginez bete. Ez zait ahaztuko Arantxak atzera egin behar izan zuela orduan, amak hartaratu. Etsipenez, errukiz begiratu zidan Marisa Vicarioren galdetegi aspergarria jasaten nuen bitartean: ea nondik nora nongoen ni han, munduaren beste puntan, ea aita-amak ez nituen faltan sentitzen... Hasten nintzen zerbait erantzuten eta beste galdera batekin afusilatzen ninduen. Azkenean, lanaren aitzakian *passing shot* bat egin eta hanka egin nion sorginari. Arantxa, berriz, triste-triste.

"Jakindut gurasoek eta nebek 45 milioi garbitu diotela"

Behin jatekoak amaituta, mahaira inguratu nintzen berriro platerak batzera. Isil-isilik, Arantxak tenis partida bi ikusteko lau txartel eman zidan mahai azpitik. Sarrera haiekin Navratilova, Tauziat eta Arantxa bera ikusi nituen, besteak beste.

Galdutuen Arantxak, baina ez zait partida sekula ahaztuko. Larrinoko zelaietan moxalak saltoka ikusten ditudan aldiro, Arantxaz akordatzan naiz, baita atsoak muturra sartu ez balu gure artean gerta zitekeen ere... Arantxa: jostailu hautsia.

Jakin dut gurasoek eta nebek 45 milioi euro *garbitu* diotela eta xemaiko barik utzi dutela koitadua. Lasai Arantxa, 40 urte baino ez daukazu eta oraindik garaiz zaude erraketa esku artean hartzeko. Hara, nire herrian, Arrasaten, tenisaren urrezko belaunaldia loratu da bat-batean, ustekabea: Balzategi, Errasti, Lasaga... denek ere 40 urte beteta, baina hori bai, beti ondo-ondo zainduta eta sekula dopatu barik... Zuk ere ahal duzu, *¡Vamos, Arantxa!*

USTEAK USTE

UBANE MADERA | Kazetaria

Garraio publikoa guztiondako

Autobusean ibiltzea tokatu zait egunotan. Plazentzia-Eibar ibilbidea egin dut. Eta gustura eta harriz geratu naiz. Gustura, Lurraldeusek, linea horretan behintzat, zerbitzu ona ematen duela ikusi nuelako. Eta harriz, autobusak bete-beteta zeudelako, bai joatean eta baita etortzean ere. Ikusten da, beraz, zerbitzu onak erantzun ona jasotzen duela erabiltzaileen aldetik. Horrela, eta garraio publikoaren erabiltzaile potentzial moduan (egunero nabil Arrasate eta Plazentzia artean), bestelako lineatan ere, eta bereziki herri txikietan, halako zerbitzu ona eman dezatela eskatu nahiko nuke. Niri ere egunero autobus publikoan ibiltzea gustatuko litzaidakeelako.

KALE INKESTA

Ze pentsatzen zaizu domeketan dendak zabaltzea?



IBAN ARROABE
ARRASATE

"Oso gaizki. Nahikoa lan egiten dute bestela ere. Eta gainera, diotenez, batez ere merkataritza zentro handiendako da onuragarria."



NATALI LOZANO
OÑATI

"Ez dut beharrezko ikusten. Zabalduko balute, akaso joan ere egingo ginatete, baina dendariendako ez da batere bidezkoa."



DORI BELLO
ARRASATE

"Guztiok dugu atsedenerako eskubidea. Nahikoa egun daude erosketak egiteko, eta ez dago horrelakoetarako beharrik."



XABIER ARIZABALETA
ARRASATE

"Txarto, eurek ere deskantsatzeko eskubidea dute. Zabalik badaude eta zerbait falta badut, joango naiz, baina hobe ez badituzte zabaltzen."

HANDIK ETA HEMENDIK

Zehazki, zenbat uharte daude munduan?

Markos Zapiain
http://eibar.org/blogak/zapiain/

Sarrionandiari lotutako obsesio konpulsibo triste hura nire kabuz sendatzeko asmoz liburu batzuk erosi nituen.

Horieta bat, bikaina bera, "Nortasunaren nahasteen etiologia eta tratamendua", talde lana, Mikel Haranburu, Marian Soroa, Joana Esteve, Nekane Balluerka eta Arantxa Gorostiagak idatzia, Udako Euskal Unibertsitateak argitaratua.

Beste bat, Enrique Rojasen "La ansiedad. Cómo diagnosticar y superar el estrés, las fobias y las obsesiones". Txundigarria da giza gogo.

Adibidez, fobiak: betikoak agertzen dira, iluntasunari, sugeei, xomorroi, jendaurrean hitz egiteari...

Baina bada aski zabaldutako fobia bat, diagnostikatua eta zerrendatua, amaginarrebari.

Amaginarrebari fobia, jainko lastana.

Eta obsesioak ere, ezagunenekin batera, alegia, eskuak egunean berrogeita hamar aldiz garbitu beharra, eta abar, badira batzuk txit harrigarriak.

Bada jendea zeharo obsesionatzen dena honelako galderekin:

"Eta txoriek titia hartuko balute, orduan zer?"

Hau da, txoriak ugaztunak balira, txori amek bularrak balituzte, txorikumeek edoskiko balute, bai desberdina dena, ezta?

Obsesioak badaki hori ez dela gertatzen, oraingoz ezinezkoa dela, baina hala ere ezin eragotzi bere buruari galdera hori egitea egunean laurogei aldiz.

Beste obsesio tipiko xamarra, orobat galdera formakoa: "Zenbat uharte daude zehazki munduan?"

Galdera obsesibo horrek joera konpulsibo batera bultzatzen du: toki guztietan etengabe bilatzera erantzuna, entziklopedietan, google-en...

Baina jakina, ezin fidatu. Zeren... zer da zehazki uharte bat?

Adibidez, zenbat daude euskal kostaldean?

Gatzelugatxe ondoko Akats

ere zenbatu al dute, uhartetzat hartu al dute?

Egunak joan egunak jin, ezin erantzun asebetegarririk aurkitu eta galdera berberari jira-buertaka etengabe.

Dirudunen zein txiroen artean topa ditzakezu obsesiboak, baina aberastasunak bestelako kezka bideak ahalbidetzen ditu.

Azken emaitza, dena den, gogoia txorakeriez bete eta bizitza galtzea da.

Aberats batzuen obsesioa izaten da beraien soinekoa, txamarra, ordularia, bakarria izatea munduan.

Ezin dute eraman berek daramaten alkandora berdina ikustea beste pertsona batek jantzirik.

Halatan, diru piloa xahutzen dute lortzeko jostunak alkandora berezi bat egin diezaien, beraiena bakarrik izango dena mundu osoan.

Araza da ez direla erabat fio.

Eta operan, edo karrikan, jende guztiaren alkandora guztiak aztertzen dituzte, eta antzeko bat ikusten dutelarik sekulako zartakoa pairatzen dute, egunak eta egunak pasatzen dituzte jostunaren traizioari bueltak ematen.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Ubane Madera
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Utalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekarria.

GOIENAN ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

LASA JATETXEA

Zure ezkontza ospatzeko leku paregabea!



Bisita gaitzazu
www.restaurantelasa.es



Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
Tel.: 943 53 32 72
www.erreka jatetxea.eu

Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



GARAIA
JATETXEA

Garaia jatetxea

Garaia Berrikuntza Gunea / Goiru kalea 1 / ARRASATE
Tel.: 943 71 02 28 / 647 83 23 86
ostalaritza@grupogureak.com

Eskaintza

- Self-service bazkari merkeak.
- Urtebetetzeak
- Taldeentzako eta ospakizunentzako bazkari eta afariak.
- 160 pertsonarentzako jangela
- Aparkalekua eta terraza



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
Tel.: 945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Eguenetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua.
- Etxeko sukaldaritza bailarako produktuekin.
- Karta zabala. Menu bereziak.
- Bertako sagardoak.



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35 / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria
Mas Gastronomía 2009.



Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
Tel.: 943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Carlos Arrondo | EAJko zinegotzia Bergaran (1991-95)

- ▶ Agintaldi bakarra egin zuen udaletxean; Mendi eta Auzoen batzordean lan egin zuen bereziki
- ▶ EAJ eta PSE-EE ziren orduan Udal Gobernuan, Victoriano Gallastegi alkate zela
- ▶ San Joxepe erretiratuen elkarteko presidentea izan da Arrondo azken zazpi urteetan

"Mendi eta Auzoen batzordean ibiltzeak herriko txoko denak ezagutzeko aukera eman zidan"

EDU MENDIBIL | BERGARA

Bergarako erretiratuen egoitzan hartu gaitu Carlos Arrondok (Bergara, 1943). Zerrajeran eta Fagorren lanean jardun ondoren, 2003. urtean hartu zuen erretiroa eta azken zazpi urteetan San Joxepe erretiratuen elkarteko presidentea izan da Arrondo. Hasieran uste baino denbora gehiago eman du zuzendaritzan eta hurrengo martxoaren 28ko batzarrean agur esango dio karguari. Udaletxean agintaldi bakarra egin zuen, 1991-etik 1995era, Victoriano Gallastegi alkatezara iritsi zenean hain justu. Lau urtez egon zen udaletxean, eta Mendi eta Auzoen batzordean egin zuen lan batik bat. Sasoi hartatik oroitzen onak ditu, zinegotzi postuak nahiko sakrifkatua dela aitortzen digun arren; "lana eta funtzio publikoa bateratzea ez da erreza askotan".

Nola hasi zinen udaletxean?

Alderdi genbiltzan eta handik etorri zen proposamena udal hauteskundeetako zerrendan joateko. Oker ez banabil zazpi garren nindoan zerrendan eta



Carlos Arrondo erretiratuen egoitzako sarreran. Zazpi urtez elkarteko presidentea izan ostean, kargua utziko du aurki. | E.M.

zazpi ordezkari lortu genituen 1991eko maiatzeko hauteskundeetan. Hurrengo lau urteetarako gobernu osatu genuen PSE-EErekin.

Sasoi hartan udaletxean egin-dako lanetatik, zein nabarmen-duko zenuke?

Udaletxera iritsi eta handik gutxira jarri ziren abian udaletxea berri-

tzeko lanak. *Anbulante* ibiltzea tokatu zitzaigun guri: osoko bilkurak kultura etxean; batzordeak eta bestelakoak Irizarren; bulegoak Aroztegi etxean zeuden orduan, Kutzari alokatuta, eraikina erosi baino lehen... Udaletxeko berritze lanak agintaldi amaieran bukatu ziren.

Niri dagokidanez, Mendi eta Auzoen batzordean ibili nintzen eta herriko auzoak ondo ezagutzeko aukera paregabea izan nuen: auzo alkateekin hartu-emanak, falta ziren mugarrak jarri genituen orduan, auzoetara posta bidaltzeko ahalegin berezia egin zen, mendiko zenbait bide egokitu... Edozelan ere, ahal zena egiten saiatu ginen udaletxean emandako denboran. **Mugarriena ez zen gauza erraza gertatuko, ala?**

Nire aurretik Gregorio Murua-mendiaraz ibilitakoa zen udaletxean; haren eta Eladio Garcia basozain antzuolarraren laguntza ezinbestekoa izan zen, biak ere oso adituak baitziren terreno kontuetan. Askotan ez dago oso argi mugarrak non jarri behar den eta nahiko tira-bira egoten ziren zenbaitetan jabe ezberdinen artean. Mugarrak jartzea erritu berezia da, ez nuena aurretik ezagutzen. Antzinako ohiturari eutsita, teila zati bat jartzen genuen lehenbizi eta haren gainean mugarrak, harrizkoa zein zementuzkoa, eta orientazio jakin batekin. Horrelakoak ikastea ere tokatu zitzaigun, pentsa...

Ez zenuen hurrengo agintaldian jarraitu baina.

Lantegia eta udaletxea bateratzea ez da erraza eta sakrifizioa eskatzen du horrek, eguneroko lanaren ondoren udaletxekoa datorrelako. Zenbaitetan baimen berezia eskatu behar izaten nuen, tarteka bidaia bat edo beste izaten genuelako. Esaterako, Italia eta Israelera; Jaurilaritzaren bitartez Tel-Aviveko Nekazaritzako Makineria feria ikustera joan ginen.

Orain, San Joxepeko zuzendaritza uzteko ordua iritsi zaizu.

Bai, uste baino denbora gehiago egin dut presidente karguan: zazpi urte. Gustura ibili naiz baina ordua da beste norbaitek erreleboa hartzeko, nik Alejandro Arroyori hartu nion moduan. Martxoaren 28an egingo dugu batzar orokorra. Erretiratuen elkarte indartsua daukagu Bergaran, 1.600 bazkide ingururekin, eta beti dago zerbait egiteko hemen... Egunero goizez etortzen naiz egoitzara.



Arrondo eta beste hainbat zinegotzi Elorregiko frontoiaren inaugurazioan.

"Besteak beste, fata ziren mugarrak jarri genituen orduan"

"Udaletxea berritzeko lanak egin ziren gure agintaldian zehar"

MIKEL BIAIN

GOIENA TELEBISTA | HARIRA | OÑATIKO ALKATEAREKIN ELKARRIZKETA

OTSAILAK 28, 21:33 | OTSAILAK 29, 13:15 | ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA



HERRIAK

ARETXABALETA

Hirigintza-inpaktua arintzeko boluntario sarea sortu dute

- ▶ Ingurumenarekin sentsibilizatuta daudenek batu eta ekintzak antolatzeko asmoa dute
- ▶ Dagoeneko hiru bider irten dira zuhaitzak landatzera, eta hazitegia martxan dute

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Aretxabaletar talde bat boluntario sarea osatzekotan dabil, ingurumen arloari dagokionez, udalerrian hainbat hobekuntza egiteko. Dagoeneko hasi dira lan egiten: Udalari, herriko lorategien ardura duen Makaiko enpresari eta herriko hainbat elkarteri asmoa azaltzearekin batera, 170 zuhaitz inguru landatu dituzte udalerrian sakabanatuta dauden lorategi eta zelaietan. Irteera horietan adin askotariko 15 bat lagun batu dira.

Horien artean Martxi Perez dago. Ideia nondik datorren azaldu digu: banaka batzuk noizean behin zuhaitzak lantzen ibiltzen zirela ikusi, eta "indarrak batzea" erabaki zuten. Herria bera industrialde inguratuta dagoela eta erdigunean ere etxebizitzek industrialdeko lantegiarekin bat egiten dutela aipatzearekin batera, gaineratu du azken 25 urteotan bereziki eraiki den etxebizitza, auzo edo industrialde berrien kopurua nabarmen hazi dela, eta, hori gutxi balitz, orain AP-1 autobidea gehitu zaiola.

Haren esanetan, "ukaezina" da herriaren fisionomian ez ezik eremuan ere eragina izan duela. Horren harira, azaldu du hazkunderen horrek zenbait arlotan onurak ekarri baditu ere, ezin dela ukatu hirigintzan eta paisaian izan duen inpaktua "izugarria" izan dela eta izaten ari dela.

Bada, hori txikitu aldera Udala osatu duten korporazio ezberdinek neurri zuzentzaileak hartu



Kanpoaldeko lorategietan landatu dituzte orain arte zuhaitzak. | AMAIA ANTERO

badituzte ere, erabilitako irizpideak eta hartutako neurri horiei egingo jarraipena askotarikoa izan dela dio. Esaterako, erdigunean neurri gehiago hartu direla eta jarraipena zorrotzagoa izan dela esan du, herriko auzoekin edo beste hainbat eremurekin konparatuta.

Proposamena Udalari

Esan bezala, dagoeneko lanean jarri dira. Udalari, esaterako, txostentxo bidali diote honako proposamenekin: paisaian dituzten irizpideak partekatzea; gaiarekin sentsibilizaturik dagoen boluntario sarea sortzea eta ekintzak garatzeko egutegia adostea; hirigintza-inpaktua arintzeko eta paisaia hobetzeko neurriak modu

xumean zehaztea; eta autoeraketaren printzipioetan oinarritutako dinamikak bultzatzea.

Batzarrak ere egin dituzte, eta alde biek elkarlanean lan egiteko dagoen jarrera nabarmendu dute. Perezek honakoa dio: "Pozik gaudu. Basabe industrialdean hazitegia egiteko lur zatia lagatzeaz gain, lokala ere utzi digu. Horretaz gainera, lanerako tresnak erosi dituzte eta 4 x 4 ibilgailua ere uzten digu behar dugunean".

Udala ere pozik dago proiektuarekin. Ingurumen zinegotzi Lore Martinezek dio "eskertzekoa" dela herritarrengandik parte hartzeko ekimenak jasotzea, eta gaineratu du Udalaren eta boluntario sarearen batuketak ingurumena-



Umeek ere gogor egin dute lan antolatu diren ekintzetan. | AMAIA ANTERO

rekiko sentsibilizazio handiagoren emaitza dakarrela, eta horrek zainketa eta errespetua...

Martinezek honakoa gehitu nahi izan du: "Aurrera begira plangintza jakin bat egin nahi dugu. Alde batetik, Udalak egiten dituen ekintzetan parte hartzeko, eta, bestalde, ekintza berriak elkarrekin antolatzeko. Esaterako, Zuhaitzen Eguna, jaioberri bakoitzeko zuhaitz bat landatzea, erreka garbiketa... zehaztu ahala joango gara herritarrei informatzeko. Eta aprobetxatu nahi nuke esateko norbaitek interesa badu, anima dadila, ongietorria izango da-eta".

Aurten hainbat ekintza egin dituzte. Basabeko hazitegia martxan jartzearekin batera, hiru asteburutan landaketak egin dituzte herriko kanpoaldeko lorategietan eta AP-1 autobideko magaletan; bereziki, Atxustegiko bidean. Bereziki, urkiak, haritzak, pagoak, lizarrak,

gorostiak, erramuak eta elorriak landatu dituzte; hain justu, bertako espeziak. Horrez gainera, kanposantu ondoko bertako baso bateko haritzak eta pagoak ere atera dituzte, eta herriko beste hainbat eremutan landatu, han ez direlako behar bezala hazten.

Hitzordua zapaturako

Asteburu honetarako azken hitzordua egin dute. "Deialdia egin nahi diegu aretxabaletarrei zapatuan, 09:30ean, futbol zelaiko sarreran ager daitezen; autobideko magalera eta Mendiolarako bidera joateko asmoa dugu", dio Perezek. Dagoeneko zuhaitzak "mugitzen" hasi direla eta landaketak egiteko saioa amaitzeaz dagoela gogorazti du. Horren harira, aipatu du irailean ekintzak antolatzen jarraitzeko asmoa dutela; esaterako, auzolanean Deba ibaia eta Urkulu garbitzea. Eskola eta ikastolara ere zabaldu nahi dute.



Martxi Perez, Alex Seirerl eta Josu Sarasua, Basabe baserri ondoan duten hazitegian. | MIRIAN BITERI

ESANAK

"Basaben hazitegia egiteko lur zatiaz gain, lokala ere utzi digu Udalak, eta lanerako tresnak erosi dituzte"

"Autobideko magalera eta Mendiolarako bidera joateko asmoa dugu zapatuan egingo dugun irteeran"

MARTXI PEREZ | BOLUNTARIO SAREKO KIDEA



Aretxabaletako Arizmendiko ikasleak txanponak uzten. | M.A.



Arrasateko Arizmendiko ordezkariak txanponak batzen. | A.B.



Eskoriatzako plazan pankarta erraldoia ipini zuten egubakoitz arratsaldean. | ARRITXU BARRUSO

ARRASATE, ARETXABALETA ETA ESKORIATZA

Arizmendiko lagunak oso pozik eta Ibaialdekoak zeharo indarberrituta

Lodosako Ikastolaren aldeko jaialdia egin zuten barikuan Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzan

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE
Ikastola hemen bai. Lodosan zergatik ez? leloaren bueltan, egubakoitzean, Lodosako Ibaialde Ikastolaren aldeko egun osoko jaialdia antolatu zuen Arizmendi Ikastolak. Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasateko ikastetxeek egin zuten bat deialdiarekin, eta festa giroan, Lodosako lagunei laguntzeaz gain, Nafarroako ikastolek bizi duten egoera salatu nahi izan zuten:

"Nafarroako ikastolen egoera hil ala bizikoa da. Familia asko daude ikastolen aldeko hautua egiteko prest, baina Foru Gobernuak ikastolei inposatutako finantzaketa-ereduak eta Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak orain arte egin dituzten ekarpenak bertan behera uzteak, Nafarroan ikastolak desagertzeko bidean jartzen ditu", adierazi zuten Arizmendiko kideek.

'SOS Lodosako ikastola'

Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko plazetan irudi berdina ikus zitekeen egubakoitz arratsaldean: *SOS Lodosako Ikastola* zioten pankarta erraldoiak lurrean. Izan ere, ikasleek desfilea eginez, pankartako hizkiak txanponekin bete zituzten.

Dirua batzeaz gain, denetari-ko jolasak eta ekintzak egin zituzten hiru herrietan.

"Hau da ikastolaren izpiritua"

Arizmendi Ikastolako ordezkariak oso pozik daude egubakoitzean lortutakoarekin, "egun borobila" izan zela adierazi zuten: "Oraindik kopuru zehatza ez dugun arren, Lodosako alde diru mordoxka bildu da. Diru-bilketa baino garrantzitsuagoa den zerbait lortu dugu hiru herrietan: Arizmendi Ikastolako ikasle, irakasle, langile zein gurasoak ilusio

handiz elkarlanean jartzea. Gainera, atzoko hiru ekitaldiak antolatzeke herrietako eragileekin batera indarrak metatu dira. Hori gutxi balitz deialdi honi erantzunez hiru herritako plazak herritarrez beteta egon ziren. Hau da ikastolaren bere-berezko izaeta eta izpiritua", adierazi zuen Arizmendiko Amaia Anterok.

Ibaialdeko kideak ere oso pozik itzuli ziren etxera. Bertako lehendakari Ana Mendizabalek azaldu zuen hunkituta itzultzen zirel, eta ikastolen alde lanean jarraitzeko indarberrituta gainera: "Lortutako dirua garrantzitsua izango da, baina are garrantzitsuagoa da gaurko egunak eman digun indarra. Gure egunerokoa konplikatua da baina honek borrokan jarraitzeko indarra ematen digu".



ALBA ETA GOIZANE
IKASLEAK

"Lodosako Ikastolako neska-mutikoei laguntza behar dute eta guk ere utzi dugu gure txanpona. Oso gustura gabilta, egun osoko festa izaten ari da eta asko gustatu zaigu; dantzan egin dugu eta baita kantuan ere".



ANA MENDIZABAL
IBAIALDEKO LEHENDAKARIA

"Aho zabalik gaude. Arizmendi Ikastolak hemen egiten duen lana ikusita indarberrituta itzultzen gara Lodosara. Gure proiektuaren alde borrokan jarraitzeko gogoa piztu du honek, egunerokoa zaila bada ere".



UNAI BERGARETXE
GURASOA

"Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak ukatzen ari da eta ikastolei oztopoak ipintzen. Guk hemendik aukerak baditugu lagundu egin behar diegula uste dut, lehen ere hala izaten zen. Horrelako gehiago egin beharko dira seguruenik".

IÑIGO TELLERIA | IBAIALDE IKASTOLAKO ZUZENDARIA

"Arizmendik egin duena ikusgarria da"

Ibaialde Ikastolako zuzendari Iñigo Telleriarekin izan ginen Eskoriatzan egubakoitz arratsaldean.

Zer sentitzen da horrelako babesa jasota?
Oso hunkituta gaude. Bagenekien hiru herrietan gure aldeko ekintzak izango zirela, baina Arizmendi Ikastolak antolatu duena ikusgarria izaten ari da. Aho zabalik gaude.



Iñigo Telleria. | A.B.

Zein da Lodosako Ikastolaren egoera gaur egun?

Egoera larrian gaude. Gune ez baskofono deiturikoan gaude, beraz ez dugu diru-laguntzarik jasotzen euskaraz ikasi ahal

izateko. Dirua lortzeko benetako zailtasunak ditugu. Gure umeak harrিতa gelditu dira Arizmendi Ikastolan dituzten gela eta instalakuntzak ikusi dituztenean.

LEINTZ-GATZAGA

65 zuhaixka landatu zituzten zapatuan Gatzagako txikitxoek

Gurel elkarteak antolatuta Zuhaitz Eguna ospatu zuten Leintz-Gatzagan

ARRITXU BARRUSO | LEINTZ-GATZAGA
Gatzagako neska-mutiko eta gurasoek 10:30ean hitzordu garrantzitsua zuten zapatuan herriko plazan. Lan polita zeukaten egiteko: herriko gune desberdinetan zuhaixkak landatzea. Aurten ere Gurel gurasoen elkarteak Zuhaitz Eguna ospatu du, eta deialdiak erantzun polita izan zuen; 30 lagun inguru elkartu ziren.

Azken urteetan herri inguruko basoetan landatu izan dituzte zuhaitzak, baina aurten herriko hainbat gune txikundu behar zirela-eta, landaketak herrian bertan egitea erabaki zuten: "Zuhaitz Eguna Gurelek antolatzen duen arren, Udalak ematen dizkigu zuhaitzak. Aurten zuhaixkak izango dira landatuko ditugunak. Portaletxen batzuk eta

eliza ondoan beste batzuk", azaldu zigun Gurel elkarteko ordezkari Imanol Saez de Biterik. Eta, hain justu, haren argibideak jarraituz gustura ibili ziren Gatzagako neska-mutikoak eskuak lurrez zikindu eta aitzur eta pala artean.

Goizeko lanaren ostean indarrak berreskuratzeko bazkaria egin zuten elkartearen.



UXIA ETA NOA

"Asko gustatzen zaigu Zuhaitz Eguna. Aurten gainera, herri guztian zehar ibiliko gara zuhaixkak landatzen eta hori da gehien gustatzen zaiguna. Zuloa lurrez bete eta zuhaixka landatzea da politena. Goizeko lanaren ostean denok elkarrekin bazkaltzera joango gara; badaukagu gogoa".



LARRAITZ ETA UDANE

Larraitz eta Udane sei urte dituzte eta gustura topatu genituen zapatuan eskuak lurrez zikinduta. Bi zuhaitz landatuta zituzten dagoeneko, baina lanean jarraitzeko asmoa zuten: "Asko gustatzen zaigu Zuhaitz Eguna, zuhaitzak landatzea polita iruditzen zaigu. Hurrengoan ere etorriko gara".



Guraso eta neska-mutiko taldea zuhaixka landatzen Portaletxen. | ARRITXU BARRUSO



IMANOL SAEZ DE BITERI

"Egun polita izaten ari da gaurkoa. Zuhaixkak dira landatuko ditugun guztiak. Gaur 65 zuhaixka landatuko ditugu, baina denera 100 dira, beraz gelditzen direnak beste egun baten landatu beharko ditugu. Lan egin ostean bazkaria gozatu daukagu zain, arroza eta izozkiak ditugu, besteak beste".



DORLETA ELKOROBARRUTIA

"Urteroko hitzordua izaten da eta egia esan neska-mutikoek oso gustura etortzen dira. Gaur Zuhaitz Eguna ospatu dugu, baina urtean zehar beste bi landatze ere egiten ditugu: udaberriko landareena eta udazkenekoena. Umeak naturarekin harremanetan hezte da gure helburua, eta baita gure kultura erakustea ere".

ARRASATE

Dantzan eta kantuan ibili dira asteburuan Al-Andalus elkartearen

A.B. | ARRASATE
Andaluzia Eguna ospatzeko aste osoko egitaraua antolatu du Arrasateko Al-Andalus elkarteak. Zapatuan egun handia izan zuten, eta dantza eta kanturik ez zen falta izan andaluziarren elkartearen horrelakoetan ohiko duten moduan.

Lourdes Oncalaren Sevillana eskolako ikasleek ireki zuten egitaraua eguerdian, eta ondoren *Sueños de Andalucía* dantza taldeak emanaldia eskaini zuen. Al-Andalus elkartearen goraino bete zen bi emanaldiok ikusteko, eta sekulako giroa sortu zen: mahai guztiak beteta, jendea txalo batean,

eta dantzan bat baino gehiago. Egun luzea zuten aurretik, baina hasiera-hasieratik indartsu hasi ziren andaluziarrak.

Gauean afora dotorea izan zuten, eta afaldu aurretik eta ondoren Andaluziatik propio etorritako Besana taldeak sevillanar, rumbak eta pasodobleak eskaini zituen.

Domekan ere festa giroa izan zen Al-Andalusen. Goizean elkarteko batzar nagusia egin ostean, eguerdian *Alegria de la Sierra* taldearen emanaldia izan zuten. Bihar, martitzena, eguenean eta zapatuan ere ospakizunetan jarraituko dute.



'Sueños de Andalucía' taldearen emanaldia. | JULIO CALLEJA

ARRASATE ETA BERGARA

Eskaintza oso interesgarriak asteburuan Arrasate eta Bergaran

Bedelkar eta Ibai Arteko dendariak kalera atera zituzten beraien produktuak

A.B. | ARRASATE
"Ona, polita eta merkea". Berba horiekin deskribatu zuten Arrasateko merkealdien azoka, Merkemerkaua. Ibai Arteko dendariak eskaintza benetan interesgarriak atera zituzten kalera zapatuan; %70 eta %80ko deskontuak ere aurki zitezkeen. Udalaitez denda Sergio Hernandok kontatu zigun pozik zeudela salmentak iazko antzekoak izaten ari zirelako, baina Uarkapeko giroa faltan igarri zuen: "Guztiok toki berean egoteak giro hobe sortzen du, orain pixka bat sakabanatuta gaude eta toki batzuetan, esaterako, ez dago musikarik. Dena dela, pozik gaude, salmenta ona egiten ari garelako". Herriko kaleak giroaren batukada taldea eta Erraldoi eta Kilikien konpartsa ibili ziren.

Bergaran ere mauka onak
Bedelkarreko dendariak ere kalera atera zituzten neguko denboraldiko produktuak eta zapatu eguerdian, esaterako, jende dezentet ibili zen.



Arrasateko erraldoiek herriko kaleak girotu zituzten. | UBANE MADERA



Bergarako Irala kaleko postuan bezeroak mauka bila. | JULIO CALLEJA

Arrasateko historia zati handi bat, Udal Artxiboan

- ▶ Altxorren artean, narruzko dokumentu "polit eta bitxiak" daude
- ▶ 6.000 argazki pasako fototekak Arrasate zelan aldatu den erakusten du

UBANE MADERA | ARRASATE

Jakinekora da herri guztietan, edo gehienetan behintzat, artxiboa egoten dela; udaletxean egon ere, normalean.

Arrasaten ere hala da. 2004an, adibidez, albiste izan zen, uholdeak gertatu eta bertako dokumentazio asko kaltetu egin zelako.

Baina, normalean, artxiboa ez da albiste izaten, eta herritar askok ezagutu ere ez dute egiten. Eta, egia esan, datu kurioso eta interesgarriak daude Udal Artxiboaren atzean.

Herri Gutuna, zaharrena

Esaterako, zer gordetzen da artxiboan? "Udalak bere jardueran sortu edo jasotako dokumentu guztiak daude gordeta. XX. mendea da abiapuntua. Hortik aurrera, dokumentuak, kontuak... gorde egiten dira. Lehenagokoak ere badira, baina ez daude orain eza gutzen ditugun moduko espedienteak: eskriturak daude, batzar orokorretako aktak, Udaleko aktak, kontuak... Dokumentu zaharrena 1260koa da: Herri Gutuna (Arrasateren sorrera ezartzen duen dokumentua). Eta dokumentu berriena, berriz, 2001ekoa da", esan digu Marijo Axpek, Udal Artxiboko arduradunak.

Kopuruak ere aipatzekoak dira: "Artxibo historikoa kenduta, 4.600 kaxa eta 900 liburu ditugu".


Izan ere, eta hori ere deigarria da, dokumentazio oso-oso paperean gordetzen dute Udal Artxiboan; kaxetan, hain justu. Arrazoiak?: "Nik uste dut digitalizazioak oraindik ez duela balio legalik. Eduki daiteke euskarri digitala, baina ezin da papera eliminatu. Bagabilta hainbat dokumentu zahar digitalizatu eta datu baseetan sartzen, dokumentua bera gordetzeko eta kontsultak errazteko".

Gerra aurrekoa eta ostekoa

Dokumentazio motari dagokionez, berriz, Espainiako gerrak zatikatzen du hori. "Dokumentazioa desberdina da Udalaren gaitasunak desberdintzen diren neurrian. Hasieran, Serapio Muxikak ezarritako sistema erabiltzen zen; gaur egun, Madrilgo artxibozain talde batek egindako taula erabiltzen da artxibatzeke. Gerran egon zen dokumentazio mozketak, asko galdu egin zen. Eta tarte hori erabili dugu taula bat edo bestea erabiltzeko. Beraz, gerra aurretik dokumentazio jakin bat dago, eta gero beste bat. Horrek ez du esan nahi, adibidez, Udaleko akta, kontuek... jarraipenik ez dutenik. Baina dokumentazio jakin bat epe batean edo



Marijo Axpe, artxiboan; asko jota, 20 graduan eta %60ra arteko hezetasunarekin gordetzen dira dokumentuak. | U.M.



Narruzko pergaminu bat, pribilegio bat. | U.M.



Hidalgiak, liburuan batuta. | U.M.

bestean sortzen da. Adibidez, hidalgiak, bertan jaiotakoa zarela eta judu edo mairuekin zerikusirik ez duzula frogatzen dutenak... XIX. mendea baino lehenagokoak dira horiek, foruak galtzeaz bat desagertu egin ziren-eta".

Historikoa/administratiboa

Bestalde, badaude dokumentu asko historiko moduan artxibatuta: "60 urte baino gehiago duenean, historikoa da. Denetik dago: hidalgiak, XIII. mendeko dokumentuak... Artxibo historikoa edozeinek kon-

tsulta dezake. Administratiboari dagokionez, berriz, parte interesatua direnek bakarrik kontsulta dezakete; datuak babesteko legeak galarazi egiten du kontsulta librea", esplikatzen du arduradunak.

Altxorrak

Jakina, artxibo guztietan moduan, altxorrek ere badaude Arrasatekoan, giltzapean gordeta. "Pergaminuak. Narruan idatzitako dokumentuak dira; Herri Gutuna, adibidez. Oso bilduma garrantzitsua dugu uholdeen ostean berri-

tuta. Oso egoera onean daude, eta oso dokumentu polit eta bitxiak dira", esan digu Marijo Axpek.

Argazkiak: fototeka

Eta ezin falta argazkien artxiboa: "Paisajes Españoles-ek egindako erreportajeak, Zerrajerako fondoko batzuk, ASA taldearen bilduma... gehienak dira urbanistikoak. 6.000 baino gehiago daude. Zaharrenak dira Indalezio Ojanguerenenak, 40ko hamarkadakoak. Hortik dugu saltoa, 1960tik aurrera", adierazi digu Axpek.



MARIJO AXPE
ARTXIBOKO ARDURADUNA

"Artxiboa lekuz aldatu arren, kontsultak hemen egin behar dira"

Udal Artxiboaren zati bat Markuletera eramateko asmoa dute, baina artxiboko zerbitzua orain dagoen lekuan, udaletxeko beheko solairuan segituko du. **Zer eraman behar duzue Markuletera?**

Dokumentu administratiboak, eta, horien artean, gutxienez erabiltzen direnak. Udaletxean geratuko dira dokumentazioaren azken 15 urteak eta artxibo historikoa. Gainerakoa eramango da Markuletera.

Zelakoa da?

Batez ere, Udalak eguneroko jardueran sortutako dokumentuak. Aktak-eta, adibidez, hemen mantenduko dira, baina obretako, kulturako espedienteak... hara eramango dira.

Pabiloi berria eraikiko da Markuleten horretarako?

Ez. Udalak hiru pabiloi industrial ditu, eta asmoa da bat erabiltzea biltegi moduan, egokituta, temperatura, hezetasun... aldetik. Planteatzen ari dira artxibo automatikoa egitea, Ulmak Jaurilaritzan jarri zuenaren modukoa: alturako almagazte egiten da, pabiloiak daukan altuera aprobetxatuta, eta gero sistemak berak automatikoki aurkitzen du behar den kutxa edo espedienteak.

Proiektua eginda dago?

Bileretan gabilta, baina, oraingoz, ez dago ezer. Aurrekontuetan kopuru bat onartuta dago (300.000 euro) proiektua aurrera eramateko, eta behar-beharrezkoa da egitea. Pentsatzen dut agintaldi honetan gauzatzeko moduan izango dela. Dena den, proiektua idazteke dago.

Behin hara eramanda, kontsultak non egin behar dituzte herritarrek?

Orain arte moduan: BAZera joanda edo hona etorrita; instantzia bete, dokumentua eskatu eta kontsulta egiteko hona etorri beharko da; hau da, Markuleteko joan-etorria guk egingo dugu.

Batez ere, zer kontsultatzen da Udal Artxiboan?

Genealogia oso modan dago. Arkitektura ikasleek ikasketak bukatu ondoren proiektuan erabiltzeko... Edo kontu administratiboetarako.

DATUA

4.600

KAXA

Udal Artxiboko dokumentuak kaxetan gordetzen dituzte. 4.600 halako dituzte, eta 900 liburu. Guztiak ere, 1940-2001 urte bitartekoak.

60

URTE

60 urte baino gehiago dituen dokumentazioa historikoa dela kontsideratzen dute. Dokumentazio mota hori kontsultatzea librea da.

6.000

ARGAZKI

Fototeka ere badu artxiboak, 6.000 argazki pasarekin. Asmoa da etorkizunean herritarren argazki zaharrak ere batu eta artxibatzea.

Udal langileen soldatak %2,98 igoko dira aurten

Beste udal askotan ez bezala, Arrasatekoan kontuak "nahiko saneatuta" daudelako da posible igoera hori

UBANE MADERA | ARRASATE

Azken urteotako murrizketen ostean, aurten Udal langileek %2,98ko igoera izango dute euren soldatetan, KPIren besteko igoera, hain justu. "Zorionez, aurreko gobernuak egindako lan bikainen ondorioz, kontuak nahiko saneatuta dauzkagu gure Udalean. Badaude beste udal batzuek igoerarik ezin dituztela inolaz ere aurreikusitako, kontuak ez daudelako batere ondo. Zailtasunak ditugu, noski baietz, baina prudentzia handiarekin jokatu izan da, eta Udalaren egoera ona dela esan daiteke", adierazi du Maider Morras zinegotziak, Pertsonal Saileko arduradunak.

Edozelan ere, Morrarak azpimarratu gura izan du Udal aurrekontuan KPIren igoera hori aurreikusita dagoen arren, oraindik begira dabilzala zela aplikatu behar duten.

Aurrekontuko zatirik handiena Udaleko kontu orokorretan sartuta eta Arrasate Irratian emandako xehetasunen arabera, Arrasateko Udaleko aurrekontuaren zatirik handiena Pertsonal Sailak gastatzen du: %31. Kopurutan begiratuta, 9.678.000 euro erabi-

liko ditu Pertsonal Sailak, gehiena pertsonal gastuetarako.

200 funtzionario pasa

Langile kopuruari dagokionez, berriz, Arrasateko Udalak 251 behargin ditu. Horietatik 180

finkoak dira eta aldi baterakoak, berriz, 71. Beste datu bat: guztien artean, 205 langilek dute funtzionario izaera, eta datozen urteotan, gainera, kopuru hori ez da aldatuko, Espainiako gobernuak ezarritako murrizketen ondorioz: "Murrizketa itzela dator Espainiako gobernutik, ezin da lanpostu finkorik sortu. Aldi baterako lanpostuak sortzeko, berriz, oso ondo oinarrituta egon behar dira, eta erantzun behar die oinarritzko beharrei. Enplegua sortzeko arazo handiak izango ditugu, beraz, nahiz eta guk ahal eta behar izan".

Zerbitzu ona

Hala eta guztiz ere, Maider Morrarak nabarmendu gura izan du Arrasateko Udaleko lan-taldea "nahiko egonkortuta" dagoela, gehienak funtzionarioak direla, eta oro har, "poliki-poliki beharrezkoak ikusten dituzten lanpostuak egonkortzen eta funtzionario bihurtzen" saiaturiko direla. Eta gaineratu du, orokorrean begiratuta, Udaleko Pertsonal Saila "oso ondo antolatuta" dagoela eta "lanpostu nahikoa" bada-goela herritarrei zerbitzu ona emateko.

DATUAK

9

MILIOI EURO PASA

Udal aurrekontuaren zatirik handiena Pertsonal Sailak eramaten du: %31, edo kopurutan begiratuta, 9.678.000 euro.

251

LANGILE

Arrasateko Udalean 251 pertsonak lan egiten du; horietatik 180 finkoak dira eta 71, berriz, aldi baterako langileak.

Gaixotasun larriak dituzten presoan alde, kandela erraldoi eta guzti

U.M. | ARRASATE

Otsaileko azkeneko egubakoitza izanda, euskal presoan aldeko agerraldia egin zuten Herriko plazan. Oraingo honetan, gaixotasun larriak dituzten presoan askatasuna eskatu zuen herritar talde batek. Senideen ikurra den kandelarekin eskultura erraldoia egin, eta haren bueltan egin zuten agerraldia egubakoitz iluntzean.

Herrira ekimenaren batzarra

Bestalde, iragarri dute oraingo asteko zapatuan Herrira Mugimenduaren batzar irekia egingo dutela Kulturaten (11:00etan, areto nagusian). "Mugimendua nondik norakoak azaldu eta herritarren ekarpenak jasotzea" da helburua.

Amaieran, berriz, 13:00ak inguruan aurkezpen ekitaldia egingo dute, plazan.



Egubakoitzeko agerraldia, Herriko plazan. | JULIO CALLEJA

Moziok protagonista izango dira biharko osoko bilkuran: bost halako aurkeztu dituzte

Jaioberrien lapurretak sozialisten eskutik; zaborra batzeko atez ateko sistema, jeltzaleen eskutik; sektore publikoaren erreforma Bildu, PSE-EE eta Aralarren eskutik; Garoñako zentral nuklearra Bilduren eskutik eta herri sahararra Agurne Juldainen eskutik. Gaiok izango dira protagonista biharko osoko bilkura ezohikoan (18:00). Mozi bitartez aztertuko dituzte. Eta bestelakoen artean, zerga kontuak ere landuko dituzte, 2012rako Ondasun Higiezinaren gaineko zerga-tasa egokitzeko proposamena aztertuko dute-eta.



Angulak eta bisiguak, bazkalduta

Egubakoitzean eskuratu eta domekan bapo bazkaldu. Horixe egin zuten Mertxe Aranak eta Andoni Ruiz de Azuak AGT-Arrasate Pilota Taldearen eskutik irabazitako angulekin eta bisiguekin, hurrenez hurren. Familian bata eta koadrilan besteak gozatu zituzten, beraz, Eguren arraindegiko gutziak.



Azoka biziberritzeko interes handia

Arrasateko elkarte eta eragile sozialen ordezkaritza esanguratsua batu zen zapatuan Kulturaten, azoka biziberritzeko saio irekian: 60 bat lagun, helduak eta gizonak gehienak, atzerritar batzuk tarteko. Batzuk aipatzearen Txatxilipurdi, Arizmendi Ikastola, Ekin, Zero Zabor, Arrasateko Udala, artisauak, nekazariak... Orain lan-taldea sortu eta udara arte lanean jardungo dute.

Mariaren Lagundiko eraikinaren eraiste lanak geratu behar izan dituzte

Zabalotegi 14ko etxeekin arazoak sortu dira; bizilagunak eta enpresa eraikitzailea aste honetan biltzekoak dira arazoari irtenbidea emateko

EDU MENDIBIL | BERGARA

Mariaren Lagundiko eraikin berriaren botatze lanetan arazoak sortu dira eraikinaren ondoko Zabalotegiko 14. zenbakiko etxeekin eta, hori dela eta, eraiste lanak gelditu egin behar izan dituzte puntu horretan. Zabalotegiko 14. zenbakiko etxeek eta Mariaren Lagundiko eraikinak bat egiten duten tokian etorri dira ustekabeko arazo horiek eta lanak gertatzeko erabakia hartu dute arduradunek. Enpresa eraikitzailea eta Zabalotegiko bizilagunak aste honetan biltzekoak dira arazoari irtenbidea emateko.

Gabonen aurretik

Erregetxo plaza aurreko eraikina botatzeko lanak Gabonen atarian, abenduaren 19an, jarri zituzten abian eta hasiera uste baino gehiago luzatu dira, Gabonen osterako amaituta izatea aurreikusten zuten-eta. Lanok ikusmin handia piztu dute herritarren artean, baina, esan bezala, ezin izan dituzte oraindik lanak *errematatu*. Zabalotegiko 14. zenbakiko eta Bidekurutzeta 31ko etxeak Mariaren Lagundiko eraikinaren ondoan egotean, segurtasun neurri bereziak jarraitu behar izan dituzte.

Javier Korta arkitektoa izan da eraiste lanen zuzendaria eta Demoliciones Ryde enpresako dozena bat langilek jardun dute



Mariaren Lagundiko eraiste lanak uste baino gehiago luzatu dira. Abenduaren 19an hasi ziren lanak. | JULIO CALLEJA

lanean azken asteotan. Honderatzeko hiru makinarekin eta garabi handi batekin ibili dira zenbait egunetan, eta, esandako moduan, interes biziarekin jarraitu dituzte herritarrek eraikinaren eraiste lanak. Eraiste lanak ezin jarraitu, eta nagusiki lurzorua

garbiketa eta txukuntze lanak egin zituzten aurreko astean.

63 etxebizitza

Botatuko eraikinaren tokian 63 etxebizitza egitea aurreikusten dute. Ortuibarrek eta Jabier Arregiren Lotzen enpresak egingo

dituzte etxebizitzok eta uda aldera lanekin hasteko asmoa zeukaten. Proiektuaren arabera, 12 etxebizitza babes ofizialekoak izango dira; 13 tasatuak; eta 38 libreak. Mariaren Lagundiko eraikina 1960ko hamarkadaren hasierakoa zen.

OHARRAK

IPINTZAKO IKASLEEN ZOZKETA

DBHko 4. mailako ikasleek saskiak zozketatu zituzten Aratuste-martitzenean, hilaren 18an. Ikas-bidaiaaren aldeko zozketan honako hauek izan dira saritutako zenbakiak: 34, 835, 938, 186, 946 eta 872. Saritutako txartelen jabeek Ipintza institutura jo dezakete. Saria jasotzeko azken eguna martxoaren 1a izango da.

ERRAMU-ZAPATUKO TXOSNEN ESKAERAK

Erramu-zapatuan Seminarioko patioan jarriko den taloen txosnaren eta Munibe plazan jarriko denaren (Eusko Labeleko baserriko oilaskoa salduko dute han) esplotazioa arautuko duten baldintzak onartu ditu Udalak. Interesa duten entitate edo elkarteek martxoaren 16ra arte aurkez ditzakete eskaerak. Eskaera orriak eta baldintzen plegua udaletxeko idazkaritzan eta www.bergara.net webgunean daude eskuragarri.

PAZKOETAKO BILERA IREKIA BIHAR

Mendekoste jaiak eta herri giroa, oro har, indartzea helburu duen taldea eratu nahi dute Bergaran. Bihar, martitzena, bilera irekia izango da Barrenkaleko Irizar jauregian, 19:30ean hasita.

HAURDUNENDAKO GIMNASIA ESKOLAK

Sane fisioterapia zentroaren eskutik haurdunendako gimnasia eskolak emango dituzte martxoaren 2tik aurrera, egubakoitzero, 12:00etatik 13:15era, Agorrosingo igerileku txikian. Erditze unera fisikoki primeran heltzea da ikastaroaren helburua. Izen-ematea eta argibideak Sane fisioterapia zentroan: 943 25 24 40.

'BERBAZ KONPONDU': NERABEEN GURASOENTZAT

Berbaz konpondu izenburuko ikastaroa antolatu du Udaleko Prebentzio Zerbitzuak. 12 eta 18 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta dago eta talde mugatu izango da (15 lagun gehienez). Eskolak martxoaren 5etik 21era bitartean astelehenetan eta eguaztenetan izango dira, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara. Erain zentroan, Gazteen Osasun Integralean lanean diharduten profesionalak emango dute ikastaroa. Izen-ematea 943 77 91 26 telefonoan edo aloidi@bergara.net helbidean egin daiteke, otsailaren 29ra arte.

ZIKLOTURISTEN LEHEN IRTEERA DOMEKAN

Ohi bezala, Dorletara egingo dute denboraldiko lehen irteera zikloturistek domekan, 09:00etan, San Martin plazatik aterata.

'Bergara ezagutzen' lehiaketa

Bergara ezagutzen lehiaketa jokatu zuten Aranzadi, Ipintza eta Mariaren Lagundiko DBHko 4. mailako ikasleek egunean eta egubakoitzean. Ikasleek herriaren gaineko galdera-erantzunak eta ikus-entzunezko proba izan zituzten, eta kaleko jinkana ere bai. Sei talde izan ziren lehian, giro ezin hobean. Irabazleak Valdezcarayra eskiatzera joango dira martxoaren 10ean.





Urtetan aisialdigune moduan itxita egon ondoren, udan zabaldu zuten Arrizuriaga herritarrendako. | GOIENA

Mantentze-lanak egingo ditu Bergarako Udalak Arrizuriagan

Apurtzeko arriskuan dauden hamar zuhaitz kenduko dituzte Arrizuriagan; horrekin batera, pixkanaka ordezkatuko dituzte kendutako zuhaitzak

E.M. | BERGARA

Datozen asteotan, hamar zuhaitz kenduko dituzte Arrizuriagan, apurtzeko arriskuan eta ahul daudelako; adaburuetako abar lehorrak kendu eta huntzak erretiratu dituzte. Bada, orain kenduko diren zuhaitzak pixkanaka ordezkatuko dituzte.

XIX. mendeko bigarren erdialdean sortu zen gaur egun Arrizuriaga parkea moduan ezagutzen dena. Sasoi hartan, lorategia hiriguneko mugan zegoen, eta zuhaitz-mota apaingarri ugari landatu zituzten: ezkiak, zedroak,

indigaztainondoak... Besteak beste, paisaia-moduko lorategia diseinatu zuten, etxearen alboan dagoena.

Kudeaketa aktiboa

Guganaino iritsitako zuhaitziak 54 zuhaitz heldu ditu. Ale batzuk lorategia sortu zeneko garaikoak dira; beste batzuek, ordea, geroago landatutakoak dirudite; eta bakarren bat gune hartako mantentze-lanak utzi zirenean berez hazitakoa da. Zuhaitzia trinkoa denez, kudeaketa aktiboa behar izaten da. Azken urteotan Arrizu-

riagako zuhaitziak ez du jaso beharrezkoa zuen arretarik, eta, uda ezkerro herritarrendako irekita dagoenez, arreta ziurtatzea beharrezkoa da.

Kudeatze modua zehazten

Udaleko zerbitzu teknikoak 2010ean hasi ziren Arrizuriagako zuhaitzia kudeatzeko modua planifikatzen. Lehenengo fasean inbentarioa egin zuten, eta, ondoren, 2011n, zuhaitziaren egoera aztertu zuten. Gabriel Iguñiz Agesta aditu ezagunaren laguntza izan zuen Udalak.

Arrizuriagaren kasuan, parkeko zuhaitz bakoitzaren egoera eta bizigarritasuna balioetsi ziren; egiturazko akatsak aztertu; eta balizko arriskuak neurtu ziren. Horri guztiari esker, modu objektiboagoan ezagutu zuten egiturazko hondamen-egoeran zegoen zuhaitzia, eta apurtzeko edo jausteko arriskuan ote zegoen.

Hortik abiatuta, neurri zuzentzaile zehatz batzuk ondorioztatu, eta hurrengo asteetan hiru lan egingo dituzte: alde batetik, 54 zuhaitzak aztertu ondoren, hamar kendu egin beharko dituzte. Bestetik, adaburuetako abar lehorrak kendu eta huntzak erretiratu dituzte; eta zuhaitz berriak landatzeko plangintza jarriko dute abian. Orain kendutako zuhaitzak pixkanaka ordezkatuko dituzte. Lorategi horretan zuhaitz-masa biziberritzea helburu garrantzitsua da; izan ere, hemengo zuhaitzetatik asko oso helduak dira. Landatu beharreko espezieak aukeratu eta banatzeko orduan, kontuan hartu beharko dira, batetik, Untzetako zuhaitziak etorkizunean izango duen bilakaera eta, bestetik, Florentziako Gutunean lorategi historikoak kudeatzeko jasotzen diren aholkuak.

Bergarako Udaletik jakinarazi dutenez, "ondo" dakite hamar ale mozteak dakarren galera; "Benetan aspaldikoak diren zuhaitz batzuk galduko ditugu, eta horrek gune honetako aniztasun biologikoan eragina izango du, ziurrenik. Baina adituekin kontsulta egin ondoren, zuhaitz-gune hori epe luzera mantendu eta bermatu nahi bada, lanok egitea komeni dela uste dugu. Ingurumenarekiko betebeharra eta parkearen erabilera kontuan izan, eta epe luzera zuhaitzia osasuntsu egotea da helburua".

'Nutrizioa haurtzaroan' ikastaroa martxoaren 7an hasita

Udalak 2-3 urteko haurren gurasoei zuzendutako nutrizio ikastaroa antolatu du. Eskolak eguaztenetan izango dira, martxoaren 7an hasita, 18:00tik 19:30era, gaztelekuan. Mireia Alberdi dietista-nutrizionista izango da irakaslea, eta parte-hartzaileek ondorengo gaiak jorratuko dituzte: elikadura osasuntsua, haurren loditasuna, ohiturak finkatzearren garrantzia, elikagaien ezaugarriak, jangela zerbitzua, errazioak, litxarrerriak, janari azkarrak... Ikastaro teoriko-praktikoa izango da, sukaldea ere erabiliko dutelako. Izen-ematea kultura etxean egin daiteke. Argibideak: 943 77 91 60.

Bizikasi: ikastaroak martxoan eta hitzaldia egunean

Bizikasik hainbat ikastaro iragarri ditu martxorako: *Automobilaren gidatze ekonomikoa* (martxoak 5); *Lan bilaketarako joera berriak* (hilak 8); *Android aplikazioak* (hilak 12); *Gimnasia hipopresibo tailerra* (martxoak 6); *Makillaje perfektionatzea* (hilak 8); *Pertsona nagusien zaintza: oinarriko printzipioak eta jarrerak* (hilak 7); eta *Webguneen diseinua* (hilak 13). Argibideak: 943 76 93 94.

Bestetik, egunean, hilaren leian, *Udaberria prestatu: sendabelarrak eta elikadura hitzaldia* egingo dute Arantzazu Iñarrak eta Maria Angeles Ortizek Miguel Altunan, 18:00etan.

La Exquisita txurro-denda, 1982a ezkerro hutsik egin ez duen bisitaria

E.M. | BERGARA

Urteroko hitzorduarekin ez dute kalerik egin La Exquisita txurro-dendakoek. Manuel Camposek argitu digunez, 1982ko Pazkoetan hasi ziren Bergarara etortzen. Manuel eta Arrate Villamor senar-emazteekin batera, haien seme-alabetako bat, Diego, eta

haren neskalaguna, Lorena, ari dira Bergaran egunotan jarritako txurro-dendan.

Martxoaren 11ra arte egongo da La Exquisita frontoian, kiosko ondoan. Goizez, domeketan zabalitzen dute, 09:00etatik 12:30era, eta arratsaldez egunero, 17:00etatik 21:00etara.



Arrate Villamor eta Manuel Campos, joan den martitzenean lanean. | E.M.



Aratusteetako argazkiak Nahikarin

Ohikoa den moduan, Nahikari tabernak Aratuste-zapatuko argazkiak zintzilikatu ditu tabernako webgunean: <http://www.nahikari.com>. 130 argazki inguru batu dituzte eta interesatuek tabernan bertan eska ditzakete argazkien paperezko kopiak. Josuren Murgizu ibili zen argazkilari lanetan Aratuste-zapatuan Nahikarrendako, eta irudi ikusgarriak jaso zituen. Esan bezala, tradizio bilakatu dira Nahikariren Aratusteetako argazkiak. Herritar asko eta asko pasatu ziren hango photocall-etik.

Bosgarren edukiontzia aldeko erabakia, indar barik

- Bilduren aldeko botoekin eta EAJkoen kontrakoekin onartu zuten
- Atez atekoaren aldeko erabakia aurrerago hartuko du udalbatzak

T. MADINA/M. BIKUÑA | OÑATI

Osoko bilkura beroa izan zen aurreko astea. Bildu eta EAJk euren desadostasunak erakutsi zituzten iazko martxoan jeltzaleek bosgarren edukiontzia jartzeko hartu zuten erabakia indar barik uzteko proposamena egiten zuen puntuan. Jeltzaleek "gogor" kritikatu zuten erabakia, besteak beste esanaz "atez atekoaren proiektuan hainbat gauza zehazteke" dagoela. Bildukoek, berriz, erabakia defendatu zuten esanaz "bosgarren edukiontzia alde eginez gero, errauskailua eskatzen duen eredu baten alde" egiten dela.

Bilduren zortzi zinegotzien (hiru falta izan ziren bilkuran, tartean Mikel Biain alkatea, Sabin Usandizaga preso bisitatzen zegoena) aldeko botoekin onartu zuten proposamena. EAJko sei zinegotziek kontra bozkatu zuten.



Egueneko osoko bilkura. | TXOMIN MADINA

Aldekoak eta kontrakoak

Lourdes Idoiak hainbat kritika egin zizkion hartutako erabakiari, eta esan zuen indar barik uzten zela "aurreko agintaldian sentsibiltate askotariko zinegotziek gehien-go oso hartutako erabakia". Kritikatu zuen proiektu berri honetan

oraindik zehazteke daudela bidegarritasuna, herritarrendako izango duen kostua eta nola eroango den aurrera. "Inposatutako sistema da eta herritarren artean kezka sortzen du. Guk bat egiten dugu zero zabor filosofiarekin, baina, ahalik eta gehien birziklatzeko,

ondo egiten dutenendako hobariak egon beharko lukete eta gaizki egiten dutenendako, zigorrak", esan zuen Lourdes Idoiak.

Horri erantzunez, Josu Lizarralde alkateordeak esan zuen Bildu hauteskundeetara aurkeztu zenean "argi" esan zuela atez ate-

ESANAK

"Argi eta garbi esan genuen atez atekoaren alde egingo genuela"

JOSU LIZARRALDE | ALKATEORDEA

"Inposatutako sistema da, herritarren artean kezka sortzen duena"

LOURDES IDOIA | EAJ-KO ZINEGOTZIA

koaren alde egingo zutela, "zero zabor filosofiara gehien hurbiltzen" delako.

Eta azaldu zuen aurreko agintaldian bosgarren edukiontzia alde hartutako erabakiak "errauskailua eskatzen duen eredu baten alde" egiten duela, eta "atez ateko eredu martxoan jartzeko beharrezkoa da erabaki hori atzera botatzea". Kezkatuta dauden herritarrei lasai egoteko mezua bidali zien Lizarralde: "Informazio puntuak ipini eta bilerak eta kanpainak egingo ditugu herritarrendako. Martxoaren 5etik aurrera *Atez ate, auzoz auzo* kanpaina ipiniko dugu martxoan".

Basoa izango da Ingurumen Astearen protagonista nagusia

- Natur Eskolak antolatuta bost hitzaldi egingo dituzte, bihar hasita
- Marrazkiekin eta eskulturekin egindako erakusketa ipini dute

M.B. | OÑATI

Aste bukaeran Teruelgo Galocanta urmaelako kurriloak (grullak) ikusteko irteerarekin hasi dute Ingurumen Astea, baina ekitaldi nagusiak gaur hasita egingo dituzte: hitzaldiak, erakusketa, poesia errezitaldia, zuhaitz egunak eta zuhaitz azoka. Natur Eskolak antolatuta askotariko ekitaldiak egingo dira martxoaren 11ra arte.

Hainbat hizlari, baina gai bakarra. Aurtengo edizioko protagonista nagusia basoa izango da. "Ez genuen basoaren gaineko monografikorik antolatu gura, baina gaiak zehaztu eta hizlariak lotzen hasi ginenean konturatu

ginen basoa zela gai nagusi eta bakarra", esan digu Natur Eskolako Jon Betanzosek.

Zergatik basoa? Bada, aurreko urtean basoa lantzen hasi ziren eta jarraipena eman gura izan diote. "Orain dela urte batzuk Iturrigorriko basoaren gaineko eztabaida hasi zen. Esku pribatuetatik publikora pasa behar zela, eta kudeaketa nolakoa izango zen landu genuen", esan digu Betanzosek. Euskal Herriko basoen kudeaketa; Oñatiko herri basoen nondik norakoak; eta basoak dituen funtzionamenduak eta babes-ereduak landuko, dituzte besteak beste.

Hitzaldiak bihar hasiko dituzte (ikus ondoko taula). Guztiak egingo dituzte kultura etxean.

Marrazkiak eta eskulturak

Era berean, kultura etxean dago ikusgai *Natura eta artea* delako erakusketa: marrazkiak eta eskulturak batzen dituen erakusketa. "Iñaki Zorrakinen hil osteko marrazkiak dira, animalienak eta basoenak. Jabier Murillok, aldiz, eskulturak ekarriko ditu. Ikusgarria izango da", esan digute.

Erakusketa borobiltzeko, Andoni Salamerok poesia errezitaldia egingo du gaur, astelehena, 20:00etan.

Herritarren erantzuna

16. Ingurumen Astea da Natur Eskolako esku artean dutena. "Natur Eskolaren jarduna eza-gutzera emateko hasi ginen Ingurumen Astea antolatzen. Hasieran gure egoitzan egiten genituen hitzaldiak eta erakusketa, baina, herritarren erantzuna ikusita, kultura etxera aldatu ginen. Herritarren erantzuna oso ona izan da", diote Natur Eskolakoek.

INGURUMEN ASTEA

HILAK 28

19:00 *Euskal Herriko basoen kudeaketa historian zehar*. Hizlaria: Javier Loidi.

HILAK 29

19:00 *Oñatiko herri-basoak*. Hizlaria: udal teknikariak.

MARTXOAK 2

19:00 *Zuhaitzek basoa ikusten uzten ez dutenean*. Hizlaria: Adolfo Cordero.

MARTXOAK 6

19:00 *Basoen funtzio aniztasuna eta babes-ereduak*. Hizlaria: Eneko Imaz.

MARTXOAK 7

19:00 *Lurralderako kudeaketa, babeserako erreminta*. Hizlaria: Amado Prieto.

MARTXOAK 1

20:00 *Zineklub emanaldia kultura etxean*. Mercedes Alvarez *de Mercados de futuro* filma emango dute.

Mikel Biain alkatea zuzenean Goiena telebistan bihar

Mikel Biain alkatea estreinatuko du Goiena telebistako *Harira* elkarrizketa saioa bihar, martitzena. Eneko Azkaratek elkarrizketa egingo dio zuzenean, 21:30ean.

Herritarrek parte hartze-ko aukera izango dute: aurrez *harira@goiena.com* helbidean eta *Goiena.net* atarian; eta elkarrizketa egiten dioten artean 943 25 05 05 telefonoan, Twitter bidez *#harira* traola erabilia edo streaming bidez *Goiena.net* atarian, zuzenean.

Baserriko plastikoak batuko dituzte bihar, martitzena

Baserrietan pilatutako plastiko beltzak eta zuriak eta belar boletako plastikoak batuko dituzte bihar, martitzena. Oñatin lau lekutan utz daitezke: Murgian, Asentzio ermitaren ondoan; Zañartun, Zuazola inguruan; ETEO zahararen atzealdean; eta Olabarrietako autobus geltoki ondoan.

Plastikoak bihar batuko dituzte, ilunkeran, baina 17:00etatik aurrera atera ahal izango dira aurrez aipatutako lekuetara.

Zuhaitz egunak martxoan

Bi zuhaitz egun egingo dituzte martxoan: 4an eta 11n. Lehena herriko parkeetan egingo dute. 10:00etan plazan elkartu, eta San Martin eta Santa Lutzia inguruetan haritzak landatuko dituzte. Bigarrena Durutik Aloñara arteko bidean egingo dute. Aloñako Gurutzearen Lagunak elkartearen ekimenez landaketa egingo dute. 09:00etan elkartuko dira Durun.

ARETXABALETA

%28ko jaitsiera duen Udal aurrekontua onartuta

Aralarrek eta EAJk irizpide falta egotzi diote Bilduri aurrekontua egiterakoan, eta ez dute babestu

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Egubakoitzean onartu zuen udalbatzak 2012ko Udal aurrekontua: 9.467.247 euro guztira. Iazkoarekin alderatuta %28ko jaitsiera izan du eta alkateak onartu du "xemeikoz xemeiko banatu dutela dirua". Alderdi Sozialistako zinegotziak ez zuen bertan egoterik izan, eta Aralarrek eta EAJk ez zuten aurrekontua babestu.

"Aurrekontu zentzudunak dira, bizi dugun errealitate egokituak" aipatu zuen alkateak. Hala, Gizarte Zerbitzuetako partida dela gora egin duen bakarria onartu zuen.

Bestetik, gaineratu zuen helburu garrantzitsu bi bete dituztela aurrekontu horrekin: zorra ez handitzea gehiago; eta Aldundiari eman beharreko dirua bes-

te krediturik eskatu barik itzuli ahal izatea.

Inkoherentzia EAJren ustetan Aralar, Udal gobernu osatu arren Bildurekin, abstenitu egin zen bozkatzekoan. Eta argitu zuen "dirua tentuz banatu beharra dagoela, eta horretarako irizpide batzuk bota dituztela faltan". Inprobisatzen ibili diren sentsa-

zioa izan dutela gaineratu zuen Inaxio Garrok.

EAJko zinegotzi biek, ostera, aurka bozkatu zuten "inkoherentziak dituelako". Langileen soldata igotzeko erabakiarekin ez ziren bat etorri "egoera ekonomikoa zelakoa den jakinik" eta mankomunitateari egin beharreko ekarpena ere asko igo dela aipatu zuten, %8 inguru. "Beste partida batzuek, ostera, murrizketak izan dituzte: kulturak, hirugarren munduko herrialdeei laguntzak... Murriztu beharra dago, baina inkoherentziak dade". Aurrekontua eztabaidatzeko prozesuari dagokionez bat etorri ziren Aralarkoekin "irizpide falta" izan dela esaterakoan.

Alkateak erantzun zien irizpideak badituztela baina "dirurik ez dagoenean ezin ezer egin". Hala ere pozik azaldu zen alderdien arteko elkarlanarekin.

AURREKONTUA

GUZTIRA (eurotan)	9.467.247
Zor publikoa	1.374.247
Adiministrazio orokorra	1.172.451
Nekazaritza garapena	488.555
Hondakinen kudeaketa	472.626
Kultur etxea	418.364
Familia eta elkarbizitza	426.050
Kirol etxea	381.773
Kale garbiketa	363.410
Ur hornikuntza eta banaketa	396.821
Parke eta lorategiak	200.150
Hezkuntza	260.696
Informazio eta balorazio prog.	298.833
Jaiak	166.850
Euskara	159.002
Gazteria	147.170
Ingurumena	144.719

ARETXABALETA

Herriko emakumeen ekarpena iruditan

Martxoaren 8aren harira, erakusketa zabalduko dute egunean, 18:30ean

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Martxoko kultura egitarauaren harira, egunetik *Emakumeak protagonista* izeneko argazki erakusketa ikusi ahal izango da Arkupen; egun berean, 18:30ean, erakusketaren irekiera ekitaldia egingo dute. Izenburuak dioen moduan, emakumeak ditu protagonista: emakumeak lanean, kirolean, ekimen kulturaletan, txikien zaintzan, eskolan, jai giroan... Guztietan ere, aspaldiko eta gaur egungo emakume arretabaletarrek ageri dira.

Argazki bilduma hori Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolatu dute. Udaleko Kultura Sailetik azaldu dute emakumeek Aretxabaletako herriari egindako ekarpena nabarmentzea duela helburu, urte askoan izan ez duten protagonismoa ematea; hain justu ere, omenaldi xumea egitea.

Hilaren 31ra arte egongo da erakusketa zabalik, honako ordu-

tan: astelehenetik egubakoitzera 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara eta zapatuetan goizeko orduetegian.

'Ya te digo' antzezlan

Bestalde, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, antzerkia ere egongo da Martxoaren 8an. Las Torpedolevel-Ireki Teatro taldeak *Ya te digo* antzezlan taularatuko du, 19:00etan, Zarama aretoan; sarrerak bi euro balioko du. Hainbat gai jorratuko dituzte horretan: batetik, fama, bertsiorik surrealistean; bestetik, sexuaren eta gastronomiaren arteko harreman estuak; eta hirugarrenik, maitasuna eta oroitzapen faltsuak.


Martxoaren 10ean, ostera, haurrei zuzendutako ikuskizuna izango da liburutegian, 11:30ean. *Panpinak Aitorrentzat* Martxoaren 8rako sortutako ipuin kontaketa da. Honako helburuak ditu emanaldi horrek: sexu rolen bana-

keta bukatzea eta, era berean, emakumeen eta gizonen eskubide eta eginbeharren arteko berdintasuna sustatzea. Hori guztiori azaltzeko, ipuin kontaketa saio batek eduki behar dituen osagaiak erabiliko dituzte: umore handia, misterioa, parte-hartzea, eta baita ezusteko txikiak ere. Berdintasuna gai serioa bada ere, agerian uzten dituzte gizakion alderik barregarrienak.

Dantza saioak

Horretaz gainera, Leizarra musika eskolakoek dantza saioak izango dituzte, debalde, honako egunotan: martxoaren 12an, 18:45etik 21:00etara; 13an eta 14an, 17:00etatik 20:45era; 15ean, 17:00etatik 18:15era; eta martxoaren 16an, 17:00etatik 20:45era.

Martxoaren 27an, berriz, arterietako hipertentsioaz jardungo du Alberto Montero barne medikuntzan aditua; 19:00etan hasiko da berbaldua, Zaraman.



Emakumeen gaineko erakusketaren kartela. | GOIENA

ESKORIATZA

Amuskak antolatutako ikastaroak eta antzerki tailerra hastear daude

Ekainera bitarteko eskolak hasiko dituzte egunotan, kultura etxean

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Amuska emakume elkarteak egunotan hasiko ditu urtean zehar birritan antolatzen dituen ohiko ikastaroak. Ehoziri lanen eta bainiken eskolak astelehenetik izango dira, 20:30etik 22:30era; olio-pintura martitzenetan, 10:00etatik 12:00etara; patchwork martitzenetan, 15:30etik 17:30era eta 18:00etatik 20:00etara; eta eskulanak eguztinetan, 18:00etatik 20:00etara. Antzerki tailerra ere egingo dute hileko lehen eta azken zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara.



Eskulanen tailerra. | M.B.

ESKORIATZA

Ardoa dastatzen ikasteko ikastaroa egingo dute bihar

Arabako Errioxako Upeltegien Elkartearen laguntzarekin ardo dastatze hastapen ikastaroa egingo dute bihar, martitzena, Eskoriatzako kultura etxean. Saioa 18:30ean hasiko da, bi ordu inguru iraungo du eta doakoa izango da.

Ikastaro horren bidez ardoa ezagutzeko aukera izango dute eskoriatzarrek: besteak beste, ardoa nola egiten den, gaur egun dauden salda motak, uztarketak eta dastatzerakoan ikusmena, usaimena eta dastamena zelan erabili erakutsiko die aditu batek. Horren gaineko informazioa gura dutenek kultura etxera jo dezakete.

ARETXABALETA

Langabe eta merkatariendako ikastaroak abian

Beste bi ikastaro gertatu dituzte Aretxabaletan datozen asteotarako: batetik, Lanbideko webgunea erabiltzen ikasteko bi orduko ikastaroa dago, herriko langabeei zuzenduta; bestetik, merkatariari zuzendutako bi orduko ikastaroa antolatu dute, euren Facebook kontua zabalatzeko eta haren erabilpena ikasteko.

Martxoan egingo dira horiek; datak apuntatzen den jendearen agenden arabera zehaztuko dira. Interesatuak larrea@aretxabaleta.net helbidera posta bidali behar dute, edo 943 71 18 62 deitu eta Argiñe Larreatatik galdetu.



Iaz kiroldegiko gimnasioan egin zituzten Finalista Eguneko diploma banaketa ekitaldia eta bazkaria. | USOA AGIRRE

ELGETA

Euskal Mendizale Federazioak martxoaren 11an egingo du 2011ko Finalista Eguna

Elgetan egingo dute ospakizuna aurten ere: goizerako mendi ibilbidea iragarri dute eta eguerdirako, diploma banaketa eta bazkaria

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Federazioak urtero egiten du Finalista Eguna, eta aurten, martxoaren 11rako, domekarako, iragarri du. Iaz Euskal Herri osotik etorritako 130 mendizale elkartu ziren Elgetan. Goizerako mendi ibilbidea antolatatu dute. Ibilbide luzea egin nahi dutenak 08:00etan abiatuko dira; motza egitea nahigo dutenendako, berriz, 09:15ean ipini dute irteera ordua. Bi ibilbideak Elgetan hasi eta bukatuko dira. Luzearen trazatua Intxorta-Kanpanzar-Udalatx-Kanpanzar-Elgeta da.

Diploma banaketa

Bestalde, Euskal Herriko iraupen luzeko ibilaldien X. zirkuituan parte hartu dutenek diploma jasoko dute Elgetan. Hori izaten da, beste batzuen artean, Finalista Eguna antolatzeko aitzakia.

Ekitaldi hori eta ondoren egingo duten bazkaria Espaloia kafe antzokian izango dira aurten, 14:15ean hasita. Martxoaren 8ra arte eman daiteke izena. Bazkariaren prezioa 20 euro da. Izena emateko, interesatuek Elgetako Udalarekin jarri behar dute harremanetan; 943 76 80 22 telefono zenbakira deituta edo turismoa@elgeta.net e-postara idatzita.

Eta bezperako gaua Elgetan egin nahi dutenek landetxe bat izango dute aukeran. Gaua kiroldegian egiteko aukera ere emango du Udalak. Hori bai, nork bere lotarako zakua eta koltxoia eroan beharko ditu.

Datu meteorologikoak sarean

Mendi buelta egiteko dela edo beste edozertarako, baliabide berria dugu Elgetan; izan ere, AEMET agentziak Pagatzako

estazio meteorologikoan jasotzen dituen datuak sarean kontsulta daitezke aurreko astea ezker.

Azaroan ipini zuten martxan Pagatzako estazio meteorologikoa berria, eta ordutik hona datuak jasotzen ari da, baina modem arazoak direla-eta, datuok ezin izan dira orain arte webgunean kontsultatu.

Bada, modem arazoak konponduta, aurrerantzean Elgetako tenperatura, haize —abiadura eta noranzkoa—, prezipitazio eta hezetan datuak emango ditu www.aemet.com atariak. Sei orduan behin berrituko dituzte, gainera, datuok, eta estazioak urte osoko datuak pilatuko ditu. Informazio hori Excel formatuan deskarga daiteke orain, eta udal webgunetik ere badago sarrera. Webguneak eguraldi iragarpena ere ematen du.

Antolatzaileek badakite Gatzaga herri txikia dela, eta, horregatik, jaialdiaren formatua aldatzeko asmoa agertu dute Mankomunitateko ordezkariak; hala, herriaren tamainara egokituko dituzte ekitaldiak.

Gainera, hainbat ikuskizun Eskoriatzan egingo dituztela azaldu zuten urtarrilean egindako bileraren ondoren. Baina ikuskizun horiek eta ekitaldiak oraindik zehazteko zituzten orduan, eta poliki-poliki dabilta lotzen.

Antolatzaileak jaiaren nondik norakoak gertatzen dabilta neurrian, Udala ere lanean hasiko da, jai erraldoi hori zelan bideratu lantzeko.

ARAMAIO

Abian da Txirritolaren ipuin lehiaketa, eta helduei ere dei egin diete

Izena emateko azken eguna martxoaren 30a da; sari banaketa ekitaldia apirilaren 27an

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Urtero moduan, abian da Txirritolaren ipuin lehiaketa. Euskaraz elkarteak aditzera eman ditu oinarriak: Aramaion bizi edo ikasten duen edonork har dezake parte, ipuinek euskaraz eta aurrez argitaratu gabek izan behar dute, parte-hartzaile bakoitzak sari bakarra jaso ahal izango du eta gaia libreza izango da. Euskaraz zuzen idaztea —batuan edo euskalkian— eta originaltasuna baloratuko dira, eta, lanek gutxieneko kalitatez ez badute, sariak hutsik uztea erabaki dezake epaimahaia.

Ipuinak Udal Liburutegian aurkeztu behar dira martxoaren 30a baino lehen. Nola? Gutun-azal handi baten sartuta; gutun-azal

handiaren gainean *Txirritola ipuin lehiaketa*, egilearen goitizena eta eskolako maila idatzi, eta barruan ipuina eta gutun-azal txiki bat sartu beharko dira. Hor, egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa idatzi beharko dira. Ipuinaren gutxieneko luzera ikasleen mailaren arabera izango da.

12 urtetik gorakoendako

Eskolako ikasleek urtero hartzen dute parte —irakasleek animatuta—, eta, horregatik, antolatzaileek dei berezia egin diete 12 urtetik gorakoei. Helduen lan irabazleak 100 euro eta liburu bat jasoko ditu. Sari banaketa apirilaren 27an izango da, eta aurrerago iragarriko dituzte ekitaldiaren nondik norakoak.



Iazko sari banaketa ekitaldian Txan magoa izan zen gonbidatua. | J. A.

ANTZUOLA

Gaztetxe berria abian jarri nahi dute, auzolanean

Gaztetxearen etorkizuna martxoaren 2an eta 3an eztabaidatuko dute antzularrek

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Hilaren 10ean, gaztetxearen gaineko hausnarketa egin zuen herritar talde batek. Besteak beste, gaztetxe berriaren obrak izan zituzten berba. "Helburua gaztetxearen oinarriko obrak burutzea izan da: elektrizitatea, eraikina eta iturgintza lanak egitea, gaztetxea behin-behinekoa izatetik iraunkorra izatera pasa da-eta", esan digute. Lanak herriko langileek egin dituztela azaldu dute: "Gure helburua eraikina zegoenetan hartu eta, gutxika, eraikitzea zen; baina denbora aurka geneukan eta oinarriko obra herriko langileek egiteko erabakia hartu genuen, segurtasun arauak bermatuz". Hurrengo urratsa egin gura dute, eta topaketak egingo dituzte, auzolanaren filosofian murgilduta.

Martxoko topaketak

Martxoaren 2an eta 3an gaztetxearen etorkizuna lantzeko bi topaketa egingo dituzte. Hala, barikuan, 22:00etan, beste herri batzuetako gaztetxeetako kideekin, eta Antzuolako gaztetxean aritu diren belaunaldi askotariko kideekin kafe tertulia egingo dute eta esperientziak trukatu dituzte. Zapatuan, aldiz, 10:00etan, ambulatorio zaharreko gaztetxearen kudeaketa izango da topaketaren oinarria. Bertan, auzolanerako egutegi bat zehaztuko dute. Asanbladak interesa duten herritar gutien parte-hartzea bultzatu gura du. "Amesten dugun gaztetxea benetan sortu eta eraikitzeko egunak izango dira; beraz, animatu eta ez gelditu etxean", azpimarratu gura izan dute.

LEINTZ GATZAGA

Mundumira antolatzen hasteko bilera deitu dute egubakoitzerako

Maiatzaren 18tik 20ra egingo dute munduko kulturen jaia, Gatzaga eta Eskoriatza artean

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Bilera egingo dute egubakoitzean, martxoak 2, Udalak deituta, Mundumira gertatzen hasteko. Udalarekin izango da (19:00), eta herritarren iritzia eta laguntza gura dute jai erraldoi hori antolatzeko. Maiatzaren 18an, 19an eta 20an izango da munduko kulturen jaia.

Herrira egokitutako formatua

Debagoieneko Mankomunitateak, *Euskal Herria* aldizkariak eta Gin Music ekoizpen-etxeak antolatutako jaia da Mundumira, eta, Debagoieneko gainerako herri guztietatik pasatu ostean, Gatzaga, eskualdeko herririk txikienera, iritsiko da aurten; zortzi-garren jaia izango da.

OTSAILEKO SARIEN IRABAZLEAK

Mespreso Krups kafe-makina

Izen-abizenak:
Joxe Mari Muxika Arrieta
Herria: Arrasate

"Aita zontia naiz" kamisetak

- Nekane Gabilondo Ugarte (Bergara)
- Leire Sanz Cid (Bergara)
- Joseba Ezpeleta Irizar (Arrasate)
- Gotzon Osinaga Uriarte (Oñati)
- Espe Lizarralde Gallastegi (Arrasate)
- Imanol Aginagalde Aranzabal (Aretxabaleta)
- Mikel Sarasola Astigarraga (Arrasate)
- Beñardo Balerdi Gomez (Arrasate)
- Agurtzane Lete Larrañaga (Bergara)
- Fernando Iñurrategi (Arrasate)
- Luis Ginart Zubizarreta (Arrasate)
- Agustin Bolinaga Zubia (Oñati)
- Idoia Bengoa Lazkano (Bergara)
- Joseba Gonzalez de Martin (Aretxabaleta)
- Idoia Moreno Zubikarai (Bergara)
- Esteban Barandiaran Fdez de Jauregi (Arrasate)

'Aita, zontia naiz' kamisetak

- Jabier Uribetxabarria Bolinaga (Arrasate)
- Floren Arana Barandiaran (Arrasate)

Eureka zientzia museorako sarrerak

- Unai Etxebeste Larrañaga (Oñati)

2012an atera etekina txartelari



Arrasate, 943 79 13 39

- %2 gasolindegian erregaia erosita.
- %2 dendako produktuetan

IKER

SUKALDEAK

Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48

- Sukalde osoa erosita, mikrouhin-labea opari.



Arrasate, 943 71 24 72

- -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
 - -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
 - Ordezkapeneko autoa, 20 euro.
- Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.

KOLOORE KAMISSETAK ETA IZERDI-JERTSEAK



www.koloore.es.
ESKAERAK:
koloore@koloore.es.

Parte
hartzeko

Deitu
943 25 05 05
telefono zenbakira!

Parte-hartzale guztien artean zozketatuko dira.

ETA HAUETAN ERE BAI



goienakluba 2012

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com
Urteko kuota: 50 €.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Ugartek egin zituen Aloñaren bi golak, bigarrena 89. minutuan

Oñatiko taldeak merezimendu osoz irabazi zion Iñigo Idiakezek zuzentzen duen Berio taldeari

EMAITZA

ALOÑA MENDI

2-1

BERIO

FITXA TEKNIKOAK

Aloña Mendi: Iñigo, Endika, Agirre, Roberto (Aritz, 71. min.), Mikel, Asier (Aimar, 89. min.), Urkia, Juaristi (Martin, 92. min.), Millas (Julen, 82. min.), Olalde eta Bikuña (Unai, 89. min.).

Berio: Calafell, Martinez, Goya, De la Fuente, Ferrera, Guariste, Garmendia, Beraza, Fontenla, Pelaez (Duque, 71. min.) eta Oñate (Badiola 82. min.).

Epaileak: Anuaga jaunak zuzendu zuen partidua. Gonzalez eta Rodal izan ziren marrazainak.

zuen epaileak, eta donostiarrek penalti eskatzen zuten kontraerasoan bigarren gola egin zuen Aloñak. Baloia luzea jaso zuen Axier Ugartek. Arian bakarrik sartu eta baloia atezainaren hanken artean sartu zuen ate barrura. 89. minutua zen, eta Aloñak lortu zituen hiru puntuak.

Bigarren golak askoz gehiago piztu zituen Berioko jokalariek eta arduradunak. Epaileak masa-jista kalera bota zuen.

Luzapeneko minutuetan jarraira lotsagarria erakutsi zuten Berioko ordezkariak. Esku hutsik geratu ziren, eta min handia egin zuten horrek, izan ere lehia inportantea zen euren dako. Anaitasunak eta Tolosak galdu egin zuten, eta irabazita, Iñigo Idiakezen taldeak sailkapeneko bigarren tokira salto egingo luke.

Lehen gola Aloñak...

Hasierako minututik Aloñak agindu zuen. Azkargortaren taldea ondo kokatu zen zelaian, eta donostiarrek zuten arriskuaren jakitun izanda, ondo mugitu zuten baloia. Partiduan egin zuen lehen aukeran gola sartu zuten oñatiarrek.

Axier Ugartek baloia hartu zuen area kanpoan eta indartsu bota zuen, zutoinaren ondotik, ate barrura. 10. minutua zen. Abantailarekin asko lasaitu ziren etxeok, eta baloia ondo mugitu zuten.

Beriok ere futboleko jokatzeko badakiela erakutsi zuen. Pase motzak erabiliz, Iñigo Idigorasen areara heltzen ahalegindu ziren behin eta berriz, baina aukera garbiak sortu barik. Donostiarren aukera onena 21. minutuan egin zuen Pelaezek. Jaurtiketa langa ondotik, gora joan zen.

Aloñak beste bi aukera izan zituen atsedenen aurretik abantaila handitzeko: 37. minutuan jokaldi polita egin zuten oñatiarrek eta baloia Josu Juaristik bota zuen, gogor, baina atezainak geratu zuen; eta 44. minutuan Axier Ugartek gora bidali zuen errematea atezainaren aurrean zegoenean.

... eta berdinketa Beriok

Bigarren zatian antzerako jarrearekin irten ziren bi taldeak: Aloña baloia kontrolatzeko asmoz eta Berio berdinketaren bila.



Aloñako jokalaria Unai Bikuña, Berioko atezain Calafeel presionatzen. | JULIO CALLEJA

Idiakezen taldeak lortu zuen helburua azkarrago: 55. minutuan berdinketa egin zuen. Eskuinetik erdiratutako baloia buruz errematatu zuen Guaristek.

Golak min egin zion Aloñari, eta minutu batzuetan oñatiarrek galduta ibili ziren zelaian. Bazirudien Beriok kontrolatuko zuela partidua.

Zaleen eta aulkitxoan zeuden entrenatzaile eta jokalarien animoekin, taldea berpiztu egin zen, eta lerroak aurreratu zituen bigarrenaren bila.

Josu Juaristik eta Aritz Garmendiak aukera bana izan zuten, baina ez zuten asmatu. Beriok ere izan zituen beste hiru aukera: 64., 73. eta 85. minutuetan.

Azkeneko minutuan eta luzapenean Axier Ugarteren gola eta Berioko jokalarien protestak izan ziren nagusi.

Epaileak eurekin egin zuen berba partidu bukaeran zela erdian.

Aste bukaeran Irunen

Atzoko puntuekin sendo jarraitzen du Aloñak sailkapeneko goiko postuetan. Aurreko astean Anaitasuna liderraren kontra galdu arren, bide onetik doa taldea.

Aste bukeran, bosgarren tokian dagoen Real Unioni egingo dio bisita. Irundarrek 41 puntu dituzte eta oñatiarrek 34. Partidu gogorra izango bi taldeen dako.

OHOREZKO ERREGIONALA

Azken minutuan berdindu zuen Bergararendako Arazkonagak

Korner erdiraketa bat buruz errematatu zuen mahoneroen erdilariak

EMAITZA

BERGARA

1-1

HONDARRIBIA

zutoinera erdiratu eta Iker Arazkonaga erdilariak buruz, baloia ate barrura bidali zuen. Puntu bat irabazteko aukera eman zion Bergarari. "Puntu justua, emaitza justua", esan ziguten mahoneroen ordezkariak.

Saria jaso aurretik baina, sufritzea egokitu zitzaion bergarrei. Norgehiagoka oso parekatua izan zen, baina joko aldetik oso eskasa. Dena den, Hondarribiak etxeokoen atera egindako lehen jaurtiketan areaz kanpo

botatuko falta jaurtiketa- gola sartu zuten, eta minutu asko jokatuz zuten Neka Galanen jokalariek markagailua kontra zutela.

Korner eta falta erdiraketak

Etxekoek korner eta falta erdiraketa asko egin zituzten, baina azken errematean ez zuten asmatu. Hiru puntuak Hondarribiara joango zirela zirudienean etorri zen berdinketaren gola, eta nola ez, korner erdiraketa baten egin zuten.



Xabier Urrutia Hondarribiko jokalariekin lehia. | JULIO CALLEJA

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Epaileak adierazitako falta bat protestatzen zeudenean -Berioko jokalariek Guariste Aloñaren atezainari falta egin ziola adierazi

M. BIKUÑA | BERGARA

Partiduko azken minutuan berdindu zuen Bergarak Hondarribiaren kontra. Kornerra bigarren

TXIRRINDULARITZA | Soralue Koop. Saria | 25



EMAKUMEEEN 2. MAILA

Estrategia jokaldi baten jaso zuen gola Mondrak

Nesken taldeak galdu egin zuen 0-1 Abantoren kontra; falta jaurtiketa batekin egin zuten gola

EMAITZA	
MONDRA	0-1
ABANTO	

M.B. | ARRASATE

Estrategia jokaldi batekin galdu zuten Mondrako neskek atzoko partidua. Abantok areaz kanpotik egindako falta jaurtiketa-

rekin egin zuen gola, 85. minutuan. Arrasateko neskek ez zuten aukerarik izan berdinketa lortzeko. "Partiduak oso parekatuak direnean, borroka nagusi denean, detaile txikiak edo estrategiak dira erabakigarriak. Guri hori gertatu zaigu, eta ez dugu erreakzionatzeko astirik eduki", esan ziguten.

Zati bat talde bakoitzarendako Mojategira, futbola ikusteko gogoarekin joan zirenek, ez zuten

partidu egokia aukeratu. Mondraren eta Abantoren arteko partidua, gogorra eta parekatua izan zen. Saillkapeneko goiko lekuetan dauden bi taldeen artekoa, alegia.

Lehen zatia Mondrako neskek kontrolatu zuten. Baloia ondo mugitu, baina aukera gutxi sortuta. Bigarrena Abantok menderatu zuen. "Taldea polita daukate eta zelaian erakutsi dute. Jokalari gogorak eta borrokalariak dituzte", esan zigun Mondrako entrenatzaile Jon Zuloagak.

Bi taldeek baloi guztiak borrokatu zituzten: zelai erdi-koak, atzekoak eta aurrekoak, baina gol aukerak egin barik.

Mondrako neskek 26 puntu dituzte lortu dituzte 18 jardunalditan eta saillkapenean erdi inguruan daude.



Mondrako jokalaria baloia menderatu gura, Abantoko jokalarien aurrean. | JULIO CALLEJA

ROBERTO IDIGORAS | ALOÑAKO JOKALARIA

"Bide onetik jarraitzeko puntuak dira"

Ez zuen golik egin, baina oso pozik zegoen atzo lortutako puntuekin.

Partidu borrokatua jokatu duzue.

Lehen zatian guk menderatu dugu partidua, eta gola

azkar sartzeak lasaitasuna eman digu. Bigarrean behera etorri gara berdinketarekin, baina minutuak aurrera egin ahala berpiztu



Roberto Idigoras. | M.B.

eta bigarrena egiteko gai izan gara.

Kontraerasoan egin duzue bigarrena.

Epailearen erabakia protestatzen zeudela aprobetxatu dugu kontraerasoa egiteko. Oso pozik gaude emaitzarekin. Kontuan hartu behar da Berio talde sendoa eta indartsua dela, eta saillkapeneko goiko lekuetan dagoela.

EMAKUMEA, IGOERA

Arizmendiko neskek galdu liderraren kontra

Arizmendiko neskek ezin izan zuten igoera faseko liderra menderatu. Aritz Elortzaren neskek 2-6 galdu zuten Almenen jokaturako partiduan. Zarautzek talde sendoa dela erakutsi zuen eta ez zion aukerarik eman etxeko taldeari.

Aste bukaerako Allerruren kontra jokatuko dute Arizmendiko neskek.

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Aretxabaletak puntu bakarra lortu zuen Lauro ikastolaren aurka

Kontrario zaila izan zuen zapatu arratsaldean gazteen euskal ligan diharduen Aretxabaletak: saillkapeneko bigarren tokian dagoen Lauro ikastola taldea. Baina etxekoak gai izan ziren puntu bat lortzeko: bana berdindu zuten. Puntu horrek aukera eman die saillkapenean 12. lekuan egoteko. Aretxabaletarrek 24 puntu dituzte, Beasain eta Real Unionekin berdinduta.

OHOREZKO GAZTEAK

Mondrak eta Bergarak irabazi eta Aloña Mendik galdu

Ohorezko gazte mailako Mondrak eta Bergarak irabazi egin dute aste bukaeran etxetik kanpo: arrasatearrek 3-4 irabazi zuten Elgoibarren; eta mahoneroak 0-4 Ikasberriren kontra. Aldiz, Aloña Mendiko taldeak 4-3 galdu zuten Andoainen Euskaldunaren kontra.

Bergarak lider jarraitzen du maila honetan.

ERREGIONAL PREFE.

Berdinketa Ibarako derbian

Erregional preferentean diharduten Aretxabaleta B eta Antzuola taldeek puntuak banatu zituzten atzo arratsaldean, Ibarra futbol zelaian. Bana berdindu zuten.



JULIO CALLEJA

OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaletak irabazi egin zuen eta Mondra puntu barik itzuli zen

M.B. | ARRASATE

UDAk eta Mondrak etxetik kanpo jokatu dute aste bukaeran, eta oso bestelako emaitzak lortu dituzte: aretxabaletarrek irabazi egin zuten Rotetaren kontra 2-3, eta arrasatearrek galdu Oiartzunen 2-0.

Partidua bertan behera

UDAk sufrituta irabazi egin zuen Rotetaren kontra. Donostiarrek egin zuten lehen gola, baina berehala berdindu zuen Azkarragak, kórner bat errematatu ondoren. Atsedenean aurretik bigarrena egin zuen UDak: Sanchezek bikain aprobetxatu zuen Apraitzen asistentzia.

Bigarren zatian, joko eskasa egin zuten, baina UDak hirugarren gola egin zuen 80. minutuan. Lehia bukatzeko bi minutu falta zirenean bigarrena egin zuen Rotetak. Handik aurrera, istiluak izan ziren nagusi. Rotetako hainbat jokalaria egotzi zituen epaileak eta minutu bat falta zenean, bertan behera utzi zuen partidua.

Bi gol 20 minututan

Mondrari 20 minutu kosta zitzaion partiduan sartzea. Konturatu orduko bi gol egin zituen Oiartzunek. Handik aurrera, aldapa gora, nahi eta ezin ibili ziren arrasatearrek.



Asier de la Iglesia saskiratzea egiteko gertu, Deportes Ferrer taldearen defentsari aurre eginez. | JULIO CALLEJA

EBA LIGA

Bigarren laurdeneko defentsari eta partzialari esker, laugarren garaipena Natra Oñatirendako

- ▶ Logroñoeko Deportes Ferrer taldea menderatu zuen eta bien arteko averagea alde ipini zuen
- ▶ Bost partidu geratzen zaizkie oñatiarrei EBAn jarraituko duten edo ez jakiteko

EMAITZA

NATRA OÑATI

88-66

DEPORTES FERRER

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Bigarren laurdenean defentsa sendotu zuenean erabaki zuen Natra Oñatik Logroñoeko Deportes Ferrer taldearen kontrako partidua. Tarte hartan 23-11ko partziala egin zuen eta 12 puntuko aldearekin heldu zen atse-denera.

Taula azpian lan handia egin zuten piboteek, eta jasotako erre-

boteek aukera eman zion Natrari erasoan azkar irteteko. Bigarren laurdenean azken minutuan 14-0ko partziala egin zuten oñatiarrek, eta lehia ia erabakita utzi zuten.

Hirugarrenean bide beretik jarraitu zuten: joko azkarra erasoan, eta ondo defentsan, bai zonaka eta baita banaka ere. Hirugarren tarteak bi zati izan zituen: lehen zortzi minutuetan abantaila etengabe handitu zuten etxekoek eta 22 puntu aurretik ipini ziren: 66-44. Baina, azken bi minutuetan, erlaxatu egin ziren, eta 15 puntura hurbildu ziren errioxarrak. Batez ere, Ignacio Urtasunek (23 puntu) egindako lanari esker.

Kudeaketa ona

Laugarren laurdenean askoz gehiago estutu zuen Deportes Ferrer taldeak, eta 12 puntura hurbildu ziren (74-62) lehia bukatzeko bost minutu falta zirenean. Orduan jokatu ziren minutu erabakigarriak. Urtasunek bosgarren falta egin zuen, eta ur botilekin ostikoka hasi zen. Epaileak teknika adierazi zuen errioxarren kontra. Natra Oñatik bi jaurtiketa libreak eta hirukoa egin zituen, eta tarte zabaldu zuen.

Beste batzuetan, urduri ipini izan dira Natra Oñatiko jokalariek azken minutuetan, baina zapatuan ez. Ondo kudeatu zuten abantaila eta bukaerarako geratzen ziren minutuak, eta zaleekin ospatu

FITXA TEKNIKO

Natra Oñati: Iagoba (11), Ales, Ander (4), Iñigo (9), Beñat (3), Eneko (3), Asier (12), Gorka (16), Biain (7), Ibai, Gartzia (17) eta Imanol (6).

Deportes Ferrer: Sanfrutos (10), Urtasun (23), Pardell (9), Gonzalez (9), Gomez, Laborda, Rodriguez (4), Lopez, Ruiz (7), Gartzia (4) eta Molina.

zuten. Gainera, errioxarrekin aldeko averagea dute orain.

Bost lehia, bost final geratzen zaizkie oñatiarrei EBAn jarraitzen duten jakiteko.

LEHEN NAZIONAL MAILA

Irabazten bukatu du lehen fasea Mondrago Unibertsitateak

Josu Larreategiren mutilek Seky.es taldearen kontra irabazi egin zuten Iturripen 78-64

M.B. | ARRASATE

Mondrago Unibertsitateak irabazten bukatu du lehen fasea. Zapatuan Seky.es taldearen kontra irabazi zuen Iturripen: 78-64.

Partidua zaila zen MUrendako, jokalaria gutxi zituelako—bederatzi bakarrik—eta Seky.es taldea indartsua delako. Dena den, gogoarekin eta jokaldi guztietan borrokatuz irabazi egin zuten.

Azken arte atzetik

Hasierako minutuetan bi taldeetako erasoak defentsak baino indartsuagoak izan ziren, eta baloi asko galdu zituzten. Etxekoek berehala kontrolatu zuten



Muko jokalaria saskira jaurtitzeko gertu. | JULIO CALLEJA

jokoa eta 10-0ko partziala eginez, aurretik ipini ziren markagailuan. Bigarren laurdenean Seky.es-ek jokatu zuen hobeto eta taula azpian min handia egin zuen. MUK ondo defendatu zituen kanpotarren piboteak. Atsedenean gauzak oso garbi zituen MUren entrenatzaileak: baloia azkar mugitu erasoan, eta piboteak taula azpitik mugiarazi. Aginduak beteta, hirugarren tarte polita jokatu zuten arrasatearrek, bederatzi puntu atzetik egon arren. Laugarren tarte hiru puntuko hiru saskiratze egin zituen MUK, eta buelta eman zion partiduari.

Orain bigarren fasea prestatzen hasiko dira arrasatearrek.



GOIENA

IMANOL ZEZIAGA
JOKALARIA

"Oñatin jokatzeko polita da, eta lagunekin bada, gehiago"

EBAn esperientzia du, eta nabari zaio kantxan. Natra Oñatirekin hirugarren partidua jokatu zuen zapatuan.

Aise irabazi duzue gaur.

Bai. Bigarren laurdenean zabaldu dugu tarte markagailuan, eta hori mantentzea lortu dugu. Beti egon gara hamar puntu gaineratik. Ez da erraza izan. Dena den, laugarren tarte markagailuan hurbildu direnean, nahiko lasai jokatu dugula esango nuke.

Hiru partidu jokatu dituzue Natra Oñatirekin. Gustura zaude?

Oso gustura. Oñatira heldu aurretik, baneukan esperientzia EBA mailan, eta orain hori erakusten ahalegintzen nabil. Oñatin jokatzeko oso polita da, eta lagunekin bada—Kintana, Gamarra, Mallabi, Biain...—askoz gehiago.

Harritu egin zaitu zaleen erantzunak?

Bai. Banekien Zubikoa bete egiten zela, baina jakitetik ikustera, alde handia dago. Hunkigarria da zaleen erantzuna ikustea, taldea zuloan dagoela jakinda. Harmailak beteta ikustea polita da, eta asko eskertzen dugu.

SENIOR EMAKUMEAK

Eskoriatzako neskek irabazi egin zuten: 33-44

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako neskek irabazi egin zuten Tecnunen kontrako partidua 33-44, eta donostiarren aurretik ipini dira sailkapenean.

Partidua oso parekatua izan zen. Bi taldeek erakutsi zituzten euren ezaugarriak, baina Eskoriatzako neskek agindu zuten markagailuan hasieratik. Dena den, taula azpian jaurtiketa asko hutsegin zituzten.

Azken tartera arte ez zuten lehia erabaki. Defentsan sendo eta kontraerasoan ondo jokatu, abantaila zabaldu eta irabazi egin zuten.

TXIRRINDULARITZA

Imanol Iraolak irabazi du abiadura biziko eta ihesaldi askoko Soraluze Koop. Saria

Sumofic-Igartuako Julen Irizarrek eroan du herriko onenaren saria; Caja Ruralek talde onenarena

IRATI GOITIA | OSINTXU

Gazte mailako 129 txirrindulari elkartu ziren zapatu arratsaldean Osintxun, denboraldiko lehen lasterketarako (Soraluze Koop. Saria). Ohikoan baino gehiago, izan ere, kanpotik ere etorri ziren: Santanderetik, Frantziatik, Bizkaitik eta Arabatik, besteak beste. Beraz, antolatzaileak pozik.

Ziztu-bizian

Negua luze egin zaie txirrindulari gazteei, antza. Izan ere, lehiarako gogotsu irten ziren lehen unetik. Hasiera-hasieratik jarri zuten erritmo bizia eta uneoro izan ziren ihesaldiak. Horietako protagonista, talde guztietako txirrindulariak, baita geureta-koak ere. Hala, esaterako, Sumofic-Igartua taldeko Etxabe anaia bikiak saiatu ziren ihes egiten, baita Dorletako Amako Jon Ander

Kortabarria lehen itzulian eta Asier Uroz bigarrenaren. Gainerakoek baina, azkar harrapatu zituzten.

Elgoibartik bueltan

Azken itzulian, Osintxuko helmugara iritsi aurretik, Elgoibartik egin zuten buelta eta hor erabaki zen lasterketa. Hamar kilometroren faltan, tropela zaitu egin zen eta bi lasterkari gelditu ziren aurretik: Imanol Iraola irabazlea eta Vincent Loustau bigarren egin zuena. Horien atzetik, oso gertu, beste taldetxo bat egin zen, baina ezin izan zituzten aurretik zihozten biak harrapatu. Hamarreko talde horretan zihozten Caja Ruraleko Iker Azkarate iritsi zen hirugarren Osintxun kokatutako helmugara. Bere aurretik iritsitako Iraolak eta Loustauk esprint



Imanol Iraola besoak jasota eta garrasi baten helmugara sartzen. | IRATI GOITIA

polita jokatu zuten eta lehena gehiago izan zen.

Taldeka onena Caja Rural izan zen; nesketan Dorleta Eskamendi eta herriko onena Sumofic-Igartuako Julen Irizar.

Sentipen gaziak eta gozoak

Lasterketaren amaieran gure taldeetako txirrindularien impresioak jaso genituen. Bada, Dorletako Amako Gaizka eta Mikel Belokiri zaila egin zitzaizkien: "Erritmo handikoa izan da. Gazte mailako lehen urtea dugu eta ez gaude honetara ohituta. Gaurkoak kategoria honetako maila ikusteko balio izan digu".

Ulma taldeko Iñaki Mugarza, bestalde, pozik zen: "Ibili gara ihesaldietan eta amaieran, lehen taldean sartzea lortu dut, hala, 1'24"ra sartu naiz". Sumofic-Igartuakoak ere pozik zeuden. Lan ona egin zuten, adibidez, Julen Irizarrek eta Asier Taboadak.

IMANOL IRAOLA | TXIRRINDULARIA

"Lasterketa oso azkarra eta gogorra izan da, azken metroetan nagusitu naiz"

Pozik zaude lortutako garaipenaz?

Oso gustura. Gainera, 18 urte betetzen ditut gaur, eta, beraz, zorion bikoitza. Denboraldia ezin-hobeto hasi dudala esan dezaket.

Nola joan da gaurko lasterketa?

Txirrindulari asko geunden irteera puntuan eta maila ona zen. Ondorioz, oso azkar irten gara hasiera-hasieratik. Gainera, nahiko ibilbide laua ere bada, eta horrek asko bizkortu du lehia; 41Km/h-ko batz-beste-koa egin dugu. Beraz, gogorra izan da.



Imanol Iraola. | I.G.

Noiz jo duzu ihesaldia?

Osintxura lehen aldiz igo garenean, azkar jaisten saiatu naiz eta hor egin dut ihes, baina berehala harrapatu nauten. Talde bat egin dugu eta aurrera jarraitu dugu.

Helmugara garrasi eginez sartu zara.

Bai, ikaragarri hunkitu naiz. Frantses batekin heldu naiz azken metroetara eta esprintean bera baino gehiago izan naiz. Oso pozik nago lortutakoarekin; senitartekoei eta entrenatzaileei eskaini nahi diet garaipena.

Fernando Grijalda afizionatuetan lehena

Atzo, domeka, hasi zuten afizionatuek denboraldia Soraluzen eta Fernando Grijalda Caja Ruraleko txirrindularia izan zen azkarrena. Azken kilometroetan erabaki zen dena; 25 kirolarik osatutako taldeak aurrera jo zuen eta Grijalda izan zen hoberena. Talde horretan sartu zen Mikel Aristi bergararra, 13. iritsi zen helmugara. Hasiberrien artean lehena izan zelako, saria jaso zuen.

ESKUBALOIA

Ford Mugarri igoera fasea jokatzeko sailkatu da jada

Arrasatearrek Romo talde indartsuari etxean 32 eta 22 irabazi ostean eskuratu dute txartela

I.G. | ARRASATE

Romo talde bizkaitarra hartu zuen Ford Mugarri zapatu arratsaldean Musakolan. Partidu zaila aurreikusten zen, parekatua, baina uste baino errazago irabazi zioten arrasatearrek bizkaitarrei.

Defentsan hobeto

Berdintsu hasi zioten lehiari bi taldeek, indarrak parekatuta. Batek gola egin, baita besteak ere. Hamargarren minututik aurrera baina, Herreroren mutilak hobeto defendatzen hasi ziren eta hor lortu zuten errenta. Atsedendira bost goleko aldeaz joan ziren (15-10).

Bigarren zatian ere ondo ekin zioten etxekoek eta euren atea ondo defendatu zuten aldea handituz (22-16). Erasoan baina, egin

zituzten hutsegite bat edo beste eta kanpotarrek aldeak murriztu zituzten. Amaiera aldera, berriz lortu zuten lehiaren kontrola berreskuratzea etxekoek eta markagailuan ihes egin zuten (32-22).

Igoera fasea

Ane Herrero entrenatzailea oso pozik zen norgehiagokaren ostean, izan ere, helburu bikoitza lortu zuten: irabaztea eta igoera fase-rako sailkatzea. Romo hamaika puntura zuten arrasatearrek eta zapatuan irabazita hamahirura utzi dute; denboraldia bukatzeko, berriz, 10 puntu gelditzen dira jokoan soilik. Beraz, lehen mailara igotzeko txartela eskuratu dute bost partiduren faltan.



Romokoak Andoni Bernalen eraso gelditu nahian. | JULIO CALLEJA

ESKUBALOIA

Soraluce BKEk galdu egin du Egia Kataren aurka

I.G. | ARRASATE

Zapatu arratsaldean jokatu zuten bergararrek Egia Kataren etxean eta itxura txarra eman zuten. Lehen zatian oso makal ibili ziren Muniategiren mutilak eta hala, 21 eta 14 galtzen joan ziren atsedendira.

Bigarren zatian ere ez ziren fin ibili euren atea defendatzeko orduan bergararrak, eta etxekoak lasai ibili ziren erasoan. Horrenbestez, 12 goleko abantaila ere lortu zuten Egia Katako mutilek. Mahoneroek baina, erreakzionatu eta joko ona egiten hasi ziren; defentsan hobeto eta erasoan asmatuz; bost golera murriztu zuten aldea. Markagailuari buelta emateko beranduegi esnatu ziren bergararrak orde. Hala, 42 eta 35 amaitu zen norgehiagoka.



Aloña Mendiko txirrindulariak eta arduradunak atzo, domeka, Etxe Aundi jatetxean egin zuten aurkezpenean. | JULIO CALLEJA

TXIRRINDULARITZA

Aloña Mendiko ziklistak, onena emateko prest

Atzo, domeka, egin zuten taldeko txirrindularien aurkezpena Etxe Aundin

IRATI GOITIA | OÑATI

Hogeita bi txirrindularik osatutako taldea aurkeztu zuen Aloña Mendik atzo goizean Etxe Aundi jatetxean. Zehazki, bost alebinek,

bederatzi infantilek, lau kadetek eta beste lau jubenilek eratzten dute. Aurten, iaz baino neska bat gehiago dute euren artean; hiru guztira (denak infantiletan).

Talde guztiak aurkeztu zituzten, txirrindulari bakoitzaren izenak banan-banan esanez. Ondoren, talde argazkiak atera zituzten. Guraso dezente bildu zen

euren seme-alabei erretratuak ateratzeko.

Pedro Irurzun presidentek adierazi zuen: "Ilusio handia dute denek. Txikienak indar askorekin datoz, gainera. Lasterketa askoko denboraldia izango da".

Lasterketak, Oñatin

Alebin eta infantilek herrian bertan ekingo diote denboraldia-ri martxoaren 31ean. Beste lasterketa batzuk ere izango dituzte Oñatin: Arantzazuko Igoera (maiatzak 12), Gipuzkoako Txapelketa (ekainak 2), San Migel Saria (irailak 8) eta Oñati Saria (irailak 22).

ALOÑA MENDIKO TXIRRINDULARIAK

ALEBINAK

1. Iñaki Alonso
2. Ander Blazquez
3. Josu Gartzia
4. Aitor Tatiegi
5. Mikel Unzurrunzaga

INFANTILAK

1. Leire Aranburu
2. Irati Barrena
3. Ander Gartzia
4. Andoni Guridi
5. Unai Inza

ENERITZ LIZARRALDE

XABIER MURGIONDO

BEÑATI ORMAETXEA

EKAITZ TXINTXURRETA

KADETEAK

1. Xabier Aiastui
2. Iker Alberdi
3. Beñati Azkoaga
4. Julen Umerez

GAZTEAK

1. Unai Arabaolaza
2. Iker Arkauz
3. Mikel Fernandez
4. Iñaki Mugarza

TRIALSIN

Aitor Murua aretxabaletarra lehena izan zen gazte mailan eta Unai Zunzunegi, hirugarren

Zortzi aldiz munduko txapeldun den Benito Ros txapelketa ikusten izan zen

UBANE MADERA | ARETXABALETA

Gipuzkoako trialsin txapelketako hirugarren proba jokatu zuten atzo, domeka, Aretxabaletan. Sei mailatan sailkatuta, 40 lehiakide izan ziren mendian eta paretetan gora eta behera oreka ariketarik egiten bizikleta gainean. Eta maila guztietako irabazleen artean, bailarako bi sailkatu ziren hurrengo kanporaketa jokatzeko: Aitor Murua eta Unai Zunzunegi aretxabaletarrak. Tolosan dute hitzordua, 15 egun barru.

Aretxabaletako probako gainerako irabazleen artean, berriz, bost bider munduko txapeldun izan den Jon Areitio nagusitu zen elite mailan. Eta besteak beste, Irene Caminos gailendu zen nesketan.

Jende gutxi, baina izen handia

Lehia ikusten jende gutxi izan zen, "euriak goibeldu zuen proba", Arantza Gartzia, Euskaltrial elkarteko kideak kontatutakoaren arabera. Baina, ikusle horien artean, izen handikoak izan ziren, zortzi bider munduko txapeldun den Benito Ros tarteko.



Txapelketako parte-hartzaile bat beroketa ariketarik egiten. | JULIO CALLEJA



Gazte bat probako hirugarren gunea egiten. | JULIO CALLEJA



Ziklista bat bigarren gunea bukatzen. | JULIO CALLEJA

SASKIBALOIA

Iagoba Gamarra | Natra-Oñati saskibaloitaldeko jokalaria

"Zaleei apur bat ematen diegunean erantzuna sekulakoa izaten da"

- ▶ Iagoba Gamarra da bailarako saskibaloitaldeko jokalaria beterranoetako bat
- ▶ Arrasateko klubeko urte onenak bizi izan ditu, eta orain, Oñatikoak

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Saskibaloian bailarako beterranoetako bat da Iagoba Gamarra (Aretxabaleta, 1977), Ander Mallabirekin eta Iñigo Biainekin batera. Hirurek jokatzen dute talde berean, Natra Oñatin, eta hirurak datoz Arrasateko taldetik, han urte ederak bizi izanda. Oñatira joateak hautsak harrotu zituen Arrasate aldean, baina iraganeko kontuak dira horiek. Gamarrek saskibaloiaz gozatu eta sufritu egiten du, biak batera. Sufritu EBA kategoriak hala agintzen duelako, eta gozatu ondo dakielako kirol ibilbidea ez dela amaigabea; lesioek baimena emanda sasoiaren dagoen kantxan inork baino gehiago disfrutatzen du. Baita hamabost egunetan behin Zubikoako harmailak beteta ikusten dituen ere.

Aspaldian ez zaitugu bakarkako elkarriketa baterako harrapatu. Arrasaten egindako azken urteotan erretiroa zenuen buruan, eta hara, Oñatin bigarren gaztaroa bizi izan duzu.

Kuriosoa da, baina fisikoki 26 urterekin baino hobeto nago. Gaztetan arazo handiak izan nituen orkatilan, eta ebakuntza handi samarra egin zidaten. Orain modan jarri dira norberaren plasma erabilita egiten diren ebakuntza eta ondorengo errehabilitazioak, eta niri aspaldi egin zidaten hori, teknika hori probatzen zebiltzan. Eta begira, emaitza onak eman zituen.

Bai, Arrasaten jokatzen nabilela hainbatetan pasa zitzaizkan burutik saskibaloia uztea, eta aurrera egin ahal izan nuen. Orain orpoak egiten dit min, baina... [Barre].

Arrasaten ez zenuten nahi moduko agurra izan.

Ez, baina iraganeko kontuak dira horiek. Arrasateko klubak bere arazoak izango zituen hartutako erabakia hartzeko, eta gure bigarren entrenatzaile zen Xabi



Iagoba Gamarra, egubakoitzean, Arrasaten. | XABIER URTZELAI

Igartuak Oñatira joatea proposatu zigunean ez genuen birritan pentsatu. Alde horretatik ez dut kontzientzia arazorik. Dena dela, Arrasateko taldeko ordezkariekin harreman oso ona dut, lagunak ditut han, besteak beste, kirol zuzendaria, Gorka Zurutuza; lagun mina dut.

"Garbi daukat ez garela maila honetako talderik txarrena"

Talde zuri-morean egindako urteen artean, ze oroitzen geratzen zara?

EBAra igotzeko Gasteizen UPV Alava taldearen kontra irabazi genuen partidu erabakigarria; aste barruan jokatutako partidu bat izan zen Zurutuza entrenatzaile zela, ederra izan zen bai garaipena, baita ondoren etorri ziren ospakizunak ere.

Arrasateko klubeko urrezko urteak ere bizi izan zenituen.

Bai, orduko EBAn jokatu genitueneko urteak [1994an igo zen Arrasateko taldea EBAra, orduan kategoria hura ACB mailaren aurrekoa zen]. Baina sasoi hark oso gazte

harrapatu ninduen, hamazazpi urte izango nituen eta orkatilan ebakuntza egin berri. Ez nuen batere gozatu, baina izugarri ikasi nuen sasoi hartan asko entrenatzen genuelako.

Puntako jokariak izan zenituen taldekide moduan.

Pentsa, EBako bigarren urtean

"Entrenatzaile guztietatik ikasi dut zerbait, aitarengatik hasita"

ACBra igotzeko igoera fasea jokatu genuen. Iturripeko kantxatik pasa ziren Fuenlabrada, Pamesa edota Huelva moduko taldeak. Urte haietan Garbajosa, David Scott, Cazorla, Iñaki Gomez, Alvaro Coca... Jokalari handiak izan dira.

Ze jokalarik harritu zaitu gehien?

Duda barik Garbajosa iritsi da urrunen, NBAraino iristeko gauza izan delako. Baina momentu hartan David Scott beste maila bateko jokalaria zen. Izen horiekin batera, baina, urte mordoa egin ditut Mallabi, Iñigo eta Mikel Biain, Alartzia, Kintana eta konpainiarekin, eta niretako horiek izan dira garrantzitsuak, koadrila moduko bat osatu genuelako.

Oñatira joan zinetenean senior mailan zegoen taldea. Eta Oñatin saskibaloitaldeko iraultzaile testigu eta erantzule izan zarete.

Bai, baina ez Arrasateko Oñatira joan ginen hiruzpalau lagunak, taldean zeuden Oñatiko jokariak ere erantzule izan dira. Urte ederak izan dira, hori da egia.

Arrasaten urrezko urteak amaitzean kolpe gogorra etorri zen, lagun talde bat ia zerotik lanean hasi zen arte. Gora eta gora egiteak arrisku hori izan dezake.

Arrasaten lehenengo taldean jarri zen indar guztia, eta harrobia neurri batean alde batera utzi zen. Lehenengo taldea desagertu zenean, ondoren ez zetorren ezer, bertakoak beste talde batzuetara jokatzen joanda zeudelako. Baina Oñatin ez dut ikusten halakorik; saskibaloitaldeko egitura bat antolatuta dago, eta maila txikiengan gazte mordoa dabilta jokatzen. Oñatiko jokariarekin bakarrik ezin zaio EBA moduko maila bati eutsi, baina maila galtzen den egunetan ez da traumarik egongo.

Etxeko azken garaipena garrantzitsua izan zen.

Bai, zaleekin zorretan geundelako, 15 egunetan behin harmailak bete egiten direlako, eta hori sekulakoa da. Jokalariok presioa astintzeko modua ere izan zen. Horrek erakusten du Oñatin saskibaloitaldearen handia dagoela, asko dira eta Baskoniaren partiduak ikustera joaten direnak. Zaleei apur bat ematen diegun bakoitzean erantzuna sekulakoa izaten da.

Oraindik posible da mailari eustea? [Egubakoitzean egindako elkarriketa da].

Garbi daukat ez garela maila honetako talde txarrena. Zapatukoa derrigor irabazi behar dugu, eta ondoren ere oso zaila izango da, baina posible bada.



Iagoba Gamarra, saskira botatzeko gertu. | JULIO CALLEJA



Gamarra Natra-Oñati taldeko argazkian. | JULIO CALLEJA



Duela urte batzuk, Kenci Arrasate taldean. | ARRASATE PRESS

Irensketa atipikoa: mihiaren kokapen okerra zuzendu behar da



Haurra, mihia erakusten. | ALVHERRE

Maiden Egino logopedak eman dizkigu azalpenak 'Guraso.com' atarian

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Haur askok izaten duten gaitza omen da irensketa atipikoa. Berez, irensterakoan mihiaren kokapena eta erabilera desegokia egitea da arazoaren iturri nagusia, baita ahoko arnasketa ere izan daiteke. Horrela azaldu du Maiden Egino logopedak *Guraso.com* atarian. "Haurren irensteko modua bi edo hiru urtera arte aldatzen

joaten da. Txikitik, haurtxoek xurgatze-irenste erreflexua izaten dute jaiotzetik; amaren edoskitzera egokitua (...), baina handitzen doazen heinean eta mota guztietako elikagaiak murtzikatzen eta irensten doazen heinean erreflexu hori alde batera gelditzen da. Irensketa atipikoa eboluzio prozesu horretan mihia aurrean mantentzean datza", azaltzen du

Eginok. Horrek hozkada desegokia, s letraren ahoskera desegokia edo arazo estetikoak sor ditzake. Irensketa atipikoa ahoko arnasketaren eraginaren ondorioz bada arazo handiagoak sor daitezkeela dio Eginok.

Ezaugarriak

Normalean dentistek eta logopedek detektatzen dituzte irensketa

atipiko kasuak. Eginok, baina, zenbait pista eman ditu gurasoendako. "Normalean murtzikatzen ari den bitartean mihia ikusten zaio etengabe haurrari", esan du. Gainera ezpainetako giharrek gehiegizko indarra egiten dute, janariak ihes egiten die ahotik eta irensteko orduan zarata egiten dute. Lepoak ere mugimendu berezi bat egiten du irensetan laguntzeko.

Mihiaren kokapena zuzendu

Irensketa arazoak dituzten haurrei sarri ortodontzia ipintzen zaie hozkada ez zuzena konpontzeko. Eginok ohartarazten du batzuetan mihiaren kokapen okerrak eragiten duela arazoa, eta kasu horietan beharrezkoa dela hori zuzentzea. Halako kasuetan, logopedaren parte-hartzea oso lagungarria izango da, duda barik.



Gazte bat, ikasten. | WOW_WA_COW

Emaitzek diote errepikatzea ez dela neurri eraginkorra

Irakurketa ugari 2011ko Ebaluazio Diagnostikoak emandako emaitzen inguruan

L.Z. | ARRASATE

2011n egindako Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzak argitaratu ditu ISEI Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak. Ikastetxe publikoetako eta hitzartuetako Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen gaitasunak ebaluatu ditu lau arlotan: matematika, euskara, gaztelania eta ingelesa. Hirugarren aldiz egin da ebaluaketa eta 2011n, aurreneko aldiz, ingelesa ebaluatu da.

Euskal Herriko gurasoen elkarte EHIGEk emaitzen irakur-

keta egin du, eta ateratako ondorio nagusien artean nabarmendu du desberdintasun handiak daukela sarean artean: "Eta desberdintasun horiek areagotzen ari dira urtetik urtera".

Segitzen dute nabarmentzen neskek orokorrean emaitza hobek lortzen dituztela hizkuntza kompetentzietan eta mutilek emaitza hobek dituztela matematiketan. Beste datu bat: emaitza hobek dira etxeko hizkuntza eta azterketarena berdinak direnean. Alde handiena matematiketan omen dago.

Eta argi nabarmendu dute ikasturtea errepikatzea ez dela aukera eraginkorra. "Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleek emaitza txarragoak izaten dituzte", adierazi dute.

Kritikak

Aztertutako lau gaitasunetan ikasleek lortutako puntuazioak gora egin du, baina hainbat sektoretatik kritikatu egin dute Eusko Jaurlaritzak emaitzak aurkezteko egindako irakurketa. Hain zuzen ere, 2011n egindako diagnostikoa 2009ko datuekin alderatu izana kritikatu diote datuak ezagutzera emateko ardur hartu zuen Isabel Zelaa Hezkuntza sailburuari. Euskararen arloan datuek bestelako errealtatea erakusten dutela ziurtatzen dute sektore horietatik, eta konparaketa 2010. urteko datuekin alderatu ez izana salatu dute.

British Council, proiektu baterako ikastetxe bila

L.Z. | ARRASATE

British Council erakundeak LHko eskolak behar ditu *Twin for 2012* proiektua garatzeko. Europa osoko eskolei dei egin die nazioarteko proiektu horretan parte hartzeko.

Twin for 2012 ekimenean izena ematen duten eskolei Britainia Handiko eskola bat egokituko zaie eta bi ikastetxeak senidetu egingo dira. Elkarlanean 2012an Londresen jokatuko diren Joko Olinpiar eta Paralinpiarren inguruko proiektu bat gauzatu dute. Programak hainbat ariketa eta informazio trukatzeko aukera emango die bi ikastetxeetako ikasleei, eta British Council erakundetik esan dute material ugari prest dutela dagoeneko. Bi ikastetxeen arteko hartu-emanak eta ikasleek egin beharreko ariketak Internet bidez egingo dira.

Ingelese

Ikasleek proiektu osoa ingelesez egingo dute, eta adin bereko ikasleekin trukatu dituzte informazioa eta ariketak. Aukera ona izan daiteke ikasleak hizkuntza horretan trebatzeko. Ikastetxe interesatuek, lehenengo eta behin, izena eman behar dute www.schoolsonline.britishcouncil.org atarian. Antolatzaileek eskolaren deskribapen txiki bat egiteko eskatzen dute.

Kidetzak 50.140 sinadura zaintza partekatuaren alde

30.000 sinadura behar zituzten proposamena Eusko Legebiltzarrerara eramateko, eta 50.140 lortu dituzte. Kanpaina horren bitartez Kidetzak ondorioztatu du euskal herritarren %90 zaintza partekatuaren inguruko legea babesten duela, "bereziki emakumezkoek eta 40 urtez azpiko herritarrek". Lege proposamena aurkeztuko dute orain.

Kirol hezkuntzari asteen bi ordu emateko eskaera Jaurlaritzari

Indarrean dagoen dekretua aldatzeko eta hezkuntzan asteen gutxienez gorputz hezkuntzako bi ordu arautzeko eskatu dio Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari. Proposamena aldeko 11 botorekin —EAJk 7, PPK 3 eta Aralarrek 1—, eta aurkako seirekin—sozialistenak guztiak— onartu da. SOHAT eta COLCAFID pozik agertu dira.

Ipuinak aukeratzeko eta kontatzeko gomendioak Arrasaten

Bularretik mintzora egitasmoaren barruan Pello Añorgak Arrasaten egitekoa zuen eta atzeratu zen tailerra martxoaren 15ean, 21ean eta 22an egingo dela jakinarazi dute antolatzaileek. Ikastarora doan da 0-6 urte bitarteko haurren gurasoendako, eta plazak mugatuak dira. Izen-emate orriak Kulturateko sarreran eskatu behar dira.



KULTURA



Amaia Pascual eta Miren Gaztañaga aktoreek Maider labar akrobataren laguntza dute taula gainean. | JULIO CALLEJA



Bideo jokoaren erabilerak marraren alde batean edo bestean kokatu zaitzake

'Ilargiaren bi aldeak', zapatuan Amaia antzokian: hausnarketarako eta gozamenerako antzezlan

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Bideo jokoak eta jolas birtualak gero eta indar eta presentzia gehiago hartzen ari diren garai honetan hausnarketa interesgarria proposatzen digu Hika antzerki taldeak; bideo jokoaren eta betiko jokoaren arteko borroka ekarri dute aste bukaera honetan Arrasateko Amaia antzokiko taula gainera.

Bi mundu zeharo ezberdinak dira, ilargiaren bi aldeak. Marra argi batek bereizten ditu eta marra horren alde banatan kokatu dituzte bi ume. Batak ezin du begirada bere makinatxo kuttunetik altxatu eta gerra irudikatuzera jolastea gustatzen zaio. Beste aldean dagoen umeak berriz, jolas egin beharra dauka gerra ahaztu ahal izateko, jolasa

barik bere errealitatea izan delako gerraren zarata eta burrunba. Horregatik bideo jokoak horrenbeste gustatzen zaizkion laguna xaxatu egingo du begiak makinatik altxatu eta berarekin jolas egin dezan: uztai bat bolante bihurtzera jolastuko dira batean, baloi baten gainean eseri eta zaldian edo motorrean ibiltzera bestean, eta bi makilarekin tren

bat irudikatuko dute hurrengoan. Izan ere, bide jokorik ez, baina irudimena galanta dauka ume honek.

Eszenaratze ikusgarria

Istoria sakona eta ederra da, baina istorioa kontatzeko modua are ederragoa da. Kontakizuna *off*-ean doa eta hitzek baino indar handiago dute keinuek eta mugit

menduak. Amaia Pascual eta Miren Gaztañaga aktoreek lan izugarri ona egiten dute, dantzaren eta pantomimaren bidez bi haurren arteko harremana irudikatuzeko.

Hirugarren pertsonaia baten laguntza ere badute taula gainean, akaso umeen atentzioa gehien deitzen duen pertsonaia. Bi haurrekin batera jolasean, dantzan edo korrika ibiliko da, baina airean; oihaletatik edo soketatik zintzilik txundituta uzten ditu txikitxoek Maider labar aktore eta akrobatik.

Zirkua, dantza eta antzerkia uztartzen dituen antzezlanak, ikusle gutxi izan zituen arren, txalo zaparrada jaso zuen zapatuan Amaia antzokian. Ikusle gehienek bi hitz errepikatu zituzten: ikusgarria eta desberdina.


Alde batean edo bestean?

Agurtzane Intxaurre eta Arantxa Iturbek idatzitako lana da *Ilargiaren bi aldeak* eta Intxaurrek dio hiru ume izanda, etxean sortutako arazoetatik datorrela gaia lantzeko ideia. Marraren zein aldetan kokatu bakoitzak erabaki behar duela dio.



ASIER OSINAGA
OÑATI

"Oso polita izan da, ikustera ohituta gauden antzezlanen oso bestelakoa. Dantza, zirkua... eta istorio polita atzean; txikitxoek ulertzeko agian apur bat konplikatu, baina bestela oso entretenigarria izan da".



MIKEL ARANBURUZABALA ETA AINHOA AIZORREGI
ARRASATE

Mikel eta Ainhoa oso pozik irten ziren Amaia antzokitik eta aretoaren kanpoko aldean harrapatu genituen antzezlanaren gainean berbetan. "Oso antzezlan polita izan da eta asko gustatu zaigu", esan ziguten biek. Dena dela, gehien gustatu zitzaizkien gainean galdetuta iritzi desberdina azaldu zuten. Mikeli "borrokaren momentua" gustatu zitzaion gehien eta Ainhoari berriz, "soka eta oihaletan gora eta behera ibili den gimnasta" gustatu zitzaion.



ENERITZ OSINAGA
OÑATI

"Askok gustatu zait. Atentzioa eman dit atzeko aldean soka gora eta behera ibili den gimnastak. Istoria ere gustatu zait; ume bat bideo jokoari begira zegoen denbora guztian eta besteak jolas egin nahi zuen".

Iñigo Ibarrodo, Egoitz Olalde eta Mikel Zarketa *Puntu baten elkartzen diren ertzak* diskoaren aurkezpen kontzertuan | MIKEL AGIRRE

KRONIKA

Sharon Stoner berriz ere errepidean

ANDER MONEDERO | OÑATI

Urte eta erdi itxaron behar izan dute Sharon Stonerren zaleek taldea berriz ere oholtza gainean ikusteko. Zale batzuei luze egingo zitzaion itxaronaldia, baina beti bezala, emanaldi bizia eskaini zuen talde oñatiarrak. Gainera, urte eta erdi horretan ez dira geldirik egon, disko berria grabatu baitute, *Puntu batean elkartzen diren ertzak*, eta zaleen

aurrean grabaketa berria defendatzen zuten lehenengo kontzertua izan zen egubakoitzekoa.

Aurretik, baina, Gasteizko Trumbo taldea izan zen Gaztelekuan. Esperientzia handiko musikariek osatzen dute Trumbo, besteak beste, Vicepresidentes, Sorkun eta Neubat taldeetan ibilitako musikariak baititu. Stoner-rock emanaldi zuzen eta gordina eskaini zuten, gitarra *riff* gogorrez josia.

FITXA

MUSIKA

SHARON STONER ETA TRUMBO

Generoa: Rock, Grunge, Stoner.

Non: Oñatiko Gaztelekuan.

Eguna: Egubakoitza, otsailak 24.

Iraupena: 3 ordu inguru.

Gero, oñatiarren txanda iritsi zen. Kontzertuaren lehenengo zatian, lan berriaren abestia jo zituzten, besteak beste, *Gogoan*, *Jauzi* edo *Zeure ezpainak laztandu gabe* abestiak.

Gero, taldearen lagun eta zaleei eskerrak eman zizkieten urte guzti hauetan emandako babesarengatik.

Etenaldi horren ostean, Sharon Stonerrek aurreko diskoetako abestiak jo zituzten. Momentu horretan, taldearen zaleak musika entzuteaz gain, kantuak abesten eta dantzatzen hasi ziren, besteak beste, *3 mila bira* eta *Rocky never dies* taldearen abesti klasikoak. Emanaldi bukaeran

zaleak pozik Sharon Stonerren itzulerarekin.

Martxoaren 28an Arrasaten

Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan Sharon Stonerrek kontzertua eskainiko du Arrasateko Gaztetxean. Martxoaren 28, asteazkena, izango da emanaldia, izan ere, martxoaren 29rako euskal gehiengo sindikalak deitutako greba orokorrarekin bat egin du antolakuntzak eta kontzertua egun bat aurreratzea erabaki dute. Beraz, *Puntu bakar batean elkartzen diren ertzak* izeneko diskoaren aurkezpen kontzertua egun bat lehenago izango da, martxoak 28, eguaztena.



'La Bohème' operako pasarte bat. | GOIENA.NET

Puccini-ren 'La Bohème' opera Amaia antzokian

Sarrerak 25 euroren truke salgai daude Kutxako kutxazain automatikoetan eta Arrasate Musikalen

A.M. | ARRASATE

Gurean badira opera zaleak, horren dudarik ez dago. Opera entzutera hara eta hona ibiltzen direnak ere badaude. Oraingoan, baina, bertatik bertara *La Bohème* opera entzutetsua ikusi eta entzuteko aukera egongo da

gurean. Arrasateko Ozenki elkar- teak antolatu du emanaldia. Martxoaren 1ean, eguna, izango da Amaia antzokian, 20:00etan.

Sarrerak 25 euroren truke jarri dituzte salgai Kutxako kutxazain automatikoetan, eta, baita ere Arrasate Musikalen. Pucci-

niren lana Henry Murger idazlearen *Scenes de la vie de bohème* testuetan oinarrituta dago. Hain zuzen ere, 1840ko Parisen oinarritzen da lana. "Urte haietako Paris irudikatzen du: Rodolfo, Mimi eta Marceloren arteko harremana. Opera gehienak tragikoak izaten dira, kasu honetan bezala. Eguneroko bizitza irudikatzen du: maitasuna, gaixotasuna, poesia... *La Bohème*ren musika izugarri polita da, ezagutzen diren pasarte garrantzitsuenak eta ezagunenak dira", azaldu du Manu Gallardo Ozenki elkarteko kideak.

Lau ekitaldi izango ditu operak. Lehenengo eta laugarren ekitaldiak Murgerren idatzietan oinarritzen dira ia osotasunean, eta bigarrena eta hirugarrena Giacosa eta Illica idazleek asmatutakoak dira. Ikuskizunak bi ordu eta 40 minutu inguru iraungo du eta bigarrenaren ekinaldiaren ondoren atsedena izango du.

Opera 2001 enpresak ekoizten du ikuskizuna eta Ozenki elkar- teak eta Arrasateko Udalak esfortzu handia egin dute opera herri- ra ekartzeko, izan ere, kostu ekonomiko handia du.

Xabi eta Pettik euren lehen lana aurkeztuko dute egunean Arrasateko gaztetxean

A.M. | ARRASATE

Kooltur Ostegunak barruan, martxoko lehenengo kontzertua Xabik eta Pettik egingo dute. Esperientzia handia duten bi musikari horiek urtebete inguru dela hasi ziren elkarrekin jotzen, eta 2011eko abenduan kaleratu zuten lehenengo lana. Rock & roll klasikoko eta blues bertsioak formatu akustikoan jotzen dituzte zuzenean, eta lehen lana ere horretan oinarrituta dago.

Zortzi abestiz osatutako diskoa da *Xabi eta Petti* izeneko, horietatik zazpi bertsioak. Freddie King, Willie Nelson, eta Ray Charles dira bertsionatu dituzten abeslarietako batzuk. Nabarmenezkoa da, besteak beste, Humple Pie taldearen *Every Mother's Son* abestia. Beñardo Goienetxeak euskaratu du, eta Xabik euskaraz abesten duen kantu bakarra da hori.



Petti eta Xabi Oñatiko Antton tabernan. | JOSETXO ARANTZABAL

Iker Valle ikusleari mundura egiten dio gonbita

Egubakoitzean ireki zuen artistak erakusketa Bergarako Aroztegi aretoan eta dagoeneko 300 lagun pasa dira asteburuan bertatik, bere lanak ikusteko

IRATI GOITIA | BERGARA

Egubakoitzean, Iker Valleren erakusketa ireki zuten Bergarako Aroztegin. Artista bera izan zen aretoan, bertaratu ziren ikusleei harrera egiten.

Istorioen ibilbidea

Erakusketa tamaina handiko hamaika lanek eta txikiko zortzik osatzen dute. Handiek Xabier Agirrek idatzitako istorio bana

dute. Hala, kontakizunen ibilbide bat egitera gonbidatzen zaituzte Valle artistak eta Agirre idazleak. Idatziek munduko gertaerak islatzen dituzte, baina Agirrek halako goxotasunez idazten ditu hitzak, obren interpretazioa erabat samurra dela.

Hiru dimentsiotan

Teknika nahasiarekin eginiko lanak aurkeztu ditu Valle. Sakon-

tasuna duten obrak dira, izan ere, dimentsioarekin jolasean ibili da artista. Hala, bere lanak badu eskulturaren zantzu bat. Bestalde, akrilikoan eginiko lanak ere badira. Kolore bizien nahasketa zoragarria egiten du Valle horietan.

Asteburuan 300 lagun inguru pasatu dira Aroztegitik erakusketa ikusteko. Martxoaren 11ra arte izango da ikusgai.

IKER VALLE | ARTISTA

"Ez da erakusketa soil bat, istorioz osatuta dago-eta; ez du inor axolagabe utziko"

Nola joan da erakusketaren irekiera ekitaldia?

Jende dezente etorri da eta oso pozik gelditu naiz, izan ere, uste dut jendeak gustuko izan dituela nire obrak.

Lan handiek istorio bat dute, zertan oinarritu zarete horiek idazteko?

Istorioek printzipioz, ez dute erlazio zuzenik obrekin. Hainbat gai lantzen dira, esaterako: Arabiako udaberria edo emakumeen egoera. Xabier Agirre andoaindarrak idatzi ditu eta nik hasieran azaldu nion zertan pentsatzen egin nituen obrak. Hala ere, ez da kasu guztietan horrela izan; berari utzi nion bidea zabalik, ez nion bere sormenari mugarik jarri nahi. Izan ere, lan baten aurrean bakoitzak ikusten duena ezberdina da. Egia esan, Agirrek asmatu du; atera den nahasketa oso interesgarria da. Azkenean, lortu nahi genuena zen ez izatea erakusketa soil bat, zeinetan koadroak bakarrik erakusten diren eta ikusleak egiten duen bakarra aretoan sartu eta atera den. Obrek beti sortzen dute zirrara edo inpresio jakin bat, baina era honetan, beste lotura mota bat sortzen da.

Gustura irakurtzen al ditu jendeak kontakizunak?

Bai, gauza kurioso bat ere gertatu zitzaidan egubakoitzeko aurkezpenean: pertsona bat hurbildu zitzaidan eta esan zidan hasieran nahiko luzeak iruditu zitzaizkiola azalpenak, baina behin irakurtzen hastean, denak irakurri zituela bata bestearen atzetik. Beraz, pozik nago. BEARTEkoak ere etorri ziren eta haiei ere gustatu zitzaizen proposamena.

Lan abstraktuak dira Aroztegin jarri dituzunak.

Bai, gehienbat abstrakzioa lantzen dut. Teknika horretan prozesuak era-



Iker Valle. | J.C.

maten zaitu emaitza batera edo bestera. Bilaketa pertsonala dela esan daiteke; koadroarekin mantentzen duzun elkarriketa edo solasaldi horrek adierazten dizu zer egin. Azken batean, mihise baten aurrean zaudenean, erlazio bat mantendu behar duzu egiten ari zaren lanarekin.

Zergatik joan zure lana ikustera?

Herritarrei, printzipioz, esango nieke lasai eta denborarekin joateko erakusketa ikustera. Jendeak izan ohi du obra ulertuko ez duen aurreiritzia eta hori gainditu eta lasai gozatzea joateko esango nieke. Izan ere, ez dago ulertzeko beharrik. Ulertzen ez ditugun gauza asko gustatzen zaizkigu eta ez ditugu zalantzan jartzen. Nire obra, batzuei gustatuko zaie eta besteei ez, baina ez du inor axolagabe utziko; beraz, guztiei sartzeko gonbita egiten diet. Gainera, istorioen bitartez une atsegin bat sortzen da; norberaren interpretazioaren arabera mundu batera edo bestera joanez. Azkenean, erakusgai ditudan lanak nahiko anitzak dira; ez dute ildo zehatzik jarraitzen, norberak bere bizipen eta izaeratik egin behar du lan bakoitzaren interpretazioa.



Helduak zein umeak pasatu dira Aroztegitik Iker Valle artistaren lanak ikustera. | JULIO CALLEJA

Aramaioko Marixeka taldeak irabazi du koadrilen arteko bertso txapelketako derbya

Martxoaren 11n Araian jokatu da Aramaion ospatuko den finalerako txartela

ARRITXU BARRUSO | ARAMAIO

80 lagun inguru elkartu ziren zapatu gauen Aramaioko San Martin Eskolako jantokian Arabako koadrilen arteko bertso txapelketaren kanporaketaz gozatze-ko. Derby handia izan zen eta aurreikusitako moduan giroa itzela izan zen; Aramaioko Marixeka eta Aramaioko Izarrak taldeek saio polita egin zuten, baina finalerdietarako txartela talde bakarrak eskuratu zezakeen eta Aramaioko Marixekarendako izan zen.

Mozorro artean hasi zen gaua

Bat-bateko saioaren aurretik baina, bertso idatzien modalitatea jokatu zen eta saioak iraun zuen bitartean barre algarak, adar-jotzeak eta txantxak etengabeak izan ziren. Ai Ene eta Aramaio Tropikala Gazte Asanblada taldeek lan bikaina egin zuten, eta bertso politikak abesteaz gain eszenaratze txukuna, landua eta dibertigarria



Idatzizko modalitatean mozerro eta guzti abestu zuten. | X.L.

aurkeztu zuten. Trikitia, gitarra, edota kaxa flamenkoa entzun ahal izan ziren bertsoak laguntzen.

Ai Ene taldeak irabazi zuen kanporaketa, beraz, Aramaioko Marixeka taldearekin batera martxoaren 11 Araian jokatu den finalerdian izango dira.

Finala Aramaion, hilaren 24an
Koadrilen arteko txapelketaren finala Aramaion jokatu da eta antolatzailek aurreratu dute egitarau potoloa antolatu dutela. Bazkaria herriko pilotalekuan egingo da eta finala 17:30ak inguruan hasiko da.

Ikuskizun bizia eskaini zuen Anai Arrebak taldeak Eskoriatzako Inkernu tabernan

ANDER MONEDERO | ESKORIATZA

Kontzertua berandu hasi zen, baina pasaiatarrek zuzenean erakutsitakoarengaitik zain egoiteak merezi izan zuen. Talde berria izan arren, esperientzia handiko musikariek osatzen dute, besteak beste, Matxete, taldeko abeslarietako bat, Jousilouli eta NaizRoxa taldeetan aritutakoa. Musika elektronikoa eta rocka nahasten dituzte, eta ikuskizun bikaina eskaini zuten.

Bost abestiz osatutako eta eurek ekoiztutako lana aurkeztu zuen Anai Arrebak taldeak, doinu dantzagarri eta elektronikoa eta rocka bezalako estiloekin. Zuzenean, berriz, diskoan baino biziagoak dira. Taldearen estetikak eta zuzenean erabiltzen duten parafernaliak ikusleak poltsikoratzen dituzte orokorrean, eta hala egin zuten zapatuan Inkernu lepo bete zutenean ere.



Anai Arrebak zapatuko kontzertuan. | JULIO CALLEJA

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK **BERNARDINO MAIZTEGI**

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK **AIERDI AHOLKULARITZA**

BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK **BIARK ARKITEKTOAK**

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK **JESUS LASKURAIN PEREZ**

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK **URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK **JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

LA BANDA DEL ABUELO

GURE ARTISTAK



La Banda del Abuelo zuzenean. | JOSETXO ARANTZABAL

"Saiatzen gara esaten duguna asko zaintzen; tontokeriak esateko, hobe isilik"

- ▶ Apirilean euren hirugarren diskoa grabatzeko asmoa dute
- ▶ Diskoaren izena zehazteke dago; proposamenak euren blogera bidali daitezke

MIREN ARREGI | ARRASATE

Talde nekazina da Arrasateko La Banda del Abuelo. Zuzenekoak, ikus-entzunezkoak, bideoklipak... Aspertzeko astirik behintzat ez dute. Abesti berriak sortuta, apirilean disko berria grabatzera sartuko dira estudioara. Disko berrirako izenburu bila dabilta; zuk zeuk ere egin dezakezu proposamena labandadelabuelo.blogspot.com-en.

Hirugarrendiskoaren grabaketei ekin-gozie apirilean. Zertan dihardu une hauetan taldeak?

Abesti berriekin. Gustatuko litzaziguke sendotasuna lortzea eta orain arteko emaitzak hobetzea. Baliteke teknikoki mugatuta egotea baina

langile finak gara.

Spaghetti Rock, punk rock... Aurrekoaren hari berdinetik doa?

Hedonismoa, lerdokeria eta berekoikeria hutsa da gaur egungo punka eta gu hortik aparte sentitzen gara. Musika kontserbadorea eta aspergarria da eta hitzei dagokienez, talde gehienek ez dakite zer esaten duten. Garaia erabat aldatu da eta oraingoek, bizi izan ez zituzten garaiak –nahiko ilunak zentzu askotan– goraiatzen dituzte. Guk nahiko genuke hard rock antzeko bat egitea baina tira! Igual ez gara gai. Horregatik, spaghetti rockaren *labela* sortu genuen.

Instrumentalki zer dakar disko berriak?

Betiko rock talde bateko doinuak harmonika eta didjeridoarekin. Gainera, aldatuko dugu grabatzeko modua. Sistema analogikoa lehenengo aldiz baztertuko dugu eta ahotsak landuago egongo dira. Uste dugu disko indartsua izango dela baina emaitza lortu arte ezin da ezer ziurtatu.

Hemendik eta apirilera arte, aldatuko dira abestiak?

Saiatuko gara 8 edo 9 abesti berri kaleratzen. Testuak agian aldatu daitezke oraindik baina oinarriak jarrita ditugu dagoeneko. Amodiozko abestiak egongo dira, libertario arima dutenak, zahartzaroren gaineko kantu bat ere bai. Azken hori alaia eta zirikatzailea

da eta seguru asko lehenengo singlea izango da. Idazterakoan eske-mak ez errepikatzen saiatu gara eta nahiz eta batzutan betiko gaiak jorratu, ukitu poetikoa ematen saiatu gara. Abesti hard-rockeroak daude, baina leunagoak eta lasaia-goak.

AHT-aren kontrako aldarria zen *Malpaso*? Honek zer du oinarrian? Zertaz ari zarete?

Porlana, galipota eta *sasiprogreso* delako honek burua galdu du. Aurrerapenaren eta lanaren izenean edozein astakeria da posible! Udalaitz hustu eta barruan El Corte Ingles bat egitea, Urbiako mendilerroan aireportu bat... Ematen du agintariak Egiptoko antzinako faraoien jarrera dutela eta hilezkor izan gura dutela.

Idazleen letrak zein zuenak dira oraingoan ere erabiliko dituzuenak?

Saiatzen gara esaten duguna asko zaintzen. Ezin zaie gazteei edozer gauza helarazi. Ez gara ez azkarrak ezta liderrak ere, baina tontokeriak esateko, hala nola droga kontsumoa goraiatu, desfaseari buruzko mezuak zabaldu, politikaren betiko lelo erraz eta hutsak errepikatu edo tabernako *kakaume-makarrismo-merke-ergela* hedatzeko, hobe gaude isilik. Hori baino, nahiago dugu idazle ganorazko baten hitzak erabili.

Trio loco con temas afilados como *balas... Banda de marranos, zumbados y macarras...* Susmoa daukat horrelako esaldiak gustura hartzen dituzuela...

Guretzako askoz hobe izango zen munduko talderik onenatariko bat garela edo sex simbol desiratu eta musikari trebeenak garela entzutea, baina oso zatarrak eta talentu barikoak gara. Hori esaten dutenak

lagunak eta kazetariak dira, lehenengoak ganora bariko hutsak eta bigarrenak aldiz, beti dabilta gezurretan eta asmatutako edozein berrirekin zuloak tapatzen.

Ikus-entzunezkoak grabatzea ere gustuko duzue. Zer izango du horretatik disko berriak?

Lehenengo singlea izango den bideokliparen lehenengo planoak prestatzen dihardugu Arrasateko Jai Zale tabernan. Bigarren singlea kaleratzeko, western filma batekin pentsatzen gabilta, zuri-beltzean izango da eta oso antropologikoa eta poetikoa. Gertuko tokiak bilatzen dihardugu. Batek daki lortuko dugun... Hiru hilabete barru hitz egingo dugu!

"Sendotasuna lortu eta orain artekoa hobetu gura dugu"

"Ikusteko dago, baina uste dugu disko indartsua izango dela"

"Aparte sentitzen gara egungo punketik"

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Prezio berria. Aukera paregabea. Eguzki dorrean etxebizitza salgai. Eraberitua, guztia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bikomun, egongela eta sukaldia. Hiru igogailu eta gas naturala. 20 metro koadroko garaje itxia aukeran. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 650 01 05 15.

Atxondo. 75 m². 3 logela, sukaldia, egongela, komuna, balkoia. Oso eguzkitsua. Kanpora ematen du etxe guztiak. Berogailua. Berriztatua eta altzariz hornitua. Deitu konpromiso barik eta ikusi. 180.000 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 655 73 74 47.

Atxondo. 200 m² ko txaleta salgai. Sukaldia, bi egongela, lau logela, hiru bainugela (bata logela baten barruan), trasteleku. Altzariz hornitua. Berogailua, zoru erradiantea eta aspirazio zentrala. Terraza eta 4.000 m² ko terrenoa. Prezioa: 900.000 euro (negoziariari). Interesatuak deitu telefono honetara: 615 70 12 23.

Berriz. Pisu salgai herri erdian. 71 m²: egongela, sukaldia, 3 logela, komuna eta ganbara. Bihorma armairu, berriztua eta eguzkitsua. Aurrealde margotu berria, eta komunitateko gasturik gabe. 193.000 euro. 679 86 17 30.

Berriz. Berriz erdian pisu berria salgai. 80 m². Oso kokapen ona. Guztiz jantzitua dago. Sukaldia, egongela, komun handia, 2 logela (bat zurezko ganbaratxoagaz, balkoiagaz, despentsa txiki bategaz). Berogailua, zoru erradiantea da. Oso eguzkitsua da. 607 52 24 26.

Bolibar. Etxe zaharra salgai Bolibarren. 34 m² x 3. Teilatua berria eta proiektuagaz. 3 gela eta 40 m² ko terraza. 150.000 euro. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 660 35 80 67.

Durango. Pisu salgai Muruetarren. 90 m². Sukaldia eskegitokiarekin, egongela, balkoia, 3 logela, 2 komun (bat logela barruan). Guztiz berriztua (ateak, leihoak, horma armairuak...) eta jantzia. Eguzkitsua, bista eta kokapen ederrekoa. Ganbara eta garajea. Deitu 686 13 89 09 telefonora.

Durango. 98 m² ko etxebizitza oso eguzkitsua; 3 logela, sukaldia, egongela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 m² eta 8 m² koak) eta baita terraza komunitarioak ere. Altzariz bete eta guztiz jantzia, berogailuaren galdara jarri berria, hormako lau armairu, aluminiozko leihoak, ateak eta zoru aldaturak. Garaje eta igogailuarekin. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 655 70 46 84.

Elorrio. Salgai estreinatzean dagoen 162 m² ko terraza duen atikoa (73 m²). 2 logela, egongela bat, sukaldia eta 2 bainugela. Igogailua eta trasteleku. Oso kokapen ona, eguzkitsua eta bista zoragarriekin. Aukera paregabea! Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 615 75 59 85 (goizez) eta 636 22 49 02 (arratsaldez).

Eskoriatza. Duplexa salgai, 120 metrokoa. Berri berria. Jantzia. Prezio onean. 679 16 24 96.

Gasteiz. 57 m², egoera onean, kalifikazioa eta ura elektrikoak dira, hegoaldera begira. 1. solairua, 5 ate pisu bakoitzeko, igogailua, eraikinak 20 eta 30 urte bitartean ditu, 2 logela, 2 komun (biak bainerarekin), sukaldia (garbigailua, mikroondasa, etab.) balkoia, moketa logeletan, parketa egongelatan eta baldosak gainontzekoan, banakako garajea, itxia, eskiak gordetzeko tokia, pizsina eta belardia urbanizazioaren barnean, aurrean plaza bat dauka, kolunpioekin etab. orain dela urte bat hormak margotu ziren eta zoru aldatu zen, altzariekin. 665 75 78 07. marian.formigal@gmail.com.

lurreta. Pisu bat salgai Arriandin, lurretan. 78.000 euro. 685 72 80 42.

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. 60 metro koadro eta bi logela. Prezio negoziagarria. 699 78 47 49.

Otxandio. Apartamentu jantzia salgai trastelekuarekin. Igogailua. Interesatuak deitu telefono honetara: 675 71 72 83.

Soraluze. Etxebizitza salgai. Hiru logelakoa. Terraza handiarekin. 608 57 37 50.

Zaldibia. 2008an eraikitako etxebizitza herri erdian. 81 m². 3 logela, 2 komun, 3 armairu enpotratu, sala, sukaldia eta terraza ederra. Garaje itxia bertan. 199.000 euro. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 626 62 37 92.

Sakana. 64 m² eta bajeak 50 m². Interesatuak deitu telefono honetara: 639 77 91 30.

102. EROSI

Durango. Baserri bifamiliar osoa erreformatzen ditzut, baserri erdiaren truke, durangaldean. Beste proposamenen bat badaukazu, kontutan hartuko dut. Interesatuak deitu telefono honetara: 618 93 62 14.

103. ERRENTAN EMAN

Abadiño. Pisu alokatzeko Abadiño Zelaian. 72 m² karra. 3. Solairua igogailu barik. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 946 81 87 20 (iluntzean deitu).

Altsasu. Intxaurren kalean. 3 gela, 2 komun, egongela eta sukaldia. Interesatuak deitu 630 22 13 41 telefonora.

Aretxabaleta. Erdigunean estudio txikia ematen da errentan, emakumezko batentzat. Interesatuak deitu telefono honetara: 616 75 41 30

Aretxabaleta. Mitarte 8an etxebizitza ematen da errentan. Hiru logelakoa. Terraza handiarekin. 649 06 20 89

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun. 663 77 14 50 / 671 14 99 63.

Donostia. Pisu alokatzen da. Donostian, egia auzoan, jai alai aldean, pisu txiki eta polit bat alokatzen da prezio onean. Sukaldia, egongela, komuna eta logela. Oso argitsua eta dena kanpora begira. Interesatuak deitu telefono honetara: 605 72 39 55.

Eskoriatza. Apartamentua errentan edo salgai erdigunean. Jantzia. Eraikin berria. 670 78 17 59

Eskoriatza. Baserria ematen da errentan. Guztiz eraberitua. 605 77 51 65.

Oñati. Etxebizitza errentan ematen da Kale Zaharrean. Hiru logela. Telefonoa: 656 00 84 92.

Oñati. Kurtzebide 1C atartearen etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela eta bi bainugela. Igogailuarekin. Etxe berria. Jantzia. 615 73 29 83

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00 arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskeraak
403. Bestelakoak

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- Bergara:**
- Justo Garate Plaza. 80 m². 3 logela. Ia berria. Garajea aukeran.
 - Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berriztua. 144.243 €.
 - Simon Arrieta 90 m². 3 logela. Balkoia, igogailua, berogailu eta trastelekuarekin.
 - Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
 - Ibargarai 54 m². Garajearekin. Aukera ona. 234.395 €.
 - Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailua eta igogailuarekin. Prezio ona.
 - San Lorenzo 67 m². Garajearekin.
 - Zubiaurre 51 m². 102.000 €.
 - Herri Lagunak 60 m². 2 logela. Oso ondo. 160.771 €.
 - Zabalotegi 54 m². Balkoiarekin. 96.000 €.
 - San Pedro 65 m². 2 logela. Erabat berriztua. Ganbararekin. 122.606 €.
 - Burdinata. 104 m². Garajearekin. Oso prezio ona.
 - Martoko 70 m². 2 logela. 110.000 €.
 - Bolu 140 m² duplexa. Terraza eta garajearekin. Aukera ona.
 - Burdinata 53 m². Apartamentua, oso ondo.
 - Masterreka 70 m². 2 logela. Igogailua eta garajearekin.
 - Bidekurutzetan 60 m² obra egiteko. Oso prezio ona.
 - Zubiaurre 82 m². Igogailua eta berogailuarekin. 150.253 €.
 - Zubieta 240 m², ortuarekin.
 - Lorentxokan pisuak estreinatzeak. PREZIO BEHERAPEN HAUNDIAREKIN!!!
 - Urteagan pisuak estreinatzeak. 195.000 €.
 - Bidekurutzetan pisuak estreinatzeak. 1,2,3 eta 4 logela.
 - Masterreka 104 m². 3 logela. Estreinatzeak. Trastelekuarekin. 294.495 €.
 - Martoko 140 m². Duplexa. Berria. Aukera ona.

Antzuola:

- Baserria 200 m². 3 logela. Berria. Garajea. Lur sailarekin.
- Buzintzurin apartamentua estreinatzeak. Aukera ona.
- Buzintzurri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierro eta Errekalde. Etxe onak.

Soraluze:

Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Elgeta:

- Torrealedea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.

Durango. Logela bat alokatgai Durangon. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 630 76 18 28.

lurreta. Pisu batetan logela alokatgai, lurretan, neska eskaldun batentzat. 200 euro. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 633 23 38 48.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Berriz. Garaje itxia salgai. 42 m². Ate automatikoagaz. Ura eta argiaren instalazioak, jastik. Komuna eta bodega txiki bat. 2 3 kotxe. Txokoa sukaldiaegaz. Interesatuak deitu telefono honetara: 615 75 21 36.

Berriz. Berrizen, Learreta Markina kalean garajea salgai. Eskola aurrean. Sarrerak errepidera ematen du. 30 m². Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 663 39 75 88.

Durango. Garajea salgai. Montoretan, Simply supermerkatuaren ondoan. 2 lerro, autokarabana sartzeko toki aproposa. Interesatuak deitu telefono honetara: 652 76 81 31.

Elorrio. Garaje itxia salgai Elorrio erdialdean. 20.000 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 660 45 87 56.

Eskoriatza. 15 metro koadroko garaje itxia salgai Intxaurren 23an. Interesatuak deitu telefono honetara: 679 16 24 96

Otxandio. Garaje itxia salgai Otxandion, pertsianarekin. Interesatuak deitu telefono honetara: 675 71 72 83.

203. ERRENTAN EMAN

Durango. Kotxe partzela alokatgai Askatasun etorbidea 11n. Interesatuak deitu telefono honetara: 94 681 39 32.

Durango. Garaje itxia alokatuan Sasiko inguruan. 75 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 688 80 70 92.

Durango. Garajea alokatuan Durangon. 50 euro/hilean. Interesatuak deitu telefono honetara: 675 71 95 54.

204. ERRENTAN HARTU

Garajea errentan hartu. Garaje bat errentan hartuko nuke Oñatiko Bidebarrieta kalean. Interesatuak deitu telefono honetara: 626 59 91 86

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

ARETXABALETA

Taberna/puba salgai edo errentan. 943 53 38 27

ARRASATE

Taberna ematen da errentan erdigunean. Guztiz berritua. 671 42 54 32

304. ERRENTAN HARTU

Bergara. Lokal bilagabiltza San Lorentzo edo Matxiategi kalean. Deitu telefono zenbaki honetara: 654 35 50 16

4. LANA

402. ESKAERA

Abadiño. Persona nagusien zaintzarako, garbiketarako edo umeen zaintzarako lan bila. Orduka, gauze edo asteburuetan. Sukaldatu, plantxa egin... Ospitalean, garbiketan eta nagusien zaintzan esperientzia. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 696 75 35 30.

Abadiño. Umeak zaintzeko edo etxeko lanetarako eskaintzen dut neure burua. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 697 25 87 24.

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Andre arduratsua lanerako gertu: garbiketarako nagusiak zaintzen. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 682 31 97 37.

Arrasate. Gizona gertu edozein lanerarako: garbiketarako lokaletan, tabernetan zerbitzari edo bestela. Baita asteburuetan ere. Interesatuak deitu telefono honetara: 693 40 88 86.

Arrasate. Neska gertu gaixok eta edadetuak zaintzeko. Esperientziakin daukat egoitzatan geriatrria laguntzaile gisa. Gauak ospitalean egiteko prest. Etxe garbiketarako ere bai. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 693 40 88 86.

Arrasate. 53 urteko bertako emakumea edozein lan egiteko gertu: umeak zaindu, etxekolona egin, pertsona nagusiak zaindu eta abar. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 943 79 60 89.

Bergara. Goizez lan egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbiketarako egiten. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 680 77 06 46

Debagoiena. Neska gertu lanerako nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka, egun osoz, asteburu, gauzein etxean bertan bizi izaten. Erreferentzia onak. Berehala hasteko moduan. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 638 93 11 48.

Debagoiena. Etxeko lanak eta garbitasunak egingo nituzke. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646 10 21 66.

Debagoiena. Emakume eskalduna gertu plantxa edo etxe zein bestelako garbiketarako egiteko, orduka. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 680 49 11 45.

Debagoiena. Neska eskalduna eta esperientziaduna goizean haurrak zaintzeko prest. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 685 76 91 11.

Debagoiena. Esperientziadun emakumezko batek, nagusiak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzte. Maite. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 650 17 74 87 / 943 76 48 26.

Debagoiena. Garbiketarako egiten, nagusi zein umeak zaintzen edo sukaldari lanetan jardungo nuke. Elikagaiak erabiltzeko agiria daukat. Roxana. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 634 40 64 65.

Debagoiena. Lan egingo nuke elkarte, etxe, atari eta abarrak garbitzen. Baita nagusiak zaintzen ere. 678 80 96 01.

Debagoiena. Asteburuetan zerbitzari lanak egingo nituzke jatetxe batean. Esperientzia eta ingelesa. 649 57 70 59.

Debagoiena. Neska gertu sukaldari edo garbiketara lanak egiteko. Esperientziaduna. Legezko paperak eguneratuta daukat. 619 78 63 41.

Debagoiena. Tradiziozko sukaldari morokoa jabetxe edota jialdi pribatueta lan egiteko eskaintzen da, ordu edota egunak. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 672 74 67 69. Said.

Debagoiena. Emakume arduratsua lan bila etxeak, atariak eta tabernak garbitzeko. Ume eta nagusiak zaintzeko ere bai. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 615 06 28 04.

Debagoiena. Emakume gertu orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketarak eta abar. 638 59 04 71.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusi zein umeak zaintzeko orduka edo asteburuetan ere bai. 606 54 89 90.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu umeak zaindu, orduka garbitasun lanekin edo nagusiak zaindu zein laguntzeko. Interesatuak deitu zenbaki hauetara: 943 71 53 74 / 695 73 87 95.

Debagoiena. Bertako neska gertu nagusiak zaindu eta etxe-ko garbiketarak egiteko. Eskarmentu handikoa. 696 84 19 51.

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke. Legezko papereak eta gidatzeko baimena daukat. Eskarmentu eta erreferentzia onak. 603 14 59 17.

Debagoiena. Elgeta, Bergara edo Arrasate. Emakume eskalduna gertu lanerako. 606 50 02 67.

Debagoiena. Esperientziadun autozko mekanikaria lanerako eskaintzen da. Hidraulika neumatika eta pisudun makinaren ezagutza, besteak beste. Antonio. 656 69 80 70.

Debagoiena. Neska eskalduna edozein lanerako gertu. 673 41 99 69.

Debagoiena. Neska eskalduna umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko gertu. Esperientziaduna. Informa ditut. Disponibilitate osoa. 671 35 22 60.

Debagoiena. Mutila gertu lanerako. Deitu zenbaki honetara: 680 95 65 57.

Debagoiena. Mutila gertu sukaldari laguntzaile edo sukaldari bezala lan egiteko. Baita garbiketarak egiteko ere. Sukaldean 8 urteko eskarmentua. 634 41 90 51.

Debagoiena. Mutila gertu zerbitzari lanak egiteko, eta garbiketara edo bestelakoetan jarduteko. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 671 84 71 71.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketarak egin, nagusiak zaindu zein tabernatan lan egiteko. Egun osoz zein orduka. Interesatuak deitu telefono honetara: 605 41 88 20.

Debagoiena. 42 urtetako emakumea lanerako prest, arraindegian lan egiteko eta janariak manipulatzeak kametak ditut. Pertsona nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko prest. Automobilak daukat. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 678 98 30 32.

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke: nagusiak zaintzen edo denetariako garbiketarak lanetan. 699 09 46 26.

Debagoiena. Emakume esperientziaduna eta arduratsua, etxe lanak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 680 12 73 16.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko, lanegietan zama lanak egiteko edota garbiketarak lanetan jarduteko. Interesatuak deitu telefono honetara: 685 42 72 80.

Debagoiena. Neska arduratsua umeak zaintzeko, nagusiak zaintzeko eta pasatzera ateratzeko eta garbitasun lanak egiteko gertu. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 943 71 53 74, 695 73 87 95.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko, baita etxean bertan bizi izaten ere. Umeak ere zainduko nituzke edo garbiketarak egin. Baserrietan ere bai. Interesatuak deitu telefono zenbakira: 669 10 13 94.

Debagoiena. Umeak zaintzeko gertu nago. Aisialdioko hezitzailea naiz. Brigitte. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 664 51 64 98.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Interna edo externa. Lanaldi osoa. Erreferentziak eta esperientzia. Interesatuak deitu telefono zenbakira: 637 14 62 42.

Durungaldea. Interna edo orduka lan bila dabilen neska. Nagusien edo umeen zaintzan edota garbiketarak lanetarako. Pertsona nagusien zaintzan esperientzia. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 689 98 72 06.

Durungaldea. Asteburuetarako lan bila. Garbiketarak, umeen edo nagusien zaintzan. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuak deitu telefono honetara: 697 12 64 38.

Durungaldea. Emakume arduratsua nagusien edo umeen zaintzan edo garbiketarak lan bila. Interna, externa, orduka edota asteburuetan. Erreferentziak eta esperientzia. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 680 29 66 76.

Durungaldea. Nagusien edo umeen zaintzan edo garbiketarak lan bila. Interna, externa, orduka edota asteburuetan. Erreferentziak eta esperientzia. 659 73 92 65 edo 697 12 64 38

Durungaldea. Umeak edo nagusiak zaintzeko prest, externa edo interna. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 689 30 85 82.

Durungaldea. Umeak edo nagusiak zaintzeko prest, externa edo interna. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 689 30 85 82.

Durungaldea. Emakume arduratsua umeen edo nagusien zaintzan edota garbiketarak lanetarako prest. Interna, externa edo orduka. Erreferentziak eta esperientzia. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 659 73 92 65.

Durungaldea. Goizez, arratsalde zein gauetan lan egiteko prest. Garbiketarak lanetarako edota gauetan pertsona nagusiak zaintzeko. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 690 68 73 95.

Durungaldea. Interna edo orduka umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeak garbitzeko lan bila. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646 20 72 71.

Durungaldea. Nagusien zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Esperientzia eta erreferentziak. Goizeko 10:00etatik guerdiko 14:30ak arte. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 633 03 86 09.

Durungaldea. Umeen edo nagusien zaintzarako edota garbiketarako lan bila. 14:00etatik 20:00etara. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 638 43 79 01.

Durango. Psikologian lizentziatua. Durango neska eskalduna naiz eta prest nago irailaren 20tik aurrera umeak orduka zaintzeko, goizetan zein arratsaldetan. Klase partikularrak emateko prest ere bai. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646 53 83 90.

Durango. Pertsona nagusien zaintzan, garbiketarak, segurtasunean, lorezaintzan, okintzan, guri garraiolari, ... Lan bila. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 622 74 39 41. Julian.

Durango. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusien zaintzarako lan bila. Interna edo externa. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 683 47 28 05.

Durango. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusien zaintzarako lan bila. Interna. Interesatuak deitu telefono honetara: 632 11 77 23.

Durango. Garbiketara edo nagusien zaintzarako lan bila. Etxeen edo portalen garbiketarak, ospitalerako edo etxeko zaintzak, ... Jardunaldi osoa edo erdia, gauetz, orduka, ... Esperientzia. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 690 68 73 95.

Durango. Garbiketara edo nagusien zaintzarako lan bila. Etxeen edo portalen garbiketarak, ospitalerako edo etxeko zaintzak, ... 16:00etatik 20:00etara. Esperientzia. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646 92 52 15.

Durango. Bulegoan, etxean, portalen... garbiketarako edo nagusien zaintzarako lan bila. Jardunaldi erdian, aukeran goizez, astelehenera zapatu eguerdira. Esperientzia. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 676 54 66 91 (Lola).

Durango. Neska orduka, lanaldi osoan, interna edo externa modura lan bila. Pertsona nagusien edo umeen zaintzan. Esperientzia eta erreferentzia onak. Interesatuak deitu telefono honetara: 678 80 96 01.

Durango. Neska orduka, lanaldi osoan, interna edo externa modura lan bila. Pertsona nagusien edo umeen zaintzan. Esperientzia eta erreferentzia onak. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 603 07 13 83.

Durango. Pertsona nagusien zaintzarako edo garbiketarako lan bila. 09:00etatik 13:00etara. Esperientzia. 633 03 86 09.

Durango. Durangoko emakume orduka etxeko lanak egiteko prest, informekin. Deitu 94 466 89 26 edo 688 65 90 90 telefono zenbakieta.

Durango. Emakume eskalduna etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia handikoa. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 675 70 32 61.

Durango. Nagusien, umeen zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Jardunaldi osoa, asteburuetan, ... Erreferentziak eta esperientzia. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 681 21 82 30.

Durango. Nagusien zein umeen zaintzan edo garbiketarako lan bila. Interna, externa, orduka edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 619 15 58 04.

Durango. Nagusien zaintzan interna modura lan bila. Esperientzia Alzheimerdun eta demenziadun nagusien zaintzan. Interesatuak deitu telefono honetara: 630 25 32 25.

Durango. Pertsona nagusien zaintzan edo garbiketarako lan bila. Interna, externa edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuak deitu telefono honetara: 603 95 41 94.

Durango. Pertsona nagusien zaintzarako lan bila. Interna modura. Esperientzia. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 632 86 92 82.

Durango. Neska orduka, lanaldi osoan, interna edo externa modura lan bila. Pertsona nagusien edo umeen zaintzan. Esperientzia eta erreferentzia onak. Interesatuak deitu telefono honetara: 678 80 96 01.

Durango. Neska orduka, lanaldi osoan, interna edo externa modura lan bila. Pertsona nagusien edo umeen zaintzan. Esperientzia eta erreferentzia onak. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 603 07 13 83.

Durango. Pertsona nagusien zaintzarako edo garbiketarako lan bila. 09:00etatik 13:00etara. Esperientzia. 633 03 86 09.

lurreta. Pertsona nagusiak zein gaixo daudenak zaintzeko prest nago. Urteetako esperientzia daukat. 699 74 57 23. Ines.

6. MOTORRA

601. SALDU

125eko motorra salgai. Yamaha ybr 125 salgai. Koxeko karnet gaz eraman ahal da, 10.000 km eta egoera ezin hobean dago. Deitu eta probatu. 676 90 01 05.

Autokarabana salgai. Autokarabana salgai. 2009 urtekoa. 6 plaza. Egoera onean. 652 76 81 31.

Autokarabana salgai. Autokarabana Benimar Sport 310 salgai. 50.000 km. Hiru urtekoa eta 6 pertsonentzako lekua. Ekipamendu osoa eta oso ondo zaindua. 31.000 euro. 676 61 71 54 edo 676 98 33 06

Autokarabana salgai. Autokarabana salgai. 2002. urtekoa. 100.000 km. 21.000 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 607 86 32 24.

Fiat punto salgai. Fiat punto salgai. 2007. Urtekoa. 48.425 km. 8.000 euro. 665 74 56 03.

Smart kotxea salgai. Smart Fortwo Coupe Passion salgai. 62 zp. 48.000 km. la berria eta oso egoera onean. 676 61 71 54 edo 676 98 33 06.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Ahuntzak. Salgai, bakoitza bi antxumekin. 180 euro. 678 25 52 35

Asto arra. 3 urteko asto arra salgai. Beltza da eta mantsoa da. Negoziazarria. 655 71 39 27

Behorrak. Bi behor salgai, prezio onean. 695 73 67 61

Txakurkumeak. Malinois Belgiar artzai txakur kumeak salgai. 667 74 65 27

Txakurkumeak. Urtarilaren 17an jaioak pitbull kumeak salgai. Arrak eta emeak ditut. Beltzak batzuk eta besteak tigre txakurak. Gurasoak ondo hezitakoak, jatorrak eta mantsoak. Deitu konpromiso barik. 688 69 87 56.

Txakurra erdi opari. Mastin arrazako txakurra erdi oparitzen da. 4 urte, arra. Oso esanekoa, ona. 616 91 90 61.

703. EMAN

Artzai txakur kumeak oparitzen dira. Artzai txakur kumeak oparitzen dira. Abenduaren 23an jaiok. Interesatuak deitu. 600 46 46 25.

Spaniel Breton txakurra. Emea. Usaimen oso onekoa. Bi urte dauka. Txerto, txip eta paper guztiak dauka. Diana izenekoa. Zuri beltza. Leku falgatagatik ematen dugu. 945 44 54 62 edo 651 94 96 72

Txakurkumeak. Hilabeteko txakurkumea elegantia opari. Interesatuak deitu telefono honetara: 690 79 78 00

8. DENETARIK

801. SALDU

Abadiño. Lursaila salgai Matienan (Abadiño), Arzubia kalean, 2.000 m², erreka ondoan eta bide ertzean. Apropoa ortua hartzeko. Hainbat fruitu arbolaz hornitua. Matienatik hiru minututara oinez. 658 75 65 12.

Agria motokultorea salgai. Agria 2700 motokultorea salgai. Diesela. 94 682 45 90. Luis.

Behoko sua, kristalduna, salgai. Behoko sua, kristalduna, salgai. Erdi berria. Haize beroa botatzeko zuloekin. 66 x 80 x 50zm. 619 48 50 58.

Bergara. 16.000 m²ko lursaila salgai, 30 urteko pinuekin. Automobilaz bertara iristeko modukoa. 653 71 66 87.

Bergara. Lursaila eta borda txikia salgai. Gorla inguruan. Arbolartea. Deitu zenbaki honetara: 655 91 87 17.

Bernedo. Lursail eraikigarria Urturin salgai dago, Bernedon. Gasteizetik 40km tara dago, eta izkiko golfetik 3 minututara baino ez. 308m² eraikitzea posible da, 7ml ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguan beste lursaila eta etxebizitza batzuk ditu; baita golfeko hotela ere. 665 75 78 07 (Ana)

Bernedo. Lursail eraikigarria Urturin salgai dago, Bernedon. Gasteizetik 40km tara dago, eta izkiko golfetik 3 minututara baino ez. 308m² eraikitzea posible da, 7ml ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguan beste lursaila eta etxebizitza batzuk ditu; baita golfeko hotela ere. 665 75 78 07 (Ana)

Compaq ordenagailua salgai. Compaq ordenagailua salgai debagoienan. Oso egoera onean eta prezio interesgarria. Deitu 662 58 52 29 / 943 20 81 17 telefono zenbakieta.

DVDA. LG DVD berria salgai. Prezio interesgarria. Deitu 943 77 00 26 telefonora.

Egongelarako aulkia salgai. Zure egongelarako zoragarriak diren 5 aulki saltzen dira.

Oso egoera onean eta prezio ezin hobean: 60 euro bostak. 615 72 62 52.

Eskiatzeko materiala. 1012 urteko umearendako praka, 36 neurrikoa, eta snow taula salgai, 1,25 neurrikoa, lokailuekin. 656 78 64 64.

Esnea ateratzeko gailua salgai. Esnea ateratzeko gailua salgai. Medela Swing markakoa, merkaturatua. Egoera onean. Automatikoa. Honekin batera aivent markako esnea ateratzeko gailu manuala oparitzen da. 60 euro. 607 86 32 24.

Gimnasia bonoa. saltzen da Arrasaten. 18 hilabeterako. Egunero joan dezakezu astelehenera larunbatera, eta edozein klasera. 336 euro. 607 06 22 20 edo anunciointer@yahoo.es

Gitarra elektroakustikoa salgai. Gitarra elektroakustikoa salgai debagoienan. Tanglewood model premier twissas. 1012929 seriekoa. 620 64 96 37.

Lasterka egiteko zinta salgai. Lasterka egiteko zinta salgai. Pro form 360 pulstazio. 400 euro (negoziagarriak). 688 64 05 05.

Mahaia eta aulkia salgai. Egurrezko lau mahaia eta aulkia salgai. Txoko baterako egokiak. Interesatuak deitu telefono honetara: 695 76 84 21.

Monty 202 kamel bizikleta salgai. Pedaliek ez duten bizikleta horietakoa da. Bizikleta gainean oreka izaten di da batean ikasten dute umeak eta bizikleta hau erabilia, ez dago ondorengo bizikletan gurpil txikiak erabili beharrik. Urte bateko erabilpena du eta oso egoera onean dago. 615 79 51 85. agonirena@gmail.com.

Mountain bike horia salgai. Mountain bike horia salgai. 3 plato eta 8 pinoi. 6tik 10era urteko ume batentzat. 75 euro. 94 682 07 67 (Igor).

Piano elektrikoa salgai. Yamaha Clavinova CLP 150 piano elektrikoa salgai. Kontakua: 650 17 22 85 edo strato-kaster@gmail.com

PSP go a salgai. Debagoienan. Berria. Prezio interesgarria. 943 77 00 26.

Puf ak. Ohea egiten diren bi "puf" salgai. Oheko neurriak 80x190 dira. Jasota daudenean, kubo forma dute. 943 79 39 35

Taxi lizentzia salgai Arrasaten. Telefonoa: 606 76 36 85

Trabesiako botak. Trabesiako eski botak salgai. Dynafit ZZERO3 modelo. 28 neurria (43), laranja kolorekoa. 2 urte pasatxo. 160 €. 670 48 91 49

Umea eramateko motxila. «Vaude jolly light» umea eramateko mendiko motxila salgai. Estreinatze, etiketa eta guzti. 100 euro. 94 603 25 02.

Umea eramateko. Umea eramateko jane etxeko kapazoa, Maxi Cosia eta aulkitxo salgai debagoienan. Oso ondo zainduta. 199 euro. 653 72 22 54, marysea15@hotmail.com

Umea eramateko. Jane etxeko kapazoa, Maxi Cosia eta aulkitxo salgai. Oso ondo zainduta. 199 euro. 653 72 22 54, marysea15@hotmail.com

Umea eramateko. Jane etxeko kapazoa, Maxi Cosia eta aulkitxo salgai. Oso ondo zainduta. 199 euro. 653 72 22 54, marysea15@hotmail.com

802. EROSI

Akordeoi kromatikoa. Bigarren eskuak akordeoi kromatikoa erosi nuke. 120 bajukoa (botoduna). 639 15 40 48

Bizikleta. 4 urteko mitikoarentzat bigarren eskuak bizikleta erosi nuke. 649 00 53 42

Bizikleta. Esekidura bikoitzako bizikleta erosi nuke. Egoera onean dagoen bizikleta baldin badaukazu eta saldu nahi baduzu, email bat bidali mesedez. laguntzen@gmail.com.

Lursaila. Lursaila erosi nuke Bergara edo inguruko herrietan. 5.000 euro inguru ordaintzeko prest. 669 17 09 51

Soinu txikia erosi. Soinu txiki bat erosi nuke. 650 72 27 47

Zilarra erosten dut. Zilarrezko gauzak erosten ditut: txanponak, etxeko kuberteria eta abar. Harremanetan jartzeko, deitu: 657 70 43 16. numipega@gmail.com.

806. GALDU

Argazki kamera Gorbeian. Otsailaren 18an, zapatua, Gorbeia menditik jaistean argazki kamera digitala galdu nuen. Argazki garantzitsuak nituen. Norbaitek topatu badu deitu mesedez telefono honetara: 686 65 98 08

Belarritakoa. Aretxabaletako Erekarren eta Durana kalean artean galdu nuen urrezko belarritakoa otsailaren 13an. Sarituko da. 628 89 30 68

Eraztuna Bergaran. Ezkontza eraztuna galdu dut. Bi eraztun dira batean, soldatuta. 646 05 62 62

Kirolpraka Bergaran. Kirolpraka beltza, berria, galdu nuen Matxategiko 30 eta 32 artean artean, otsail hasieran. Aurkitu baduzu deitu mesedez. 943 76 41 31

Nintendoa Aretxabaletan. Igan dean, otsailak 12, 20:30ean, Nintendo dsi xl bat desagertu zen bere estutxe barruan. 689 73 64 77.

GPS a galdu dut Alegitiki ordiziarako bidean. Txirrindun ibiltzeko GPS a galdu dut Alegitiki Ordiziarako bidean. Garmin EDGE 705 markako. 629 43 51 56.

807. AURKITU

Berokiak. Bergarako Agorringo taberna umeen bi beroki agertu dira. Izena daukate idatzita: Ander G. I. eta Jokin B.

Urrezko eraztun bat. Antzuolako plazan urrezko eraztun bat aukitu genuen abenduan. Norbaitek galdu badu deitu telefono honetara: 656 76 78 90.

9. HARREMANAK

901. HARREMANAK

Mutil eskaldun jator baten bila Bilbon. 50 urteko neska eskalduna naiz. Alai, irekia, berriketari ona, lagun z

700.000 dokumentu bidali ditu lehen urtean Metaposta zerbitzuak

Mugikorrentzako aplikazioak erabiltzaileendako notifikazio elektronikoa eta enpresendako Pack Pyme zerbitzua ere garatu ditu

MIREN ARREGI | ARRASATE

Urtebete pasatu da Eusko Jaur-laritzak sustatutako Metaposta zerbitzua sortu zenetik. Metaposta zerbitzuak Interneten postontzi eta dokumentu-gordailu elektronikoa eskaintzen ditu, hiritarrei eta enpresei balio handikoak diren agiriak espazio elektronikoa pertsonal baten era seguruan eta betiko biltzeko aukera eskainita. Bada, urte

honetako balorazioa egiteko agerraldia egin dute Bernabe Undak –Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburua–, Juan Goikoleak –Berrikuntza eta Teknologia sailburuordea eta Metaposta presidentea– eta Aitor Velascok –Metapostako zuzendaria–. Urtebetean zerbitzuak 12.000 erabiltzaile eta 13 igoz lortu eta 700.000 dokumentu baino gehiago bidali ditu.

Segurtasun itzela

Hain zuzen, telefono eta elektrizitate konpainiek eta administrazioak bidaltzen dituzten dokumentuak segurtasun eta konfidentzialtasun osoz jasotzea baimentzen du Metaposta finantza entitateak. Gainera, aukera ematen dio erabiltzaileari dokumentu garrantzitsuak digitalki igo eta leku seguruan gordetzeko. Hori horrela, agerraldian



Juan Goicolea, Bernabé Unda eta Aitor Velasco agerraldian. | METAPOSTA

nabarmendu dute Metapostaren erabiltzaileek 20.000 dokumentu igo dituztela urtebetean haien postontzietara.

Erabiltzaile gehien, Gipuzkoan

Erabiltzaileen jatorriari dagokionez, adierazi dute 12.000 erabiltzailetik %38 daudela Gipuzkoan, Bizkaiko portzentaje bera, kontuan hartuta Gipuzkoan biztanle gutxiago gara. Erabiltzaileen %22, berriz, arabarrak dira. Bestalde, Nafarroan, Bartzelonan eta Madrilan ere baditu erabiltzaileak Metaposta zerbitzuak.

2012ko helburuak

2012ko helburuei dagokienez, asmoa da Metapostak urte bukarran 100.000 erabiltzaile, 25 igoz eta Pack Pyme zerbitzua erabiliko duten 75 enpresa eta instituzio izatea.

Interneten mundu mailako itzaltzea gezurtatu egin dute

Anonymous talde *hacktibistak* gezurtatu egin du mundu mailako itzaltzea, eta adierazi du prestatzen dabiltzan *GlobalBlackOut* operazioak ez duela zerikusirik horrekin eta ez duela Internet mozteko intenziorik. Ustezko itzaltzea, Pastebin webgunearen esanetan, martxoaren 31n ziren egitekoak.

Mezularitza aplikazioek telefono-operadoreen fakturazioa jaitsi dute

Mezularitza aplikazioen sor-kuntzak eta erabilera masiboak 2011n telefono-operadoreek 13.900 milioi dolar gutxiago fakturatu egin dute. Facebook Chat, BlackBerry Messenger eta Whatsapp aplikazioen ondorio zuzena da SMS mezuak nabarmen jaitea, Ovum ikerketa enpresaren arabera.

Megauploadeko sortzaile Kim Dotcom aske utzi dute

Hogei egun kartzelan eman ondoren, Megauploadeko sortzaile Kim Dotcom aske uzteko erabakia hartu du Zeelanda Berriko justiziak. Erabakia Nevin Dawson epaileak hartu du, Dawsonek ihes egiteko arriskurik ez dagoela uste duelako. Atxilotuak AEBetara estraditatu edo ez abuztuan erabakiko dute.

SpotBross: Whatsapp mezularitza aplikazioaren alternatiba euskalduna

Getxoko enpresa batek merkaturatu du SpotBross aplikazioa eta Android sistema eragiledun smartphone telefonoetan erabilgarri dago dagoeneko

MIREN ARREGI | ARRASATE

Zalantzarik ez dago. Egungo mezu bidaltze sistema erabiliarena eta ezagunena Whatsapp da. Aplikazioak, baina, segurtasun gabezia handiak dituela frogatuta dago. Hori horrela, asko eta asko dira Whatsapp mezularitza aplikazio sistemaren alternatiba gisa sortu diren aplikazioak. Bada, horietako bat Getxoko SpotBross Technologies enpresak merkaturatu du. Aplikazioak SpotBross du izena eta dagoeneko Android merkaturatu dago.

SpotBross instalatu ahal izateko, Whatsappean ez bezala, norberaren izen-abizenak, helbide elektronikoa, jaiotza-data eta mota horretako datuak sartzea



Aplikazioaren irudia. | GOIENA

ezinbestekoa da, eta baliteke horrek erabiltzaile asko eta asko atzera botatzea; aldis, erabiltzailearen intimitatea da SpotBross aplikazioaren balio erantsia. Esaterako,

kontaktu baten mezuak jasotzeko, aurrez baimendu egin beharko dugu kontaktu hori. Gainera, SpotBross-ek gura ditugun kontaktuak blokeatzeko bidea eskaintzen du.

Inguruko informazioa

Bestelako funtzioak ere eskaintzen ditu. Aplikazio geolokalizatu bat izanik, inguruan ditugunekin talde elkarrizketak egiteko bidea ematen du. Hala, inguruko komertzioek erabil dezakete eskaintzen berri emateko, edota erakunde edo elkarteek kontzertu, antzerki edo bestelako ekitaldien berri emateko. Informazio hori jasoko da, betiere hartzaileak baimentzen bada, noski.

Gipuzkoako farmazien gaineko informazioa mugikorrean jasotzeko aplikazioa aurkeztu du Gipuzkoako Sendagileen Elkarteak

Besteak beste, inguruko zein farmazia dagoen zabalik eta zein itxita jakinaraziko du

M.A | ARRASATE

BATURA Mobile Solutions enpresak egin du mugikorretarako aplikazioa eta Gipuzkoako Sendagileen Elkarteak aurkeztu berri du. Aplikazioak farmazien gaineko informazioa eguneratua eskaintzen du iOS eta Android sistema eragileetarako bertsiotutan. GPS bidez erabiltzailearen datuak jasoko ditu aplikazioak; alegia kokapena. Hark inguruan dauden farmazien datuak helaraziko ditu, zabalik edo itxita dauden adierazita.

Baina ez hori bakarrik; hain zuzen ere, gu gauden

inguruan farmaziak zabalik edo itxita dauden, eta gugandik ze distantziatara dauden adierazteaz gain, Gipuzkoan irekita dauden farmazia guztien zerrenda ere jaso ahal izango dugu mugikorrean. Gogokoen dugun edota gehien erabiltzen dugun informazioa gordetzeko aukera emango digu, eta bestelakoak jasotzeko ere bai, hala nola azken orduko albisteak edota Gipuzkoako Sendagileen Elkarteak kontaktatuak.



TELE-BEGI

AMAIA
PAVON

Dagoenaz eta ez dagoenaz

Ez da berria telebistaren espektakulu izaeraren inguruan eztabaidatzea, ezta ere programazio fluxu zatitu-ezineren gainean hitz egitea (futbola programatzeko ez bada, noski). Ordea, beste behin, horretaz baliatuko gara gertaera baten berri eman ahal izateko.

Estatu mailako idatzizko hedabide guztien azalean agertu zen pasa den osteguneko Oxfordeko bilera. Arratsaldeko bostetan izan zen eztabaida, Richard Dawkins eboluzionista eta ateista sutsuaren eta Canterburyko gotzainaren artean. Erligioen gainean eta gizonaren jatorriaren inguruan hausnartu zuten bi gorentasunek. Twitterren bidez jarraitu ahal izan genuen eztabaidan aipatzen zirenak.

Tamaina honetako gertakariaren arrastorik ez, ordea, telebistan: *zapping* egin eta telenobela, futbola, telesaila eta Telecincoko *Sálvame* amai-gabea. Gaueko albistegietan ere, hutsaren hurrena.

Nola liteke prentsaren azal denak bete dituen gertaera baten berririk ez azaltzea telebistan? Pertsonaiak ez dira erakargarriak, gaia ez da entretenigarria, ez dago hildakorik, ez dago garrasirik, ezta golik ere: zertarako, orduan, telebistaz eman?

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 27



'Eman minutu bat bakearen alde'

19:40

Iban Gonzalez arrasatearrak irabazi du *Eman minutu bat bakearen alde* lehiaketako sari nagusia; gurean izango dugu.

12:25 Magazinea

13:25 Onein

13:55 Kantari

14:28 Beranduegi.tv

14:45 Berriak

15:15 Ikusmira

15:42 Ur eta lur

16:12 Erreportajea: Moda zapore

16:43 Berriak

17:13 Ur eta lur

17:43 28.Klip

18:10 Onein

18:40 Berriak

19:10 Kantari

19:40 Magazinea

20:40 Harmailatik

21:25 Magazinea

22:25 Harmailatik

23:10 Gipuzkoa kultura

00:03 Altxor Txokoa

MARTITZENA, 28



Arrosaren jardunaldiak

19:48

Arrosa irrati libre eta txikien lehen jardunaldiak egin zituzten zapatuan Bergaran. Horixe izango dugu berbagai.

12:30 Magazinea

13:30 Harmailatik

14:15 Kantari

14:45 Berriak

15:15 Beranduegi.tv

15:36 Harmailatik

16:19 Onein

16:45 Berriak

17:15 Bizitegia

17:45 Harmailatik

18:30 28.Klip

18:54 Berriak

19:21 Kantari

19:48 Magazinea

20:48 Erreportajea: Moda zapore

21:18 Beranduegi.tv

21:33 Harira

22:18 Magazinea

23:18 Harira

EGUAZTENA, 29



Neguko lore eta landareak

19:50

Neguko lore eta landareei buruz hitz egingo dugu eguazteneko *Magazinea*-n. Aitor Ugarte izango da gurean.

12:15 Magazinea

13:15 Harira

14:00 Beranduegi.tv

14:15 Kantari

14:45 Berriak

15:15 Gipuzkoa kultura

15:45 Onein

16:13 Berbetan

16:48 Berriak

17:18 Altxor Txokoa

17:50 Walker

18:15 Harmailatik

18:55 Berriak

19:20 Kantari

19:50 Magazinea

20:50 Bizitegia

21:20 Magazinea

22:20 Berbaz

23:20 Magazinea

EGUENA, 1



'André eta Dorine' antzezlan

22:16

Kulunka taldearen *André eta Dorine* antzezlan ezagutuko dugu. Maskarekin egindako lan mutua da.

12:30 Magazinea

13:30 Gipuzkoa kultura

13:55 Kantari

14:20 Bizitegia

14:45 Berriak

15:15 Onein

15:42 Berbaz

16:42 Berriak

17:12 Kantari

17:42 Ikusmira

18:09 Beranduegi.tv

18:26 Onein

18:46 Berriak

19:16 Kantari

19:46 Magazinea

20:46 Bizitegia

21:16 Magazinea

22:16 Gipuzkoa kultura

22:46 Erreportajea: Moda zapore

23:16 Magazinea

00:34 28.Klip

EGUBAKOITZA, 2



Eguneko albisteak

14:47

Eguneko albisteen berri emango dizue Goiatz Arana aurkezleak *Berriak* saioan. Inguruko albisteak jorratuko ditugu.

12:30 Magazinea

13:30 Gipuzkoa kultura

13:55 Kantari

14:22 Onein

14:47 Berriak

15:14 28.Klip

15:38 Bizitegia

16:08 Leku txiki bat

16:38 Berriak

17:11 Harira

17:56 Beranduegi.tv

18:16 Berbetan

18:49 Berriak

19:19 Kantari

19:49 Magazinea

20:49 Harira

21:34 Magazinea

22:34 Esatea libre

23:34 Magazinea

ARRASATE IRRATIA

Petti eta Xabiren kontzertura joateko sarrerak zozketan

Kooltur ostegunak egitasmoaren barruan, aste honetan Petti eta Xabik emango dute kontzertua Arrasateko gaztetxean. Bada, hara joan nahi baduzu, lortu sarrerak gurean. Zozketan parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbide elektronikora. Animatu, parte hartu eta zorte on!

Azoka biziberritzeko parte-hartze saio irekiaren balorazioak

Arrasateko azoka biziberritzeko parte-hartze saio irekia egin zuten zapatuan. Bada, han zer esan zen jakingo dugu; izan ere, Arrasate Irratiko uhinetan izango dugu Iraila Sola, Udal Gobernuko bozeramailea, bertan esan zirenak kontatzen eta saio horren balorazioa ematen. Hori izango da gaurko irratsaioan, 10:30ean.

Parte hartu irratian Twitter bidez: '@arrasategoiena'

Gurekin harremanetan jartzeko beti gogoratzen ditugun moduak hauek dira: telefonoz 943 25 05 05ean eta e-mailez irratia@goiena.com -en. Hala ere, Twitter bidez ere bidaltzakezue zuen proposamenak, galderak edo iruzkinak, [@arrasategoiena](https://twitter.com/arrasategoiena) idatzita. Aste honetan, adibidez, zoriendu hilaren 29an urteak betetzen dituzten pertsonak modu horretan.

TELE-ALBISTEAK

Saio berria eskainiko dizuegu Goienan: 'Harira', alkateekin

Martitzenetan izango da eta, herri handienetik txikienera, alkate guztiak igaroko dira Goienatik

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Bihar, martitzena, saio berria estreinatuko du Goiena telebistak: *Harira*.

Eneko Azkaratek aurkeztuta, elkarrizketa saioa izango da *Harira*. Astero, gaurkotasanari lotutako gonbidatu bat izango du platoon. Biharko saioan, hau da, martitzenean, Oñatiko alkate Mikel Biain izango da. Eta hurrengo asteetan Debagoieneko gainerrako alkateak izango dira gurean. Herri handienetik txikienera, alkate guztiak igaroko dira Goiena telebistatik.

Ikus-entzuleen parte-hartzea

Ikus-entzuleek saioan parte hartzeko eta alkateari galderak egiteko aukera izango dute, saioa zuzenean baita (21:30).

Hain justu, hainbat modutara egin ahal izango dute hori. Zuzenean galderak bi modutara egin ahal izango dira: telefonoz deituta 943 25 05 05 zenbakira edo Twitter bidez, #harira traola erabilita. *Goiena.net*-en *streaming* bidez ere eskainiko dute saioa, eta galderak edo iruzkinak egiteko aukera izango dute erabiltzaileek.



Eneko Azkaratek aurkeztuko du saioa. | IMANOL GALLEGU

Martitzenean 21:30ean estreinatuko dugu saioa

Galderak aldeztu aurretik bidaltzeko aukera ere izango da: posta elektronikoz harira@goiena.com helbidera edo *Goiena.net*-en, albistearren barrenean, zeure galdera edo iruzkina erantzunetan utzita.

Herriarrek parte hartzeko hainbat modu daude, hortaz.

Orain, galderak edo kezak helarazteko gonbita egin nahi dizuegu Goienatik. Ea, ba, animatu eta parte hartu. Egin galderak zuen herrietako alkateei.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Mailu Guridi
Martxoaren 4an, 54 urte. Zorionak, amama! Eta urte askotarako. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta laztan asko etxeko danon partetik! Txokolatzeko muxuak, bereziki Izarren partetik.



OÑATI
Elene Axpe Zubizarreta
Martxoaren 3an, urtebete. Zorionak familixakuen partetik. Musutxo potolo bat. Mua!



ANTZUOLA
Laiene Kortabarria Otaegi
Martxoaren 3an, 2 urte! Zorionak, sorgintxo! Aita, ama eta Garaziren partetik.



ESKORIATZA
June Fernandez Sedano
Martxoaren 2an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat familiaren partetik eta bereziki anaia Ikerrek.



ARETXABALETA
Andoitz Gomez Iturbe
Martxoaren 1ean, 4 urte beteko ditu etxeko txinpartak! Beti zabiltza zirti eta zarta, orain jolas gero zalaparta! Zu bai zarella mutil aparta! Zorionak, Andoitz Kalanbre. Muxuak etxeko partetik.



ARETXABALETA
Xabier Del Teso Astondoa
Martxoaren 1ean, 2 urte. Zorionak Otxandixoko txikirrintxoari. Muxu handi bat amama, aita eta tio Ikerren partetik. Ondo-ondo pasatu eguna!



ARRASATE
Mireia Muruamendiaraz Gutierrez
Otsailaren 29an, 36 urte. Zorionak, Mireia! Etxeko guztien partetik!



BERGARA
Aitor Anton Serrano
Otsailaren 28an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Besarkada handi bat etxeko partetik, bereziki Ariadna.



ARETXABALETA
Paule Meabe Etxeandia
Otsailaren 28an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat familia guztien partetik.



OÑATI
Urko Gomez Barrena
Otsailaren 28an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Besarkada eta muxu handi-handi bat etxeko partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



ESKORIATZA
Libe Parra Navarro
Otsailaren 27an, 7 urte. Zorionak amatxo, aitatxo eta Mikelen partetik. Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Muxu handi bat!



ARETXABALETA
Amaia Ribera
Otsailaren 26an, 9 urte. Zorionak, Amaia. Gaur zure urtebetetze eguna da eta oso ondo pasatuko duzula espero dugu zure familiakok. Opari asko jaso dezazula!



BERGARA
Igor Larrañaga Agirre
Otsailaren 25ean, 2 urte. Zorionak, bihurri! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo potolo bat aitatxo, amatxo eta Eleneren partetik.



ARETXABALETA
Aner Zugasti
Otsailaren 25ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun. Muxu potolo bat Eneko, aitatxo eta amatxoren partetik!



OÑATI
Ione Guridi
Otsailaren 25ean, 34 urte. Zorionak, Jone! Aita, ama, Andoni, Sergio, Malen eta Gariren partetik. Asko maite zaitugu. Urte askotarako!



OÑATI
Katixa Agirrebalzategi
Otsailaren 24an, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Muxu potolo bat amama, aittaita, tio eta tiaren partetik.



BERGARA
Aitor De Benito
Otsailaren 24an, 18 urte. Zorionak, enano! Eguziaz disfrutatu izana espero dogu. Patxo potolo-potolo bat Oñatiko familiaren partetik.



ARRASATE
Danel Zabala Muruamendiaraz
Otsailaren 24an, 3 urte. Zorionak, Danel! Egun polita igaro zure urtebetetze egunean eta mila muxu Haizea, amatxo, aitatxo eta familiaren partetik.



ESKORIATZA
Maren Bruña Gonzalez
Otsailaren 23an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu eta muxu handi bat zure gurasoen partetik. Maite zaitugu.



ARRASATE
Lander eta Garazi Agirre Osinaga
Otsailaren 23an, 7 urte. Zorionak, *potolos!* Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze eguna. Dagoeneko zazpi urte. Muxu asko familiaren partetik.



ARETXABALETA
Gilen Mar Barrutia
Otsailaren 23an, 21 urte. Zorionak, Gilentxo! Untzak VBkoen partetik. Zutaz oso arto gaude. Horrela segi, pitxin!



ARAMAIO
Izaio Ezpeleta Etxeberria
Otsailaren 22an, 2 urte. Zorionak! Muxu handi-handi bat etxeko, eta bereziki, Aratzen partetik.



BERGARA
Katixa Gallastegui Lete
Otsailaren 21ean, 3 urte. Muxu eta besarkada asko, printzesa, familiaren partetik, bereziki Pello eta Eider.




ESKORIATZA
Ekain eta Beñat Zugasti
Ekainek otsailaren 20an 6 urte egin zituen eta Beñatek martxoaren 4an 3 egingo ditu. Zorionak bixoi familia danon partetik eta patxo handi bana gure piratei! Abordatzera!



BERGARA
Ariane Igartua Muxika
Otsailaren 20an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Maite zaitugu.



OÑATI
Enaitz Arregi Markuleta
Otsailaren 20an, 7 urte. Zorionak, Enaitz! Gure zaldizkoak zazpi urte handi bete ditu. Muxu pila-pila! Haizea, Amaiur, amatxo eta aitatxo.



BERGARA
Haizea Sanchez Roman
Otsailaren 19an, urtebete. Zorionak, Haizea! Ondo pasatu zure lehenengo urtebetetze egunean. Muxu handi bat etxeko guztien, eta bereziki, Izeba Noemiren partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitarkeok.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurra@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera.

JAIOTAKOAK



Izadi Suberbiola Ortuzar

Elorrio. 2,100Kilo. Otsailaren 17a. Gurasoak: Estibaliz eta Karlos. Argazkian, Izadi sehaskan.



Marina Uralde Aperribay

Bergara. 3,220Kilo. Otsailaren 15a. Gurasoak: Sonia eta Victor Manuel. Argazkian, Marina kamerari begira.



Ander Ilarduia Arteaga

Bergara. 3,500Kilo. Otsailaren 20a. Gurasoak: Olatz eta Aitor. Argazkian, Ander amarekin.



Jare Basauri Rodilla

Abadiño. 3,340Kilo. Otsailaren 20a. Gurasoak: Nerea eta Oscar. Argazkian, Jare amaren besoetan.



Unai Alvarez Agirrebeña

Arrasate. 3,960Kilo. Otsailaren 20a. Gurasoak: Aloña eta Iosu. Argazkian, Unai sehaskan lo.

Jaiotzak

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari-tza batera.



Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Xabi Lasaga Mateo

Aramaio. 3,400Kilo. Otsailaren 20a. Gurasoak: Lurdes eta Iñaki. Argazkian, Xabi sehaskan.



Leire Roldan Diez

Arrasate. 4,020Kilo. Otsailaren 23a. Gurasoak: Nuria eta Iñigo. Argazkian, Leire aita eta amarekin.



DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Bidaiatzeko dokumentu	Umorezko kolpe	Mahai jokoa
	Kubako hiribunua	Egoista	Modu narratsean
	Pl. laborarien lanabes		
	Haren		
Ez estua	Presio unitate		Musika nota
Hegazti mota	Kristal, beira		Nori atzizkia
NEGUAN			Begirada
Jai egun guztietan			
		Sigla izugarriak	
		Sodioa	
Musika nota	Sendo		
Iri	Röntgen		
		Gipuzkoako herria	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	I	A	E	R	R	B
O	K	N	I	T	L	A
S	S	O	R	O	J	A
	A	K	O	R	B	E
A	R	A	P	E	R	G
E	R	E	B	A	R	Z
K	A	S	E	G	A	V
A	B	A	N	A	H	A
X		G	P			

BILA-BILA 7



GOIENAN ESKELA JARTZEKO
DEITU: 943 25 05 05.
EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelaren prezioa: 126 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

Babeslea:

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

URTEURRENA

Oier
Carballares Badiola



2000ko otsailaren 27an hil zen, 21 urte zituela.

*Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.
Eta inoiz itzaltzen ez delako,
gogoan zaitugu.*

Zure familia.
Eskoriatzan, 2012ko otsailaren 27an.

Saguzarrendako aterpea

Nola lagundu kobazulotik urrun edo galduta dagoen saguzar bati? Etxe kanpoan jartzeko aterpe hau izan daiteke aukera bat. www.nopuedocreer.com



"Emakumeak hobekien dauden lekua etxea da, euren lanak egiten".

CRISTIAN | 'GRAN HERMANO'-KO LEHIAKIDEA

Hori bat. Eta hemen beste bat: "Gay izatea gaixotasun bat da, baita izurritea ere". Telecinco etxe ezaguneneko biztanle berrienak botatakoak dira; aprobetxa ditzala ondo egunak, astakeria horiekin jarraitzen badu, berehala joango da-eta kalera. **Telecinco**



Max. 14°

Min. 5°

Astlehenean hobera egingo du eguraldiak. Giro eguzkitsua nagusituko da. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-02-27

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Kepa Junkera 1965ean Errekalde auzoan jaiotako bilbotar honek pandero-jolea zuen aitona; ama, dantzaria; eta berak trikiti doinuak zabaldu ditu mundu guztian zehar | TXOMIN MADINA

"Polemikak ezin dira ekidin, onartu egin behar dituzu"

1. Ez dira asko etxean Grammy sari bat dutela esan dezaketen euskal musikariak...

Espero ez dituzun gauzak dira; ez duzu lan egiten sari bat jasotzeko. Ilusio handiz hartu nuen eta inguruendako ere poza da. Baina aurrera jarraitu behar da; ez zaitu hobia edo okerragoa egiten.

2. Ekonomia ikasten jarraitzea erabaki izan bazenu non zeundeke?

Edozein lanetan, orain bezala ahalik eta hobekien egiten eta jendea-ri gozarazten. Hori izan da beti nire leloa. Musikan aritzea erabaki arren, ez dut ezer bazterten.

3. Etxea, Kalea eta Herria lanetan erdaldunak euskaraz abesten jarri zenituen. Zein izan zen trebeena?

Azkenean denen inizatiba eta intentzioarekin geratzen naiz. Itzela izan zen. Eurentzat ohore bat izan zen gure kultura abesti eta euskara bidez ukitzea; denek dena eman zuten.

4. Proiektu baten hainbeste izen ezagun biltzeko zer egin behar da?

30 urte baino gehiago daramat musikan eta batera edo bestera elkar ezagutzen goaz. Elkarrenganako errespetuagatik ere bai; interesgarria dela iruditzen bazaie, parte hartuko dute.

5. Zailagoa da sentimenduetara heltzea hitzik gabeko abestiek?

Pertsona bakoitza mundu bat da. Niri musika instrumentala gustatzen zait abstraktua delako; zure aldetik gehiago jartzeko uzten dizu.



JON POZO

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Giza zientziak indartuko nituzke"

"Giza zientziak indartuko nituzke, kultura, ukitu ezin diren gauzak. Gauza gutxiagorekin bizi gaitezke, baina ezin gara kultura bere osotasunean indartzea ahaztu. Askotan ezin dira ukitu, ez dute etekin konkreturik, baina pertsona hobia izaten laguntzen dizute. Kanta batek ematen dizuna, ezin dizu beste gauza batek eman."

6. Azkena ez duzu makala: diskoa Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin.

Ipar haizea du izena eta martxoaren 8an aurkeztuko dugu: nire ibilbideko kantuak dira, orkestrarako moldatuta. Oso proiektu berezi eta hunkigarria da.

7. Jaurlaritzak eman zizkizun diru laguntzek polemika piztu zuten...

Polemikak ezin dira ekidin; onartu egin behar dituzu. Baina ez dut uste erakunde baten babesa jaso duen bakarra naizenik. Jendeak bere iritzia eman dezake; baina ez dakit proiektuaren dimentsioa eta urteetan zuen iraupena ikusi zuten.

8. Zer eman dizu Estatu Batuetan igaro duzun urteak?

Oso interesgarria izan da; musikaren eta kulturaren sehasketako bat da. Zentzu pertsonal eta profesionalean oso esperientzia polita izan da. Berriz han jotzeko gogoz nago; interes handia dute munduko musiketan.

9. Errekaldekoa izanda, nola bizi izan zenuen Kukutzakoa?

Auzoaren mugak gainditu zituen; ekimen oso polita eta interesgarria zen eta jende asko harritzen zuen. Baina hazia erein da eta ahalegina ez da alferrik izango.

10. Nola doaz euskara kontuak?

Tarteka ikasten dut; ea orain, orkestrarena amaituta, berriz harterik dudana. Lanagatik zaila egiten zait jarraikortasun bat mantentzea; baina saiatzeko naiz.

BIHARAMUNA

MARKOS
BALENTZIAGA



Europarron dietista

Milioika europar gabilta dieta integral bati lotuta; ekonomiatik hasi eta, begiz begi, bizimoduaren zirriztuta orotara iristen zaigun kate bihurtua dugu.

Merkel andrea da dieta horren ama pontekoa. Merkelek, azapeko orria baino gehiago da eta, ofizianako lanaz gainera bere burua hedabideetan erakustea ere atsegin du.

Merkelek berak, baina, egiten ote du dieta hori? Esaterako, jogurt grekorik jaten du? "Jogurt grekoa? -erantzuten omen du- *Nein!* Hobe xukrut-platerkada eder bat Bavariako ur apartsuz lagunduta!". Eta dietari buruz hartutako ardurak sortzen da estresik-edo? Bai, estutasun batzuk eragiten dizkio, bai.

Malenkoniaren iluntzeak edo depresioaren gauak perikardioa estutzen diote-nean, Merkel andrea Parisera joaten da. Han maskotaxo bat dauka: *Nico*. Merkelek hari hustutzen dio barrua eta lasaitu egiten da; izan ere, *Nico* belarritentte ponpoxo-ponpoxoa da. Gero pasieran eramaten du, kontu pottoloak esaten dizkio eta, ordainetan, maskotak dietista zorrotzari bihotzondo karratua indarberritu egiten dio.

IZOZTUEN ataleko produktu guztietan

2 ordaindu eta **3** eramán

Merkeena dohainik. Nahi duzun moduan konbina itzazu.

Hipermerkatuak

zurekin

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30
www.grupoeroski.es

Eskaintza 2012ko otsailaren 23tik martxoaren 14ra arte.